




# BABILANDIA



FELIX ZUBIAGA

***BABILANDIA***

*Marrazkiak:* Jesus Antonio Ruiz-enak

I.S.B.N. 84 - 400 - 3846 - 1

Depósito legal: BI 2.975 - 1977

## I

### SORGIN BEDARRA

«Ujurujuuuu!», irrintzi izugarri batek etsai baltzaren ordua jo euan *-zuan-* Babilandako mugetan. Karraxi, deiadar, alauri... Mendiak jo, ibarrak entzun, aitzak aitzari erantzun. Zer zan a edo nor zan bera? «Zentaila madarikatua! Sorgin lapikoa irakiten...», Goikolarreko artzaiñak Damaren kobatik ke multsoa igoten ikusi euan *-zuan-*, bildur ikaraz dardard egintson *-zegion-* soin guztiak eta makila gertu euan *-zuan-* eskuan, «atso madarikatu orrek asmatu diok *-dik-* ostera ere deabrukeriren bat».

Goikolarreko artzaiñak, txakurrei deika, «fiuuu! Fiii» txistu larriak jo euazan *-zituau-* eta ostaz nasaitu yakon *-zitzaion-* barrena, aren zaunkak entzutean. Ba etozan *-zetozan-* ardiak goiko magaletik bera. Gazteago zanean, artzaiñak barre egiten eutsen *-zien-* amonaren ipuñei. Amonaren ipuiak! Sorginen buru Dameak, sapoaren iragarritz, bedar gaiztoren bat idorotean, lapikoan, irakin eta irakin oi erabillan *-zerabillan-*, arik eta salda baltz-baltza lortu arte. Orduan botaten ei euan *-zuan-* pozezko santzoa... Artzaiña ez egon *-zegon-* nasai. Egia ete zan?

Ke multso zuria mendi tontorreraino igon zanean, arat onat naasiz, bere aideko biribilketan asi zan, gero ta larriago, gai zuri guztiak bere ardatzean bildu nairik. Itsasoak aize arifetan erantzun eutsen *-zion-* mendiko seiñuari, basoak ostrotza astindu euan *-zuan-*, «ekaitza dator» artzaiñak belarrietaraino sartu euan *-zuan-* txapela pozik ardiak kortan sartu euazenean *-zituanean-*. Gudaroste antzeko odei illuna etorren *-zetorren-* ifarraldetik, izugarritzko bekaiñez eta iskilu otsean, egunaren argia azpian artuz. Mendi bizkarreko atxartean, ifarra eta egoa alkartu zirenean, trumoiak jo euan *-zuan-*. Ortzia goibeldu zan eta eguzkiak azken zirrikitua galdu euan *-zuan-* odei baltzen sarradan. Mendi guztiak, jaun-

txo barriaren mende, sorgin biltzar biurtu ziran, illunpeko indar, illunpeko argi. A zan guda kantuaren burdin otsa, geziak oiñestuka arkaitzen kontra zorroztuaala, sorgiñek erabillena *-zerabillena-*:

Babilene mende,  
Aide! Aide!  
Dena ondatu beite...»  
«Babilanda manda,  
Aufa! Aufa!  
Ez da sekula santa!

Babiren amak barrezka eukazan *-zeuzkan* ezpain-agiñak sudur kako azpian eta «sorgin ipuiñak» liburu gaiñean, «sasi guztien azpitik eta odei guztien gaiñetik» irakurtean, sorginak bide erratu eta azal urratu, gutia ondatu egingo zirealakoan...

## II

### LEEN ASALDUA

Baina Etxekoneko Josetxok, lotan etzala *-zetzala-*, seaskako estalkiak astindu eta ukabiltxoak begien parerañño jasorik, mamuen kontrako burruka larria eroan *-zeraman-*. Atzaskolak kanporadi, eskugaiñaz igurka, ondo zaintzen euazan *-zituana-* betondoak. Baiña ez euan *-zuan-* sentitzen amaren ikutu epela bekokian. «Non ete zagoz, amatxo!» Mamu baltz guztiak beraren kontra eta Josetxo bakarrik... Ointxoak estalkietatik askatu, eperdiak iduli eta zutunik morrosko jagiteko aalegiñak egizan *-zegizkian-*. Ezin! «Baiña, non zagoz, amatxo?» Kolkotik estarrirañño alako korapillo batez inguraturik, ito bearrez euken *-zeukaten-* etzaiok Josetxo, eta larrianean, «ajak! Ajak» eztarri-estarrarian eten euan *-zuan-* korapilloa. Orduan «uaaa» luzea edatu zan, bestalderañño alarma tirriña, Babik, panpin jolasa eten eta begiz lauorritu, amari galdetu eutsoanean *-zioanean-*:

—Zer jasoten yako Josetxori?

—Ez dakigu ba, zertan dan Josetxoren ama, umea besoetan artu eta musuka ez ixiltzeko. Esku bete arazoz egondo don *-den-* eta... Ba dakin? Josetxoren amoma joan danetik, negar geiago egiten dion *-din-* ume orrek. Ez diaukan nork seaskan eragin eta kanta:

«Ez zaitue eroango  
sorgin begizkoak;  
elorriz astinduko  
neuk sorgin gaiztoak»

Amak batean kantuz, bestean itzez erantzun eutson *-zion-* Babiri eta sorgin ipuin arrigarrietan galtzen yakon *-zitzaion-* irudipena: «Inbento polita amomarena: odeietan trumoiaren otsa edo ate zirrikituan aizearen txistua entzun orduko, elorria ipinten dioenan laratzean eta kandela bedeinkatua suburuan...».

### III

#### MISTERIO ZURIAK

Panpin ez zan bat ere artegetu sedazko seaska xumean. Josetxok negar egiken *-zegiken-*, bera, Panpin, ez zan esnatu gauza soilen lozorrotik. Nasai egoken *-zegoken-* Panpiñen ama, iñude eta aurtzain maitatia, Babi, bost urteko neskatto argia: muñekatxoaren gorontzak egokitu, aren gonatxoak garbitu eta josi, beste lanik gabe...

—Ama, Josetxo bestaldeko, negar eta negar dago. Zer gertatzen yako *-zaio-* umeari?

—Nik zer diakinat *-zekiñat-* zer gertatzen yakon *-zaion-* bestaldeko Josetxori? Pupua eukiko dion *-din-*...

—Sorgin gaiztoek Josetxo bezelako aur txikien loak naasten dauezela *-dituela-* entzun dot *-det-*.

Egia da ama?

—Nork esan deun *-din-* olako tontakeririk? Leen ere esan nenduan *-nian-* ez egoela *-zegoela-* sorgiñik.

—Eta Edurnezuriri nork emon eutson *-zion-*, ba, arako zital ilgarria?

—Umeak ikaratzeko ipuiñak dozan *-ditun-*.

Babik Panpinen zapitxoak antolatzen jarraitu euan *-zuan-*, «guzurrak ete dira aitatzok kontaktzen daustazan *-dizkidan-* zazpi bildots eta otsoaren ipuiñak ere» ez baitan ebilkozan *-zebilzkion-* buruko kiribiloak, «otsoak ere Panpin antzeko keldoak ete dira ba eta bildotsak putzezkoak»?

—Ama, gure Panpinek ez daki negarrik egiten.

—Lokartuta egongo don *-den-*.

—Joko dok *-det-*, negarrik egiten ete dakian, ikusteko?

—Obe, laztana, olako musikarik erakusten ez badautson *-badion-*.

—Gurago neunke *-nuke-* ba! Mosuka ixildu eraziko neunke *-nuke-* Josetxoren amak egiten dauenez *-duanez-*... Non erosi geinke *-genezake-* Josetxo alako beste benetako ume bat? Panpinek txupeterik artzen ere ez daki. Josetxok esnetan artzen dau *-du-*, ama!

Amak ez eutson *-zion-* Babiri geiagorik erantzun, ipuiña irakurten jarrai uean *-zuan-*, «zenbat eta erantzunago, txarrago» orria iduli euan *-zuan-*. Babik, ama iñakur amesetan ikusi euanean *-zuanean-*, Panpin jostailua, bertanbera itzi eta isil-isil, Josetxori zer jasoten ete yakon *-zitzaion-* galdezka joan zan bestaldera. Panpin, ezeren tuku gabe, eskaratza erdian ankaraz gora gelditu zan. Panpinentzako bardin ziran lur gorria edo sedasko seaska xumea, bardin yakozan *-zitzaizkion-* Babiren laztanak edo zaputzak. Panpinen aragi gorrizkakoren mami biribilduak, ez irudien *-zirudien-* plástikozkoak, Panpinen begiak betule andiz irikitzen ziranean, arri bitxiak ez eitekezan *-zaitzeken-* zoragarriago, aren mototxa nylon urreztatua zan eta miesa zurikoak aren gona labur ixurdunak. Ballek batean atzemaniko pospoliña irudian *-zirudian-*, Babiren aitatzok eskuetan dantzaz bira eragiten eutsonean *-zioanean-*. Panpin zoragarria benetan: irriño loretu, zeru begi eta ezpain arrosatu. Sorgin gaiztoen begizkoak ez euken *-zeukaten-* zereginik Panpinen gorputz antzeztuan...

Nasai egoken *-zegoken-* Babi, Panpinen aurtzain, iñude eta ama maitatia. Panpin ez zan mindurikatzen, Babik besoetan artu egian *-zezan-*; Panpinek ez euan *-zuan-* jaten, Babik jaki gozoenak iastatzeko emon arren; Panpiñek ez euazan *-zituan-* ez urratzen, ez zikintzen miesa zurizko soiñekoak. Alperrik ebizen *-zebiltzen-* Niñiren merikuak. Niñirentzako burdiñezko biotz bat asmau nairik, aren mugikerak berezagoak egitearren, edo aren kolkotik, ez eukan *-zeukan-* sentimenturik ateratearren. Gauza bat bakarra egiten ekian Panpinek: lo arean! Lo eta lo beti, bake santuan, zerura begira edo ipurdiz gora, izten euen *-zuten-* tokian bertan, gauza soilen lozorro amaigabea.

#### IV

#### HERODES TXIKI

Aundia da gero Panpini jaso yakona *-zitzaiona!* Ene! Bera baiño obeto eziriko aurrik eta... Betiko loak kendu eutsoezan *-zizkioten-* bein Panpini! Noren erruz gero? Zer dala eta? Babi, Babi, Babi! Panpinek negarrrik egiten ez ekialako? Panpiñek soiñekorik zikintzen ez eualako *-zualako?* Babi, Babi, Babi! Nork uste alako aurtzain maitatiak... Baiña orixe jaso zan.

Babiri, Panpinen gorontza mailaz mail egoitzen eta estutzen inardue-la bein, jostorrazak eskuetatik laban egin eutson *-zion-* eta, «ai ena» plastikozko aragi samurrean sartu zan ez-ustean.

—Txut ena! —atzamartxo aora eroan euan *-zuan-* Babik; urratu-netxo bat baino ez berari—. Ez dozu *-dezu-* miñik artu, Panpintxo? Ez e? Bapez-bapez miñik...? Ea orain...

Babi Panpinen bulartxo a naitara ziztatzen asi zan, «eta orain...» galdezka eta orratza gero ta sakonago sartzen eta amorratzen, «eta orain-goan miñik egin dautzut *-dizut-*» erantzuna eskatzen.

—Ez daustazu *-didazu-* erantzun gura e? —besoak garrian azta egi-ñik, altzoan eukan *-zeukan-* Panpini jarkitu yakon *-zitzaion-* Babi, burua igika, ezpaiñak ertzika—. Eta zelan erantzungo daustazu *-didazu-* ba, zu guzurrezko ume bat zara eta, zu iñortxo be ez zara eta! Zoaz emendik!

Babik lurrera jaurti euan *-zuan-* jostailua. Panpinek zilipurdika, iru bira egin euazan *-zitian-* lurrean; anka zabal eta aratiñik gelditu zan, ezpaiñetako barre irria eten barik.

—Gure Panpini katuak miiña jan dautso *-dio-*... Operaziñoa egin bearko yako *-zaio-*, «ijiji» barre gaiztoñoak urten eutson *-zion-* Babiri,



«Eta zelan erantzungo daustazu *-didazu-* ba, zu guzurrezko ume bat zara eta, zu inortxo ere ez zara eta! Zoaz emendik!».

«operaziñoa» aipatu euanean *-zuanean-*. «Orratz beronez, indiziñoak emongo leenengo eta gero sukaldeko aitzoaz konponduko dot *-dut-*. Miiña nork jan dautson *-dion-* jakin bear dot *-dut-*, ijiji...! asmatu euan *-zuan-*.

Ama ez egon *-zegon-* orduan sukaldean, Babik aitzoari oratu eutso-  
nean *-zioanean-*. Ama dendatik itzuli zaneke, eskaratza ebakuntza tokia biurturik egon *-zegon-*: Panpinen burua andik, besoak emendik, zangoak erdibi eta soin enborra..., ai ene soin enborra! Babik eukan *-zeukan-* aitzoaren puntan!

—Ara Herodes txiki berton —agirika egitson *-zegion-* amak, gauzari gara andirik emon gabe—. Babi gaizto, alako ori!

—Ez dau *-du-* minik artu, amatxo —erru begiak gorde euazan *-zitan-* Babik, eta ezpainak muturtuz, matrailak busti yakozan *-zitzazkion-* malko ixiletan, Nifiren eriotza zela eta...

V

BASATXORITXU

Lotxo bat egin ondoren, Babiren kontzientzia nasai gelditu zan. Jolasteko muñeka barria erosiko eutson *-zion-* amak, baiña Babik naiago euan *-zuan-* bestaldeko Josetxogaz jolastu. Gogaitu ere egin zan Josetxo alako aur negarti bat beretzako amari eskatzen. Ez ei egoan *-zegoan-* dandan Josetxo alakorik, «ez ba...» dudatxo bat eukan *-zeukan-* Babik:

—Ama, nork egiten dauz *-ditu-* benetako umeak?

—Txori andi batek ekarten diozan *-dizkin-*... Ez ete don *-den-* iñoiz entzun?

—Txoriak? Zelako txoriak gero, ama...

—Txori piku luze batek, pikutik dingilizka boltzatxoan.

—Basatxoritxu izango da... Eta egaz doala, bera jausten bayakoz *-bazaizkio-*?

—Aidean artu.

—Orixe, ama. Eta noiz igaroko txori ori geure etxearen pare-parean, deskuidoan Josetxo alako benetako umea soltatzeko?

—Ara, ume, nik zer diakinat *-zekinat-*! Urrundik ibilko don *-den-* arean edo nekatu egingo zonan *-unan-* batera eta bestera karga bardiñaz ibilten.

—Nik ikusten badot *-badet-* ba...

Eskari begiak zerurantz ioakozan *-zijoazkion-* Babiri, amak mosu bat emon eutson *-zion-* bekokian alako gurariak burutik kendu nairik, magalera erakarri eta besarkatu euan *-zuan-*, biotzak salto egion *-zegion-* amari kolkoan, «neure barrukoa zara» esateko gogoak emotson *-emaion-* eta amonaren arako «basatxoritxu» abestuz aur bizien sorrera iragarteko egon zan une batez, baiña egiari alboa emon eta itxurak egiten oitua zanez, triki-triki ariña opa eutson *-zion-* belaunetan Babiri, «corre, corre, caballito» abesten eutsola *-ziola-*. Ala ere, biotz unkitu zan apur bat amaren biotza «y si no quieres la cuesta arriba, escogeremos la cuesta abajo» tono xamurrera eldu zanean.



## VI

### BRONTZE-AROA

«.....Brun! Brun! Brun! Molok burdin orizko jainkoari tupin otsaren antzeko korrokadak urteten eutsoen *-zizkien-* urdailetik. Aste batzuk ziran jakirik aoratu ez euala *-zuala-*, eta bere jaupariak danak merkatura zerbaiten bila joanak ziran.

—Aurrak! Aurrak! Aurrak niri! —gose alauriak egizan *-zegizkian-* gero ta sarriago, gero ta amorratuago. Molok-entzat ez egon *-zegon-* aurren aragi bizia baiño jaki xamurragorik, ez auren odola baiño ardao gozoagorik. Merkatura joan zirenak ez ziran eltzen eta tenplotik plaza-raiño zemaia egizan *-zegizkian-* jainko bildurgarriak, erria dardaraz egola *-zegola—*: Aurrak niri; tximistak erreko zaitue *-zaituzte-* danok bestela!...

Esku utsik etorri ziran jaupariak, plaza erditik jainko bildurgarriaren tupin korrokadak entzutean, bildur ziran aren tenploan sartzen. Iru aste ziran arrezkero aren urdaileko labea izioki ez euela *-zutela-*. Zer egikeen *-zegiketen-* jainko bildurgarri eta erri aztoratuaren artean?

—Jainko itzalgarri...! —otoizka auspeztu zan jaupari nausia ateetan bertan, burua lurrera makur eukala *-zeukala—*. Babilongo merkatu guztietatik ibili gara...

—Otoi gitxi eta jaki asko niri —itzak moztu eta arpegi serioa emotson *-emaion-* Molok jainkoak—. Aurrak! Aurrak niri!

—Munduko merkatuak zearo aldatu dira, Molok andia... —jainko etxe erdiraiño arrastaka urreratzen yakon *-zitzaion-* jauparia, besteak atzetik eukazala *-zeuzkala-*, jainkoak obeto entzun egion *-zezaion-*. Eskondu bai, leen bezelatsu eskontzen dira gizasemeak, baiña errespetoa galdu dautsoe *-diote-* berorri. Umeak urritu dira: bat bere ez dautsoe

*-diote-* opa bere goitar edertasunari. «Brun! Brun! Brun!» korrokada larrienak jo euazan *-zitian-* urdail utseko tupiñak temploko ormak dardar eragiteraiño. Jaupariak lurretik ziran bildurraren bildurraraz.

—Ez dagoela aurririk? —bizirotu asarretu zan jainko bildurgarria, begiradaz bazterrak tximistatzen euazala *-zituala*—. Ta zegaz uste dozue *-dezute-* neure edertasuna irauaraziko dogula *-degula*? Edo eta zelan igesiko dozue *-dezute-* neure mendekuaren atzaparretatik? Ajauu!

Jainko bildurgarriaren goseak izan ezik, danak ilik emoten euan *-zuan-* tenploan, Moloken aoa ixiltzen zanean. Eskua jasoka, itz egiteko baimena eskatzen euan *-zuan-* jauparietako txikerrenak, besteak azpitik ukonoz leratzen euen *-zuten-*, egitekoa egiala *-zegiala-*, jainko bildurgarriak epai larria emon aurretik. «Txist! Txist» altarera urreratu eta eskumako bi atzamar puntetan eroan *-zeraman-*, babea baiño ez aundiago, ogitxo aditzera emotson *-emaion-*.

—Ikusten dozu *-dezu-* potintxo au? Aurrerapenaren ogia da eta osunaren pastila deritxo *-deritzaio-*, eta ez dakit edertasunaren zer dan... Jateko dira!

—Pastilak eta jateko? Um!... Aur usaiña dauka —artu eta usnatu euan *-zuan-* jainko bildurgarriak, bai gogotik iastatu ere—. Aur gozoa dauka. Aja!

—Azur barrien gunaz egiñak dagoz. Eutsiz.

—Eskerrik asko, laztana —ezpaiñak miaskatuz iñoizko barrea egitsen *-zegion-* jainko bildurgarriak, gizakiagazko tratu-oikunak betiko zokoratuz—. Egia esan dok *-dek-*: aurrerapenaren inbentoa auxe! Esaiok jaupari memelo orri ez dodala bear bere serbitzurik gaurtik aurrera. Joana da Brontze Aroa! Jadanik ez dot bearke urdailleko laberik! Esaiok jaupari lerdo orri, burdin orizko irudi au urtu, nere tupin labeak erauzi eta joaliak egin daizala *-ditzala-* nai badau *-badu-*...

Jaupariak senera etorri ziranean, begiak jaso eta ez euen *-zuten-* ikusi geiago aldarean Molok jainko bildurgarria. Brontze Aroa joana zan...»

Babiren amak sorgin ipuinen VI kapituloa amaitu euan *-zuanean-*, liburua apalean itzi euan *-zuan-*, baiña luzaroan irauan eutson *-zion-* be-larrietan Molok jainkoaren tupin durundia.

## VII

### URRE AROA

Babi neskattoa Zumardira yoan *-zijoan-*. Zumardiko lorategian, antxe eukazan *-zaizkan-* azken printzak Urre Aroak, aurren matrailetan kokatu, aurren begietan ditziraz. «Aurren zerua» deitzen eutsoen *-zioten-*, zorionezko errealidadeak, ipuiñetan legez, bere zoko eta ixil gordelekuak baileukaz *-baileuzka-*. Zumardian beinipein... Edo aurrak eurak, irri eta intziri, zeru biurtu euelako *-zutelako-* zumardia, usoeri askatasuna eta loreei etxe berezia egokituz. Urre Aro, zeru edo paradisu, eguzkiaren mozkor eta umeen erreinu... Zumardian beinipein.

Eta Babi, aur gabeko aurtzain maitatia, amaren igesi, zumardira yoan *-zijoan-*, zeruaren billa, Josetxo bestaldekoaren gurdi ondotik. Zumardian egozen *-zegozten-* angeruak, benetako aurrak, seaskan kulunka edo bizikloan zangoka, an leen egadak pausoak, punbalak jauziak, an Babik seaskarik seaska, gurdiri gurdi, bizitzako misterioa oartzuz, amesak ikutzen euazan *-zitian-* atzamarrekin...

—Mutiltxo da? —galde eutson *-zion-* Babik aurtzaiñari.

—Bai. Gurako zendu *-zena-* alako nebatxo bat —begi ertzaz jo dau *-du-* aurtzaiñak Babi eta baiezkak—. Zergaitik ez dautozu *-dion-* eskatzen amari?

—Amari? —eragotson *-zeragoion-* Babik, eta aurtzaiñaren baietzak eta keiñuak zer esan gura einken *-zezaken-* egon, «beste norbaiti— edo esan baleust *-balit-* baiño amari...».

Babiren ordu zoriona ilundu egin zan, arratsean etxerakoan, Urre Aroak tati egitsolako *-zegiolako* Zumardiko azken printzetan.



«Babik, seaskarik-seaska, gurdirik-gurdi, bizitzako misterioak oartzuz, amesak ikutzen euazan -zituan- atzamarrekin.

## VIII LOLO

Amak muñeka jakintsu bat erosi eutsen -zion- Babiri, umea isilduko bazan.

—Niñi! Negartxoak egiten ere badakizu e? —agur egitson -zegion- pozjarioz Babik laguntxo barriari, test larri batez jakituriaren garbitasuna artzen eutsola -ziola—. Ea! Egin ostera ere «uaaa, uaaa...» Ea Josetxoren antzera egiten badozu -badezu... Orrela!

—Ez deunat -diñat- esan nik muñeka jakintsua zala? —amak otsgailuan sartu euan -zuan- gaiñerako eroskia, «zati baterako bakeak doguz -ditugu-» kolkoan arrotu yakon amari, Babiren pozkeriak ikustean.

—Begitxoak izteko esan dautzut -dizut- —otoizka leenengo, aginduz gero, eskatson -zeskaion- Babik Niñiri—. Begitxoak izteko!

—Lotan ipiñi bear don -den- orretako baiña —sentsatzen euan -zuan- amak Babi aurtzaiña. —Etzan egin -ezan- seaskan eta ikusiko, zelan izten dauzan -dituan- begiak.

—Orain ez lotan, ama. Olgetak egin eta gero. Orain Zumardian egurastera eroan bear dogu -degu- gurditxoan— Babi amari begira gelditu zan, Niñi eskutik eukala -zeukala-, begiak argitu euazan -zituan—. Bazatoz, ama?

—Ze aurtzain modu az -aiz-, bada, i alaba, Niñi alako muñeka jakintsu bat bakarrik zaintzeko ez baaz -baaiz-? —sorbaldak jaso eta albo emotson -zemaion- amak.

—Bai, jakintsua da; negar egiten ere ba daki —Babik atzamar lodia sartu euan -zuan- aora eta begiak leiotik joakozan -zijoazkion-, idea bateri loturik egon -zegon—. Antxe ikusiko dogu -degu-, ama, zein dan jakintsuago. Ango umeek bizikloan ere ba dakie -dakite- gero...

—Jakintsura baoa, nor gure Albert baiño jakintsuagorik ikasketako seigarren maillan yoan *-zijoan-* eta? —amak apaletik liburua artu eta jesarri egin zan.

—Ez dot gura Albert! Kolejiotik datorren bakotxean, «zapasto» esaten daust *-dit-*! —eskutxoaz ezpaiñetik, sudurretik, burua ezkoan erabillan *-zerabillan-* batera-bestera Babik—. Nik neba txikitxoaz gura dot *-det-*, Zumardira egurasten eroateko...

—A! Bai e? —amak liburua mai gainean itzi eta Babiri begirada kendu barik, mai inguruan ibiltzen asi zan—. Aurtzain aundi egiten azenean *-aizenean-*, euk erosiko don *-den-* eure gurako ume bat eta kito!

Amaren umoreak jardespenik ez euala *-zuala-* onartuko, konturatu zan Babi; lurrera begira, ixil gelditu zan, Niñi besotik oratu eukala *-zeukala-* eta atzamarra aoan. Une bat geroago, Niñi seaskan etzaten inardun, begiak itxi eragiten, traputxoak konpontzen, batean seaska kulunka, bestean makurrik Niñiri musuka, muñeka jakintsuaren barruan biotz tauparia aurkitu izan baileu *-bailu-* eta, ama maitatiena baizen, aurtxoa kantuz lokarrazten:

«Lolotxo, ene maite,  
ez egin negarrik,  
aingerutxuak dozuz  
ondoan zaindari.  
Negartxoak eiteko  
ez artu prisarik,  
munduan beti dago  
ortako astirik...

Amari iges egion *-zegion-* eskutik sorgin ipuiñen liburua, Babiri entzutean». non ikasi ete dauz *-ditu-* gure umeak alako kantuak» arri-tzen zan, eta leenbaileen alaba Zumarditik aldentzeko, kolejioen batera bialtzea erabagi euan *-zuan-*.

## IX

## DURALEXKO ONTZIA

Eskolatik etxeratu zanean, «zapasto» esan eutsan *-zian-* ostera ere Albert zakarttok Babiri. Babi, samíñez biurritu, oiñen puntetan tinkatu zan, Albertganako garrastasuna agin artetik ezin okaturik.

—Neuk esango dautsot *-diot-* aitari! —malkoz lertu euan *-zuan-* alako eziña Babik, bada alperrikoak izan yakozan *-zitzaizkion-* «neuk esango dautsot *-diot-* amari» zemaia «aitatxok emongo dautso *-dio-* merezia». Amaren eskutik ezpazan, etorteko zan aitarenetik zuzenbidea itxaro euan *-zuan-* Babik—. Aitatzori esango dautsot *-diot-*, eta ikusiko...!

—Zera esango dautson *-dion-*, zapasto alako! —Albert amalau urteko odol egozgaizetan egonez *-zegonez-* gero, ez ekian *-zekian-* arrebatxoa ondo artzen, «mee...» Babiren negarra izekatzen euan *-zuan-*. Zapak aterako daunazat *-dizkiñat-*.

—Bai, bai...! —ortzez eta irrintziz jarkitu yakon *-zitzaion-* Alberti Babi, uletatik eldu eutsonean *-ziane-*. Iiii...!

—Itziok bakean umeari! —agirika egin euan *-zuan-* amak sukaldetik, Babiren karraxiak entzun euazanean *-zituanean-*, amak ez euan *-zuan-* nai lixkarrik etxean—. Zagoze bakean! Gero!...

Babi ixildu zan, baiño ez eukan *-zeukan-* bakerik biotzean, «neuk esango dautsot *-diot-* aitari» Babik orde, justizia, nai euan *-zuan-*. Aita lanetik etorri zaneke, Babi, ezpaintxoak estuka aitagana urbildu zan, negar gureak itza eragozten eutsola *-ziola-*. Albert zakartto eskolara iges egiña zan.

—Lore kuskulua, larrosa, krabeliña! —aitak besoetan artu eta Babi lorategia ezpainetara eroaten euan *-zuan-*, matrailak bustirik eukazala *-zeuzkala-* oartu euan *-zuan-*. Zer jasoten yako *-zaio-* gure urre kurtziari?

Aitak lorategiko edo bitxien dendako izenez deitzen eutson *-zion-* Babiri: luxo andia zan arean beretzat alaba besarkatzea, agaz astia eroatea, lana eta lagunartea artean egoela *-zegoela-*.

—Albertek «zapasto» esan daust *-dit-*...— zotinka luzatzen euan *-zuan-* Babik itz bakoitza eta zotinka itxaro euan *-zuan-* auziaren garbitasuna, aitaren begietan.

—Zapasto esan dautzula *-dizula-* zeuri? Neuk konponduko dot *-det-* Albert kaiku ori! Neuk! —maian ots egin euan *-zuan-* aitaren ukabilkadak, epailariaren mailua baizen, Babiren buruko kiribilo luzeetan atzamarrak sartu euazan *-zitian-*. Zeure urrezko erastuntxoon inbidia daukala Albert orrek! Orixe! Gurako leukez *-leuzke-* kiribiltxook bere kope-ta moztua orniduteko.

—Eta ez dot gura olako Niñirik —eskutxoaz besa aulkian egoen *-zegoen-* andrakila erakusten *-zuan-*, zearka begitson *-begion-*, maian platerak ipinten egoen *-zegoen-*, amari.

—A! Nik ba dakit zuk zer gura dozun *-dezun-* —Zudurraren puntaz aitak Babiren zudur punttatxoa ikuikatzen euan *-zuan-*. Zuk zaldikora triki-triki neure belaunetan ibili gura dozu *-dezu-*. Ala ba: zuk abestu eta nik zaldikoari eragingo.

—Orain ez dot *-det-* gura; Albertek «zapasto» esan daust *-dit-* eta —Babik auzia aidean ekusan *-zekusan-*.

—Bueno! Bueno! —aita Babiren muturtxoa baretzen ahalegindu zan osterá ere—, zaldikora gura ez badozu *-badexu-*, eta Niñi gustatzen ez bayatzu *-batzaizu-*, txakurtxu bat erosiko dautzugu *-dizugu-*: baiña benetako txakur bizi-bizia, «au, au, au...» egiten dauena *-duena-*.

—Ijiji! —euria eta eguzkia izan zan Babiren eguraldia—. Zelan egiten dau *-du-* txakurtxuak, aitaxo?

—«Au, au, au...» Kuki deituko dautsogu *-diogu-* —aitak pozarren egian *-zegian-* Kukirena, Babiren ezpaiñak lore biurtu ziranean—. «Au, au, au...».

—Jo, aitaxo! Josetxo bestaldekok bestelaz egiten dau *-du-*: «ua, ua, uaaa...» eta luzeagoak... Noiz erosiko dautzazu *-didazu-* beste alako bat?...

Arri ta zur geratu zan aita, Josetxo alako bat zelan agindu ez ekiala *-zekiala-*, amari begitu eutson *-zion-*, umearen auzia zer eiteken, jakitearren. Amak ez euan begiradarik truke, baiña utsagaitik ez eutson *-zion-* iges egin eskuetatik edanontziak. Lurrera jausi balitxakon *-balitzaion-* ere, ez zan apurtuko arean, ontzia duralexkoa zan eta.

## X

## MISTERIO URDIÑAK

Kuki eta Kuki, igaro ziran urte bi. Eskolarako adiñean egon *-zegon-* Babi, eta gurasoek, ez edozein kolejioara gero, monjetara bialdu euen *-zuten-*

—Ola, Babi! —agur egitson *-zegion-* Aizta Julia, neskattoen mais-treak— Gustentan yatzu *-zaizu-* jolastea?

Babi arritu egin zan alako emakume taxua ikustean, paiñelo urdiñetan burua, jantzi ilun luzeetan soiña, «ola, Babi» dei aren ortzargi eta durundiak, amarenak ez besteko, gozoa eukala *zeukala-*, konturatu zan Babi.

Babiren ikas laguntxoak, kuika edo zibuka, zarata andiak egizen jolasaldian, neskak alako olinpiadak sokan edo gomatará. Babi, andik ona osteratxo batzuk egin ondoren, Aizta Juliaren babesera irribartsu etor-ten zan.

—Naiko jolas egin dozu *-dezu-* dagoneko, Babi? —arkupetik begira egokon *-zegokion-* Aizta Julia.

—Nekatu egin naz *-naiz-*... —aitzakitxo polita Babirena, Aizta Juliaren ondoan egotearren.

—Geiago jolastu bear dozu *-dezu-*, gero asko ikasteko —matrailetik bigunki oratzen eutson *-zion-* Aizta Juliak Babiri, itzari komunikabide geiago emotearren; Babik, ezean baican, buruko kiribiloak astintzen euan *-zitian-*.

Arratsaldero, ama billa etorkonean *-zetorkionean-*, Babik penaz, eskutxoa gora jasoka, agur egiten eutson *-zion-* Aizta Juliari, «biar arte» esanaz. Etxera baiño, naiago leuken *-zuken-* berak Aizta Juliarekin kolejioan bertan gaua igarotea. Amaren eta Aizta Juliaren aldeak igarrita



«Babi arritu egin zan alako emakume taxua ikustean, painelo urdinetan burua jantzi illunetan soina, «ola Babi» dei aren ortzargi eta durundiak...».

eukazan *-zeuzkan-*: amak abotsez agintzen, Aizta Juliak begirakunaz, amaren arpegiko kolore biziak estutu egiten euen *-zuten-*, Aizta Juliaren arpegiko zurbiltasun gardenak bakea ekartson *-zekarkion-*. Monjearen jantzi luzeak-arren edo, ama baiño andiagotzat emoten euan *-zuan-*. Babik Aizta Julia, eta aren eskuak baiño bigunagoak Aizta Juliarenak, amak «goazen, ba, umea» eskutik oratzen eutsonean *-zioanean-*.

—Umerik ez daukazu? —galdetu eutson bein Babik Aizta Juliari, arkupean bakarka begirale idoro euanean *-zuanean-*. Aizta Juliak irribarreka erantzun eutson *-zion-*: «zu ez zaitut naiko ume ala» esku biak artu eta pozez estutu eutsozan *-zizkion-*, «ez, ez; ume txikiak...» buruko txirlorak igitu euazan *-zituan-*. Babik, ume txikiak aurtzaindegiko gelan egozela *-zeudela-*, iñotson *-ziotson-* Aizta Juliak, eta berak neskattoen ardura eukala *-zeukala-*. Babi zerura begira gelditu yakon *-zitzaion-*, oztaz amor emoten eutsola *-ziola-*—. A...!

## XI

### GUTUN IREKIA

Egunak ozkirritu zirenean, amak berogailua janzten eutson-*zion*-Babiri, «ala umea, negua dator eta» maniatzen euan -*zuan*- amak. Neguak azukrea alako edur zuri ekarten euala -*zuala*-, entzun euan -*zuan*- bein Babik. Txotoa burutik bera janztea ez euan -*zuan*- nai izaten, Mali eskola lagunak eta beste klaseko monjeak «Txanogorri» deitu ez egioen -*zegoen*-. «Ala, gaur leia egin dau -*du*- eta» agintzen eutson -*zion*- amak. Kanean arnasa laiño zuri antzeko ikusten euan -*zuan*- orduan Babik.

—Ama, zuk erretzen dozu -*dezu*-? Nik bai: ikusi —arnas oska, alako probak egitsozan -*zegizkion*- Babik amari.

—Goazen umea, berandu egin bear yaku -*zaigu*- eta —eskutik tiratzen eutson -*zion*- amak espaloian zear.

Gero eskolako bero ats arek logurea emoten eutson -*zion*-, eskuarteko lana aazteraiño. Aizta Julia, atzetik kuskusean, txotoa jasotzen eutson -*zion*- Babiri, «zer dagizu? Ikusten, Malik zein aurreratu daroan lana» lanera akulatzen euan -*zuan*-. Babi, bigarrenez edo irugarrenez nagiak astinduz, lanari lotzen zan orduan.

—Gaur lan erreza daukazue: ea zeinek egiten dautsen -*dien*- Magoe-ri eskabideko kartarik politena —lei bizian ipini euan -*zuan*- Aizta Juliak neska taldea. Bizkorrenak ingi bila joan ziran, Babiren ostetik, Malik eta txortxor esetsua erabilen -*zerabillen*-, Aizta Juliak bigarrenez eta ozenago inotsen -*ziotsen*-. —Bakoitzak gura dauena -*duena*- eskatuko dau -*du*-. Entzun dozue -*dezute*-? Bakoitzak gura dauena -*duena*-.

Babi, burua eskutxu bien artean, pentsaten egon -*zegon*- eta leiotik at iges egitson -*regon*- begiradak. Zer eskatuko? Nori eskatuko? Urru-neko mendietan, laiñoak baiño izara zuriagoak ikusi euazan -*zitian*-,

«aitite Noel badator antza» oartu euan *-zuan-*. Aitite, bizar zuria, bein ikusi eualakoan *-zualakoan-* egon Babi, sariak ekarten etorri zan arakoan. Gero joan zan eta ez euan *-zuan-* geiago ikusi. Santuetan eta marraskietan bakarrik ekusken *-zekusken-* ordutik aitite Noel, edur bidetik, lau oreintxok gidaturiko leran, lera bete sari ekarrela *zekarrela-*. Zerutik? Menditik? «Umerik ekarten ete dau *-du-* aitite Noelek» galdetu eutson *-zion-* biotzak ostera ere, «eta berari eskatzen ba dautso *-diot-*» erabaki euan *-zuan-*, baiña ez ekian *-zekian-* eskabideko gutuna zelan asi ere.

—Zertan zagoz, Babi, magoeri karteia egin barik —amesetatik irartzartu euan *-zuan-* Aizta Juliak—. Ez ete daukazu ezer eskatzeko?

—Baiña nik gura dodana *-detana-*, magoek ez dauela *-duela-* ekarten esan daust *-dit-* Malik —ixil gordeka jaulki euan *-zuan-* Babik Aizta Juliaren belarrira, aren sorbalda gaiñeko babesean itzuriten euazan *-zitu-* alboko neskattoen irriñoak, lotsarazi egin euen *-zuten-* danen artean, «esan ba, neuri» bere aoaren pareraiño makurtu yakon *-zitzai-* Aizta Julia eta azperen alako iztxoak esan eutsozan *-zizkion-* belarrira.

—A bai! Nebatxo bat! Ori eskabide ederra dozu *-dezu-* benetan! —begiak anditu yakozan *-zitzazkion-* Aizta Juliari eta inguruko neska jakintsueri errespetoa sartzeko uztiatu euan *-zuan-* begikunea; Babigana makurtu zan ostera ere—. Ba dakizu zer egingo dogun *-degun-* orretarako? Ama Birjiñari eskatu. Ez dozu bear kartarik; karteia baiño ariña goa dozu *-dezu-* otoitza. Egiozu otoitz. Ba dakizu «Agur Maria» erresatzten... Ara ba, berak dakarketzu Jesus, ume ederra.

Babi, ritmo bardinduan, «Agur Maria» esaten asi zan, Aizta Juliak ere buruaz laguntzen eutsola *-ziola-*. Anartean Mali azkarttok, lana amaitu, gutuna begien aurrean ipiten eutson *-zion-* Aizta Juliari.

—Zer eskatu dautsozu *-dionu-*?

—Muñeka jakintsua.

—Ondo da; zoaz —bialdu euan *-zuan-* Aizta Juliak, Babiren otoitza «zure sabeleko frutua, Jesus» amaitzen zala.

Babiren angeruak Aita zerukoaren arpegia ekusan *-zekusan-*, baiña Babi berari laiño askok, edur askok, bizar askok lausotzen eutsoen *-zioten-* ikuskizuna.

## XII

### BUSTINEZKO JAIOTZA

Kartoizko loturak askatu zirenean, irudiak txirbil artetik burua jaso euen *-zuten-* eta eguneko argitan bizkortu ziran gizaki eta abere: artzaiñak eta ardi, merkatariak eta merkatalgo, lexibariak eta zapi. An agertu zan kartaoizko etxegintza, kortxokiz eginiko zubigintza eta aundikien dorreak. Aizta Juliak daneri dei egitsen *-zegien-* misterio arrigarria antzeztera. Ardi bakoitzak bere larrea, izaki bakotzak bere eginkizuna, etxe bakotzak bere orubea aurkitu euen *-zuten-* eta errialde baten antza artu euan *-zuan-*: barren-barrena, Nazaret, erdiko tontorrean, Jerusalem arresitua, Heroden jauregi arrea, aurrez-aur, apal Balen, base-rria. Ibarra zearka erdibitzen euan *-zuan-* ibaia, Jordan izango zan, batera eta bestera gurutzatzen ziren bideak, Ejitoria yoan bata, Babiloniara bestea.

Aizta Juliak azkenengo fardela iriki euan *-zuan-*, «emen dagoz falta zirenak» banan-banan jasotzen dauz *-ditu-*: estalpe zaarreko abe eta tei-latu pitzatua, astoa, idia, San Jose, Ama Birjiña eta Jesus Umea. Autsa kentzen dautse *-die-*, Maria josietako doiñua barrutik darabillela:

«Astoa ta idia  
daukaz aldamenian,  
arnasaz berotzeko  
otzituten danian».

Eskolarako ordua jo euanean *-zuanean-*, neska txintxil jostaria entzun zan barru bidean.



—Eeene!!! —ogei ta amar mosu gorri ustaitu ziran errenkadan jaiotzaren aurrean, arri eta belarri. Bata besteen gaintetik begiak luzatzen euezen *-zituzten-*, batak besteri ikuskizuna eragotsiz, Babi toki egokienaren billa ebillan—. Ez eidan *-ezaidan-* bultza, Babi!

Bakea egin zanean, Aizta Juliak bustingintza arengana bizia erakar-teko, Ebangelio zatia irakurri euan *-zuan-*: «Aldi aretan...» Gero «Mariaren historia» deitu euana *-zuana-* azaltzen asi zan.

«...Dana asi zan Nazaret erritxoan —Aizta Juliak giltza emon eta Babik argitxo bat biztuten ikusi euan *-zuan-* an barreneko etxe barruan—. Antxe egon *-zegon-*, Maria izeneko, neska eder bat otoitzean, angerua agertu yakonean *-zitzaionean-*. «Agur Maria», graziaz betea, Jauna da zugaz», esan eutson *-zion-* angeruak, «Seme bat eukiko dozu *-dezu-* eta Jesus izena ipiniko... Jaunaren Espiritua zure gain etorriko da eta agaitik zugandik jaioko danari Jainko Semea deituko dautsoe *-diote-*...»

Babik, bultza-bultzaka, estalpe ondorañoko tokia egin euan *-zuan-*. Estalpeko umetxoari begira egon *-zegon-*, ari ikutzeko gogoaz, Niñik baiño bigunagoa ete eukanentz *-zeukanentz-* soiña. Aizta Juliak itzakini eta begiekin begi guztiak Nazaretera eroan nairik eta Babik iges egiten.

«...Udabarria zan orduan Nazareten eta larrosak ostro apainetan eguzen *-zegozen-*, baiña danetan ederrena, Maria, Jainkoaren ama aukeratua. Orduantxe ezkontzeko, mutil jator bateri itzemonan egon *-zegon-*, Jose zan nobioaren izena...»

Purrustadatxoa entzun zan neska taldean, «nobioa, ijiji» zirikatatu euan *-zuan-* norbaitek Babiren belarrira, Mali Gaiztori errua bota eutsoen *-zioten-* besteak, Aizta Juliaren bekaiñak uztai andia egin euen *-zuan-* eta bakean zan dana.

«...Maria, Isabel leengusina bisitatzen, joan zan eta Isabelek beingoan igarri eutson *-zion-* Jainkoaren Ama izango zala, «bedeinkatua zure sabeleko frutua» goratu euan *-zuan-*, baiña Mariak, apaltasunez, Jainkoari emotson *-emaion-* gorlpena. Ordutik, angeruak esanaz eta Isabelek geituaz, «Agur Maria» otoitza esaten dogu *-degu-*. Danok dakizue? Ea esan...».

Aizta Juliak Babi oroitzen euan *-zuan-*, begitu eta ez euan *-zuan-* idoro leengo tokian. Belen estalpean burua sarturik egon *-zegon-*, zearo oargabetu, «entzun dozu *-dezu-*, Babi» akar egitson *-zegion-* Aizta Juliak eta bustinezko angerutxoan taxura formaldu zan Babi.

«...Egunak joan, egunak etorri, loreak zimeldu ziran, frutuak kaxan gorde, eta aize otsak ostroak orbel biurtu euezan *-zituzten-*. Gero-txoago mendi gorenak edurrez zuritu ziran. Mariaren umea barruan an-

ditzen, anditzen joan zan eta laster jaioteko egon *-zegon-*. Ez zan orduantxe ibillaldi andiak egiteko aro ona, baiña alan agintzen euan *-zuan-* Erromako emperadoreak: Maria eta Josek Belenera joan bearra izan euen *-zuten-*. Josek astotxoan ezarri euan *-zuan-* Maria, oiñez ibilteko aztun egolako, eta tiki-taka, eundasak kilometro egin euezan *-zituzten-* Nazaretetik Beleneraño...»

Begi guztiak estalperantz eldu zirenean, Babiri bultzadatxoak egin eutsoezan *-zizkioten-*, tokirik onenaren jabe zalako, eztabaidat eta txutxu-putxua sortu zan, «onek esan dau *-du-* ea asto ber-bera zan orain estalpean dagoena» besten lepotik urten euan *-zuan-* Malik eta Aizta Juliak bustiñezko irudien eta benetasun biziaren aldeak, soiña eta geriza baizen, azaldu euazan *-zitian-*.

«...Eldu ziran, bada, Belenera Jose eta Maria, aurdun egoela *-zegoela-* eta ostatuko atean jo euen *-zuten-*. «Emen ez dago zuentzako tokirik» erantzun eutsoen *-zioten-* barrutik. «Andia da auxe! Jainkoa gizon jaioteko, eta ostaturik ez munduan» esango euan *-zuan-* San Josek, eta beste lekurik ezean, ango estalpe batera joan ziran gaua igaroten. Gau erdian angeru kanta zoragarria entzun zan zeruan eta amaren altzotik salto egin euan *-zuan-* Umeak. Mariak Umea jaso eta, ortxe dakusuen legez, askatxoan ipini euan *-zuan-*. Orixe bai: dakusuen baiño zapitan bilduago, oztik igaro ez egian *-ezan-*...»

Eskolari azkena emoteko, angeruekin jaiotza ospatzera oldartu euazan *-zitian-* neskattoak Aizta Juliak. Babirentzat ez zan garbi geratu angeruak ala txori andiak izan zirenentz Jesus Umea ekarri euanek *-zutenek-*, umeen jaiotzako ez baitxoak eta ilunak argitu eutsezan *-zizkizen-* neskatto batzuk besteeri, Aizta Juliaren aidera abesten euela *-zutela-*:

«Au dala jaijo-jaijo,  
au dala jaiotzia:  
Semea izan eta,  
ama da dontzeilia».

### XIII

#### KUKITXO LAZTANA

Babik aisa igaro euan *-zuan-* Gabonetako azterketa; biotzak gaiñezka egitson *-zegion-* noten agiria amari emotekoan, «ea oraingoan amak maite banau, Aizta Juliak legez» egarri zan barrutik.


—A! Neskatto azkarra da Babi —aitortu euan *-zuan-* Aizta Juliak amaren eta besteen aurrean, matrailean laztandu euan *-zuan-*, baiña amaren gogoko leen jaunartzerako, oraindiño gordintxo egoela *-zegoela-* esan eutson amari, beste neska lagunek iru urteko katekesia eroaten euela *-zutela-*, misterio ain aundia ospatzeko, «ez ala, Babi» barre egitson *-zegion-* Babiri, eskola emotson *-emaion-* amari—. Babik emoten daki, lagunduz gero...

—Ez ba; neuri bardin daust *-dit-* —zuritu zan ama, baiña barrutik ez eutson *-zion-* amor emoten, are gitxiago Aizta Juliagandik leziñoak artzea. Bere alabarentzako ondo egokezan *-zeudeken-* leziñoak, baiña bereztat? «Etxeko jaia prestatzen neuri erakutsiko» barruan ez eukana *-zukan-* erabillan ezpanetik—. Gure izeko eta lengusuaren asmoa izan da dana. Alkarrekin egitearren, jai ber-bera uztiatzearren, badakizu...

Albertek ez euan *-zuan-* atera matrikularik, baiña bere ebaluatzeko agiriak goratuak izan ziran, «ori dok *-dek-*, seme» amak aitari emon eutsozan *-zizkion-* ikusteko. Mosu zaratazuak emon eutsozan *-zizkian-* amak Alberti.

—Eta nireak, ama? —Babik gurarizko eskuak jaso euazan *-zitian-*, bere papelak ez ziran goraldu eta an egozan *-zeuden-*—. Non daukazuz *-daukazuz-* nire notak, aitaxori erakusteko?

—Gero, umea! —ama eltzetik zopa ateratzen inardun *-zinar dun-*—. Gero ikusiko.



«Onetan Babik salto batez apalara igon eta noten agiria artu eta Kukiri erakutsi eutson -zion-...».

—Ea! Erakutsi! gure Niñi jakintsuaren notak! —Albert adar joka asi yakon -zitzaion- eta Babi «ez! Zuri bapez! Ez dot -det- gura orain» setati jarki yakon -zitzaion-.

—Ago ixilik, ume! —garratz agindu eutson -zion- amak, maia prest egon eta—. Eta jezarri zaiteze maian.

Babik, ogia baiño leenago, alako ale mingotzak iruntzi euazan -zituan-, «ago ixilik, ume» eta amaren alako izketa barria ausnartzen euan -zuan-. Ez zan bada bera «zatoz, laztana» arako Babi, eta neskato anditzen bayoan -bazijoan-, zergaitik bere notak, Albertenak bestean aintakotzat ez ziran artzen? Eta erantzunik ezean, muturtxo luzatzen euan -zuan- Babik, aitatxori ere jara gabe, murritzean gordetzen zala.

—Ez zara neure laguna ala, Babi? —bestetan errez eskuratzen euan -zuan- aitak Babiren txerak eta irriak, oraingoan tenkor begiradarik ere ez, platera trukatzean, aitak amari begitu eta buruari eragitson -eragion- «ikusten dozu -dezu- gure alaba» esan gura baileutso -balio-.

Begitxoak lurretik erabizala -zerabilzkila-, maipen Kuki, berari adiadi-, buztenari eraginka oartu euan -zuan-. Kukik obeto ekizan -zekizkin- laztanak eta zaputzak eroaten, bardin besalkiko lausengutan eta maipeko ondakiñetan. Kukiren begi bustietan laban egin euan -zuan- Babiren biotzak, «Kukitxo» eskupetik platereko zatirik onena jaurti eutson -zizkion-. Etxekoak, bakoitza bereaz arazotu zirenean, Babi eta Kuki bakarrik aurkitu ziren eskaratzean. Alfonbrean entzanik, «Kukitxo, laztana» iñotson -ziotson- Babik Kukiren mizkadura bakoitzeko. Onetan, Babik, salto batez apalara igon eta noten agiria artu eta Kukiri erakutsi eutson -zion-. Kukik, irakurteko astirik gabe, ortzetan artu eta orain arrastan eta gero aidean, gora ta bera, «Kuki, Kuki» Babi atzetik jarraitsola -jarraiala-, berebiziko jaia ospatu euen -zuten-.

#### XIV

#### EDUR LOREA

Zumardiko Noel tantaiaren luzea eta aren adarretako erregaloak! «Zer ete dauke *-daukate-* barruan? Norentzat ete dira» inoan *-zioan-* bere kautan Babik, pinuari bueltak eta bueltak emoten eutsozala *-zizkiola-*. Astronauta jantziriko ume batzuk ikusi euazan *-zitian-* eta beingoan jabetu zan txori andietan zerutik dabiltzen gizonetaz: txoriak, angeruak, astronautak, umeak... Baiña Jesus alako ume bilus bat ez euan begiztatu arratsalde guztian.

Illuntzean, Zumardiko farolak izioki zirenean, etxerako aginduaz oroitu zan Babi, «Gabon ospatu bear dogu» entzun eutson *-zion-* amari esaten. «Eta Noel tantaiko sariak? Noiz asiko dira banatzen» tenk egon *-zegon-* Babi Zumardian eta aize bolara epel batek berokiaren txotoa iduli eutson *-zion-*. Eta orduantxe, jendea etxerantz abiatzen asi zanean, miragarritzko euria ikusi euan *-zuan-* farolaren argitasunean. Txori luma edo aitite Noelen gotoizko bizar printzak irudien *-zirudien-*, «seaska prestatzen ete dabiltz ba, gero umeak bialtzeko» itxaro euan *-zuan-* Babik eta ez eutson *-zion-* ardura jende guztia Zumarditik aldentzen ikustea. Lumatx egalariak aidean atzematen aalegindu zan Babi. Oratu ez oratu, danak iges egitsoen *-zegioen-* atzamar artetik, «zer daukee *-daukate-* neure eskuak» busti egin yakozan *-zitzaizkion-* eskuak Babiri eta, umeak arrapatzeko, txikiegiak eitekezala *-zitezkel-*, konturatu zan. Amari esango eutson *-zion-* ume astronauten ikuskizuna eta seaska lumatxetako aroa Zumardian, berak, amak, bat ekarri egion *-zegion-*.

Mutiko bi yoazen *-zijoazan-* arrapaladan alkarren jararrian, edur bolatxoak aidean jaso eta botaka. Babik, lurrera makurtu, lumatx zuriak biltzen, ikusi euazan *-zitian-*. Luma otzak ziran benetan, bedartza zuri-

tzen euen *-zuten-* ia-ia. Babi makurtu zan zuri unaden arrastoan; batuaa-  
la-batuaala, ilunak edo argiak ostuten eutsozan *-zizkion-* erdiak. Ezin bi-  
ribildu bolatxoa, eta eskuak otzitu egin yakozan *-zitzaizkion-*, «otza da  
neguko lorea» Aizta Juliak esana oroitu euan *-zuan-*. Antxe, maitaleek  
jesarrita egoten ziren, arrizko jarlekuan aurkitu euan *-zuan-*. Babik bola-  
txoa egiteko gai zuri naiko. Eskutik iges egingo ete eutson *-zion-* bildu-  
rrez, arrapaladan abiatu zan etxerantz.

—Ama! —ostikoz joten euan *-zuan-* atea, eskuartean bolatxoak urak  
egiten eutsozala *-zizkiola-*.

—Zer dakastazu *-dakardazu-*, ume? —goitik bera begitson *-begion-*  
amak, bixiguari eragiteko burduntzia eskuetan eukala *-zeukala-*.

—Ots dago, baiña lumatxa bigunak izan dirat —Babik buruaz baies-  
ten euan *-zuan-* itza.

—Ekan ori! —amak bolatxoa artu eta leiotik bera bota euan *-zuan-*.  
Ea eskuok!

—Ai amatxo! Aiii! —amak ur berotan sartu eutsozan *-zizkion-* es-  
kutxoak Babiri eta otz epelen burruka samiña sentidu euan odolean,  
edur lorea baizen urtzen yakozan *-zijoazkion-* miñaren miñez Babiri—  
Ai amatxo! Aiii!

Eskuetako lazgarria beratu yakon *-zitzaion-* apurka apurka, baiña  
biotzekoa..., ene!

## XV

## ÑIÑIREN DANTZAK

Babi loak artu euantan *-zuanean-*, amak oean eratzan eta gelako ar-  
gia itzungi euan *-zuan-*. Orduan Babiren angeru jagoleak aren oe buruan  
egoak zabaldu eta argiak itzungiten asi zan. Gelako argiak bai, baiña  
Babiren irudimenekoak, ezin itzungirik, egoekin laztan egitson *-egion-*.  
Zinea alako izpilu ikusgarriak erabillan barrutik Babik eta apaleko eta  
komodako eta barruko trapu guztiak atera eutsozan *-zizkion-* kanpora.  
«...Edurnezurik eta Printzipe Urdiñak santuen liburutik urten eta bal-  
koian egurasten ibilli dira. Orain jauregiko leiotik izarretara begira da-  
goz. Izarrak, bri-bri, izketa ulergaitza daroe eta Printzipe Urdiñak Edur-  
ne Zuriri belarira itz erditxo bat esan dautsoneko *-dioneko-*, esne jarioka  
asi dira izarrak. Ez! Edurra da, neguko lorea da, loretza. Edurne Zuri,  
pozaren pozez, barrezka dago eta irri bardiña naastau yako *-zaio-* Babiri.

—Non dagoz epotxoak? —eskutik oratzen dau *-du-* Printzipe Urdi-  
ñak Edurne Zuri.

—Aitite Noeli bidera urteten joan dira —zeruan josirik daukan  
barrea eten gabe, erantzuten dautso *-dio-* Edurne Zurik—. Ez dozuz  
*-dituzu-* an ikusten?

Babik ez daki zerutik ala edurtzatik lurra artu dauen *-duen-* aitite  
Noelek eta leran narraz daroen *-daramaten-* lau oreiñak. Epotxoak ore-  
ñei ugeletik eldu eta txaloka aurretik datorkoz *-datorkioz-*, aitite bera,  
lera bete saridun, lera gaiñean, barre zabala, bizar zuritan galdurik. Be-  
giak anditu yakoz *-zaizkio-* aitite Noeli, izar bat zerutik jausten ikusi  
dauenean *-dauanean-*.

—Sua da! Bero gaitzen! —eskuak igurtzen dauz *-ditu-* agureak.

—Urrea da! Atzemon daigun *-dezagun-*, geurea da eta! —jardesten lurpeko bankariak.

Sua, urrea, izarra, edurra... Printzipe Urdiña bera ere leiotik saltatzeko egon da, izarra atzemateko; eta ziur egingo, Edurne Zurik lazta-*nez* samatik oratu ez baleutson *-bazion-*. Noel agurea eta epotxoak izarra jausi den tokira eldu dira. «Eeene!» asperendu daue *-dute-*, zapitan bilduriko ume eder bat ikustean. Eta zer gurago Babik?

—Sua izan balitz... —berotzeko amesa galdu dau *-du-* Noel agureak.

—Urrea izan balitz... —baloreen galpena jasan daue *-dute-* bitxi-tegikoek.

Umea negar baten asi da, jai prestatzaileak alako muziña egin dautsoe-*nean* *-diotenean-*, eskutxoak zapietatik atera eta gora daroaz *-daramazki-*. Babi oetik jagiteko dago, eta bai jagiko eta umearen billa joango, barrutik darabilen izpilu liluragarriak oean lotuko ez baleu *-balu-*.

—Eroan daigun *-dezagun-* jauregira —errukitu da aitite Noel.

—Printzipe Urdiñak semetzat ar dagiala *-dezala-* —erabagi dau *-du-* epotxoen lendakariak.

—Edurnezurik titiaz edoski dagiala *-dezala-* —agin bako barreak, urten dautso *-dio-* epotx jostariari.

Epotxak biren artean, beso banatatik oratu dautsoe *-diote-* umeari, umeak orduan, ostikari, ointxoak askatu dauz *-ditu-*. Umearen karraxiak direla, epotxoak ez dira alkar ulertzen, Printzipe Urdiñaren dorreko kanpaiak «din-dan, boieran» joalean asi direla, ez dira alkar entzuten, lauren artean ezin daue *-dute-* mendetu, ez dira moldatzen umea lerara iragoteko. Aidean daroela *-daramatela-*, beti askatzen dau *-du-* eskutxoren bat, ointxoren bat protesta egiteko, eta bide batez, inguruko zakarttoen bizarrak atzaparka atereaz, edo sudurrak ostikoka apareaz, «dingin-din, dangan-dan» leiatzen dira dorreko kanpaeak, «ondo merezia» barre dagi Babi ameslariak.

—Eroapena bear da ume onekin! —bizarrak gordetzen dauz *-ditu-* epotx galaiak.

Pasientzia, esango dozu *-dezu-*... —sudurra azkatzen epotx biurriak.

Une larri aretatik urten dauenean *-dutenean-* gurditxo narrastaria poliki leratu da, Belengo bide gurutzetatik. Baina oreintxoek edo Babiren barne-izpiluak bideak erratu dauez *-dituzte-*, eta apain irudiak buztin irudi trukatu dira Edurne Zuri Ama Birjiña dala. Printzipe Urdiña, San Jose eta arritzekoa, jauregia, estalpe zaartxoa.

—Urrerik ez dogu *-degu- idoro* —erru begiak ipini dauez *-dituzte-* epotxoak, estalpera eldu direnean.

—Berogarririk ez dogu aurkitu —mindurikatu da aitite Noel. Ume au bakarrik...

—Zatoz, laztana! —Ama Birgiñak, besoak zabalik, artu dau *-du-* ume bilusia, eta zapitan, musuka berotan bildurik, titia damotso *-damai-*, orduan bai ixildu dala umea eta amak mezularieri begiratu dautse *-die-*. Ze urre eta ze su. Berau baiño urre baliotsuagorik! Berau baiño su bizigarriagorik!...

Eta bertatik jaia asi zan Jesus umearen inguru, zeruko angeru eta lurreko artzainen artean, erreka lexibarien eta santuen liburuko epotxen artean eta aitite Noel agurearen eta merketari zuurren artean, jaiotzako irudi guztiak naasten zirela biribilketan. «Aibala! Zer dagi mamala orrek» Babik oeko lokarriak askatu naiez mugitzen zan, Niñi, apaletik iges egini, egundoko biribilketa aretan nabarmentzen zala ikustean. «Putsezko marioneta ori baiño geiago naz *-naiz-*» indar aundi batez, barne-izpiluaren loturak askatu eta korruan zan Babi, gogara dantzan pozik, zoriontsu, begi ertzaz eta atzamar txikiaz «Jesustxo, emen nago» keiñuak egitsozala *-zegizkiola-*.

—«Para belauniko» —ots ezaguna entzun euan *-zuan-* Babik aldamenetik, artzaiñen dantzako ñakak aaztu yakozan *-zitzaizkion-*; dantzan aidea zuzendu eta «arora Jesukristo» erara moldatu zan.

Antxe egon, Aizta Julia, jaiotza aurrean, barreari eutsi eziñik.

XVI

IÑOSENTE, POTENTE!

—Babi! Babi! Babiii! —iru aldiz, eta gero eta luzeago, deitu euan *-zuan-* norbaitek Babireneko kalean. Babi leioratu zan, «banoa» eskua jasoka agur egitson *-zegion-*, eta aitari ezer esan gabe, berokia atera euan *-zuan-* komodatik.

—Erregeeri egin dautsezu *-diezu-* kartatxoa, Babi? —izparringitik burua jaso euan *-zuan-* aitak, Babiren ingiak zuri-zuritan ekusan *-zekusan-* mai gainean.

—Gero egingo, aitatzko —atean zan Babi—. Katekesira joan bear dot *-det-* orain; Mali begira dago...

Aizta Juliaren filmatxoak ikusgarriak ziran, odolari bere kolorea eta Herodesi bere zantzail arpegia egozten eutsenean *-zienean-*. Neskattoak aren deira yoazen *-zijoazten-*.

—Erregeeri ez noa zera eskatzen —aitortu eutson *-zion-* Babik Maliri bidean.

—Iñosente, potente! Txakurren buztena tente! —kale guztia asalatu euan *-zuan-* Maliren oiua, alako esankizunik urteetan ere ez euen *-zuten-* entzun kantaleetako arri zaarrek; Malik ziri-miri sartu euan *-zuan-* Babiren belarrietan eztena.

—Ez dakin oraindino, Babitxo, umeek amaren tripatik urtetan dauela *-dutela-*, txikitxoak direnean?

—Eee?... —zeruak iduli yakozan *-zitzaizkion-* Babiri eta lurrak uts egion *-zegion-* azpitik, itza galdu euan *-zuan-*.

—Bai, iñosente, potente, alako! —belarria berotzen eutson *-zion-* Malik Babiri, konortera etorri eitean *-zeitean-*. Basilik esan diaustan *-zidan-*. Ez don *-den-* ikusi alako andre lodirik?...

Kolejioko arrimailletan tupust egin euan *-zuan-* Babik itxumustuan. Ez euan *-zuan-* minik artu, ez zan Aizta Juliaren agurraz konturatu, katekesia asita egon eta Babi berean gogobildurik. «...Orduan Herodes asarre bitsetan jarri zan eta Belen inguruko urte bitik berako umeak ilteko agindu euan *-zuan-*...» Jaunak esana filmatxoetan egiztatzan zan eta, Aizta Julia ixiltzen zanean, angeruen batek zintatik kantu sarkorrez eragoion:

«Aur ttipien ama onak  
guziz ziren arritu,  
gudariak zirenean  
Belenerat edatu».

Belengo kaleetako zalaparta, amen arrapaladak, karraxiak, gudarien eraso, ezpatak, umetxoen alauriak, amen magaletan alperriko gorde naiak, odola... Filmatxoak, orain matrail arrosatu, gero, odol ustu etozen *-zetozten-*. Babi, bildurrez, burua kolkoan uzkurto, ilunetako argieri begira, umeen sarraskia ezin ulerturik, «Jesus, Jesus» sufritzen egon *-zegon-*. Magoen eta Heroden arteko burruka, angeruen eta astronauten arteko burruka, txori on eta txori gaiztoen arteko burruka oartzten euan *-zuan-*...

Babi otzak arturik eldu zan etxera.

—Txotoa zertarako don *-den-*, ba? —sorbaldak jaso eutsozan *-zizkion-* amak.

—Ba dakizu, Babitxu, zer eskatu bear dautsegun *-diegun-* erregeeri? —aitak lauzengaz besoetan artu euan *-zuan-*. Teleikuskin bat!

—Eta Teleikuskinik ekarten ba dakie erregeek —Babik ez eukan *-zeukan-* guzurra salatzeko naiko indar; berean gogortu yakon *-zitzaion-* biozttoa.

—Bai, laztana! Ekarriko ez daue *-dute-*, ba? —Babi berotzeko, belan dantzari asi zan aita eta auzitxoak egizan *-zegizkian-* inguruan Kukik bekaitzez—. Mundu barria ikusiko dozu *-dezu-*... Au baiño ohea!...

—Bai, laztana! —ezpain igurtziz etorkon *-zetorkion-* Babiri, «tranpa, tranpa» salatzen eutson *-zion-* Babiren biotzak, amaren mosu bakoitzeke, alperrik goraltzen amak—. Gauza praktikoak eskatzen ikasi donanean *-denanean-*, sikeran!...

## XVII

### TRAKATAN TRAKATAN

Urte aretan Herodes erregeak kabalgata eder bat asmatu euan *-zuan-* magoeri ongiatorria egiteko. Magoeri errege tituloak banatzen asi zan, igarkizunak aaztu eta erriari promesak egiten asi eitezen *-zitezten-*, zeruko seiñaleak ez ikus eta lurrekoak berera maniatu egiezan *-zezaten-*.


—Izardun txotoon ordez, urrez koroatuko zaituet neuk —agindu eutsen *-zien-*. Heroden eritsiz, zer esanik ez, jaia Jerusalemene ospatu bear ko zan, eta ez Belenen, bada tituloak eta bankuak kale andietan egozen *-zegozen-*. Errege izango zaree *-zerate-*.

Eta magoek, Herodesi jara gabe, angeruaren esana egiten baeuen *-bazuten-*, bardin: Herodek berea asmatuko euan *-zuan-*. Merketariiek bere alde eukazan *-zeuzkan-* eta sarien super-merkatua antolatu eutsoen *-zioten-* kabalgatarako Herodes Andiaren Klean. Iru zaldun, errege mamu, aukeratu euezan *-zituan-* «Trakatan-trakatan» martxarako. Erogen mesulariak, turut otsean ongiatorria emotsen *-zemaian-*, arrandiz sarien banaketara umeeri deituz. Ariñen etozenentzat *-zetortenentzat-*, saririk andienak. «Umien txapelketa» deitzeko egon ziran Herodes eta merketariiek. Ba ekian *-zekian-* maltzurak, alakoak, umeek non, an zala Jesus...

«Karamelok! Turroiak! Txokolatea!» —ots egian *-zegian-* Goienkaletik Meltxor baltzeranaren mezulariak eta a izan zan neska-mutiko gozozaleen atxixinka klean gora. Babi ez zan ikusten lenengoetarikoen artean; ez euan *-zuan-* irabaziko txapelketan.

«Muñekatxoak! Idunekoak! Edergailuak!» —Barrenkaletik beste deiadarra entzun zan, Gazpar ulegorriaren eta aren mezulariaren salgaia aizatzen, eta an zan neskatoen zalaparta klean bera. Babi ez zan, eperdia galdu bearrez joan zirenen, aretarikoa.





«Babi ez zan nabarmentzen, ez agertzen. Non ete egon -zegon- Babi!».

«Pistolak! Tankeak! Trentxoak!» —oiu egian -zegian- Artekaleko —gero Herodes Andiaren Kale deituko— Baltasar kiribillo illunaren morroiak eta an zan kale ao bietatik, kale kantaleetatik, umeen zein ari-ñagoka. Herodek irripartsu txaloak jotzen eutsezan -zizkien- azkarrenei, jauregiko balkoetik, Babirentzat ez ziran txalook. Babi ez zan nabarmentzen, ez zan agertzen. Non ete egon -zegon- Babi?

Gero publizidadeak —izparringiek— esan euen -zuten- legez, Herodek izarren bidea aldatu euan -zuan-, kabalgatako ospakizunak argi asko adierazten euan -zuan- bezela. Beraz, izarren bideotan argi ikusten zala munduaren etorkizuna, akziñoen gorak lekuko. Orriak eta orriak gauza bera aipatzen euen -zuten-. Beko kaleko umeentzat saririk eldu ez bairan, ori ez zela Erode Andiaren erruz, baiña danera elduko zela, sendiaren planifikaziñoaz, bai eta Beko-kora ere, erriek autezkundez abortua ta beste eskubideak aukeratzen euazeneko -zituzteneko-... Amairugarren orrialdean «Belen» izki txikietan ikusten zan: «Belen inguruan kontrol andiak bartik gizon bat oratu ei euen -zuten-. Orri bereko egaltxoan ume eder baten argazkia: «Neskato au galdu da, beroki gorria, txotoduna, eroan -zeraman-. Babi izenez erantzuten dau -du-. Ikusten badozue -badezute-, dei gurera, mesedez...».

## XVIII

### UMEA GALDU ETA ELEIZAN AURKITUA

Korupeko jaiotzaren ondoan, bertan gozo, loak artu euan *-zuan-* us-tegabean Babi, eta Aladinoren alfonbra majikoan Zumarditik zear eta mear erabillan loak berak. Leenengo ixil-mixil, aizearen arnasa entzun einkeela *-zezakela-*, gero ozkirriz eta dardaraz Zumardiko orbelen bristada, oeko estalkiak iges egitsoela *-zegizkiotela-*. Txori batek ipuinak kon-tatzen eutsozan *-zizkion-* Noelen tantoï aunditik eta teleikuskineko argi-mutilak diz-diz, bri-bri egitson *-zegion-* begien aurka. Geroago gau erdi-ko umeen karraxiak entzun euazan *-zitian-* Babik, Josetxo txikiagoa izan zanean bezela, «Jesustxo ete da» galdetzen euan *-zuan-* kezka, baiña kontulariak ez eutson *-zian-* emoten zeaztasunik. Babik ba ekian *-zekian-* Heroden zakurrak Jesusen billa ebiltzala. Umearen gau erdiko karraxiak isildu zirenean, Babiren kezka larriagotu egin zan, «arrapatu ete daue *-dute-?* Zer egin ete dautsoe» galdetzen, baiña ez eukan *-zeukan-* ziu-rtasunik, kezka bakarrik. Orduan gaueko kamara-mutilak auzoko atarirantz bultzatu euan *-zuan-* Babiren ikusizuna:

«Heroden zakurrak dira, batzuk lau oinka, besteak gizonen tankeran ezpatak eskuetan edo aiztoak ortzetan derabizela, edo txakur eran ma-kurtu, bazterrak usnaka, bestetzuek ate zirrikietatik kuskusean. Ka-lean Babireneko parera eldu direnean, zakurrek gora begitu daue *-dute-*, Babiren oetxoa dagon aldera. Danak batean, ateari bultz eginik, giltza klink eten da. Beko ataritik gora, pisurik-pisu, datoz usnaka eta ikuska. «Emen ez dago urte bitik berako umerik» nasaitzen dau *-du-* kontzien-tzia Babik, baiña eurenko atean da orain giltz otsa, «Aitatxo, esan orre-ri gurean ez dagoela umerik» laguntza eskatzen dau *-du-*, baiña aitak ez dantzu, sukaldean teleikuskinak darabillen zaratagaitik. Babiren gelako

atean bultzaka dagoz, eta atea... emon egiten dau *-du-* goitik eta betik, kisketa eten bearrez. Larrienenan, Babi oetik jagi eta eusgarriak ipinten dautsoz *-dizkio-* ateari: gau-maitxoa, Niñiren gurdia, zapata pare bi... Zer geiago? Ezin dau *-du-* mogidu ez komoda, ez oea. Atea bera dator eta oeko estalkietan izkutatzeko astia doi-doi emon dautso *-dio-* Babiri. Gudari itxusi bat, bibote andi eta ortz artean ezpata baizen, aizto luzea daroala, oldarrez sartu eta ankaz gora jausten, Niñiren gurdian oztopatuz. Amorruez jagi eta, gurdi barruan Niñi oratzen dau *-du-* uleetatik, «uaaa...» kupigarria asperendu dau *-du-* Niñik aidean dagoela, ezpata sartu ez sartu dago gudaria, «ijiji» ixila urten dautso *-dio-* Babiri estalkipetik, «ez daki Niñi bat dala, eta odolik ez daukala» barreari eusten. Gudari itxusia oera doa orduan. Babik, estalkietatik tiratzen dautsola *-diola-*, igarririk, oe aurradan zutundu ta arpegi damotso *-damaio-* gudariari: «ni ez naz *-naiz-* ume bat, eskolara dabillen neskato bat naz *-naiz-* ni, eta laster jaunartzea egiteko nago» Babik miñña atara dautso *-dio-* gudari itxusiari, eta gudaria, mozkorra baizen, atzerantz jausi da barre adurretan. Babik dana dakus ankaz gora: atea, Niñi, gudaria, estaldiak... Jesusen irudia bakarrik irauan *-zirauan-* taxuz apal gainean, «ai Jesustxo, ez zaizala ikus Herodes orrek» otoi dagi agin artean Babik, eta gudariak entzun. Arrapalada bat izan da dana: itxusia, alakoa, salto batean jagi, Aizta Juliak Babiri emoneko estampatxoa apaletik arrapatu eta «ajaja» otsean atetik, zurubitik bera iges egin dau *-du-*...

—Nondik ibili zara, bada, umea, gau guztian geuri ezer esan barik? —gurasoek laztanez eraso eutsoen *-zioten-* Babiri, Albertek, oeperik oepe bere billa ibilli zala, esan euan *-zuan-*, Aitak sariz bete euan *-zuan-* Babiren logela: gozokiak, edergailuak, muñekak, tebeoak, ipuin marraskituak etabar.

Auzoko lagunek zorion opa etorri ziran Babinera, umea onez agertu zala eta, «asko izaten dira eleizan ez beste iñon aurkitzen ez diren ume galduak» esan eutson *-zion-* sakristauaren emazteak Babiren amari. Amak kabalगतako zurrunbiloan, kale nausiko nasteen, izan zala iragarri eutsen *-zien-* auzako amandreeri.

## XIX

### URRITZ GINGILAK

Ama Babiren kiribiloak dindilka eta banan-banan biribiltzen inardun *-zinardun-*, Babik izparringian agertu zaneke argazkiaren antzera geiago euki egian *-zezan-*, «ona gure alaba ederra» amak Babiren ule dindilikariak arrotzen euazan, eta alako alaben amek urririk egin bear leukeezela *-zeukela-* izparringietan anunzioak, uste euan *-zuan-*.

—Ama, itziko daustazu *-didazu-* Kuki egurasten? —burua mogidu euan *-zuan-* Babik eta orrazia naspildu yakon *-zitzaion-* amari.

—Geldi ago —uletik tirakada andiangoa egitson *-zegion-* amak Babiri—. Ez oraindiño, umea. Kotxe batek arrapetako ere...

Neguaeren biotza zan, alan ere egoaizeak aurrerakadak egizan *-zegizkian-* Zumardian. Ikusiko zenduezan *-zenueten-* urritzaren belarritakoak. Otzak uzkurtu eta troxatu euazan *-zitian-* arako aurrak zibuka jolasten ari dira neguaeren erdian; «nere bizarrak, edur edo izotz, zuen seaska baizen» promesa egin eutsen *-zien-* aitona neguak. Urritz gingilok ez dozuez *-dituzue-* errez ikusiko kultura barriko esparruetan. Zumardiak parke egiten dauen *-duen-* bazter uneko ori, mutikoen bateri eroria da noski. Ez dakit zelan parkatu dautson *-dion-* gure kulturaren aizkorak.

«Urritz gingil, urritza,  
zu bai jator,  
lore, frutu edo itza,  
bai iraunkor.  
Eskola umeak beti  
zeugaz dagoz.

Aren aitzatxoan jaiak ikusi gura badozuez *-badituzue-*, mendiko arkaitzetara joan zaitezkeze *-zaitezketete-*: an aize eta an zapa gorritzken kullunka zoragarria.

Urritz gingil, urrea,  
zu bai aske;  
gure umeen uleak  
zenbat naste.  
Urre aro gingila,  
etor zaite...

Zumardiko urritz bakartia, bere anaitxoekaz orotiuiko zan, Babi arre-baren biribilloak aize beretan jolasten ikustean. Babi bera ez zan kontu-ratu urritz loretuaz, Babik ez ekian *-zekian-* potxiloka edo kaistorrean eta areago, lore gingil aretatik ale gustagarri eta jolasgarriak mortxaka etozela *-zetoztela-*.

Babik oraingoan aurtxoan amak oartzen dauz *-ditu-*, leen amen aurtxoak bestean, eta ama-semeen arremonak oartuz-oartuz, aizeak naasten dautsoz *-dizkio-* amak orrasturiko kiribilloak, «txoriek zera! Ez eta txoririk andienak ere! Bakotxak berea; eta txoriek txorikumeak eta oilloek txitak... dendan ikusi nenduzan *-nituen-* lakoxeak. Alaere, amak txoria zala, esan eustan *-zidan-*... Esango dautso *-diot-* amari, txoriek ea zelan eginkeen *-zegikeen-* alako enkargurik» begirada gurutzatu euan *-zuan-* Babik aidean. Galde ez galde, ezbaian, dinlindan egon *-zegon-*. Babi eta egoaizeak gero eta geiago nastatzen eutsozan *-ziozkion-* buruko kiribilloak, urritz gingillak baizen...

## XX

### KRISTALEZKO ERROSARIOA

Babik sarritan ikusi euan *-zuan-* ama izpilian begira, ulea orrasten, ezpainak pintatzen edo matraila azal apaiñez janzten. Amak egiana *-zegiana-* egitea gogoko izaten yakon *-zitzaion-* Babiri. Bein txikiagoa zala, gorrimiñez atzaskol puntak gorritu arte ez eutsen *-zien-* bakerik emon aitaxori eta amatxori. Soin beteko leiarrezko izpilua ere ba egon *-zegon-* Babirenean. Amak soiñekoak probatzen euazan *-zitian-* aren aurrean, Babik siñuak, ñakak eta gonak jasotzen eutsozan *-zizkion-* izpiluari, jolas laguna baizen.

Leen jaunartzeko jantziak buruauste andia ekartson *-zekarkion-* Babiren amari. Aizta Juliak naiago euan *-zuan-* neska guztiak bardintsu monja zuritan janztea, baiña amak tulezko andregai jantzia erosi eutson *-zion-* Babiri. Aizta Julia barrutik janzten euazan *-zitian-*, «sagarrak azala ederra, mamina obea» eskolatzen euazan *-zitian-* katekesiko umeak izkirimiriz eta ipuinez: «sagarra jateko, azala kentzen dautsozue *-dioxute-*, mamiña zamurrago jastatzearren. Eta ori sagarrak azala ederra baiño ez daukala. Orain bada, zer esango zendukee *-zenukete-*, neskatook —zer esango senduke *-zenuke-* Babi— mamiña jaurti eta, jateko, azalaz geratzen diranetaz?... Bada, azalakin geratzen dira askotxo: eta azala da eta azaleako, esate baterako, jaunartzeko jantzia eta gainerako edergailuak. Gorputzeko edertasuna bera ere azalekoa da Jesusentzat. Jesusek biotzera begiratzen dau *-du-*: barruko edertasunera, ez arpegira, ez soiñeko zuri ederrera, biotzeko garbitasunera baiño...».

Beste ipuin batez, barru izpilua aipatu eutsen *-zien-* Aizta Juliak, pekatuen aitortza eta kontzientziaren salapenak zirela eta. Babik pekatu bat oroitu euan *-zuan-* orduantxe «olakorik ez don *-den-* esaten! Kon-

fesau egin bearko don *-den-* amak agirika egin eutson *-zion-* arakoa. Niñik zapiak nondik zikin ez eukala *-zeukala-*, amari esan eutsolako *-ziolako-*, izan zan dana.

—Magal ausitxoago, umea; gonak onela bilin-balan egianan *-zegianan-* —amak soin beteko izpilu aurrean eskongai jantziak pruebak eragitzozan *-zeragizkion-* Babiri—. Entzun don *-den-*?

—Ene! Ori da magal ausitxo? —jolasa ta bat zan Babirentzat edo ijitanien dautza—. Ez ba! Sor Juliak esan deusku *-digu-* formal ibilteko eta...

—Gauza bat don *-den-* eleizan eta beste bat kalean, iñosente ori —amak ia astin bat emoteko planta egitson *-zegion-* eta Babik ezpain muturtu buruari eragitsion *-zeragion-* ezbaitsu, amaren begiak gaiñetik eukazala *-zeuzkala-*—. Entzun don *-den-*? Eta ez ikutu buruzapi oneri, zikindu egiten da eta...

—Barrua zikindu ezik, ez dautso *-dio-* ardura, ama...

—Ze barru eta ze kakanarru! —amak jira osoa emon eutson *-zion-* Babiri, arpegi emoteko.

—Sor Juliak esan dausku *-digu-*! —Begotxoak itxi euazan *-zitian-* Babik, «eta ez naz *-naiz-* iñosente bat» iñotsion *-ziotsion-* barneak.

—Sor Juliak! Sor Juliak! —Amak Babiren abotsa bardintzen euan *-zuan-*, esku liburua erabilten erakusten eutson *-zion-*—. Eta onek dozan *-ditun-* monja orrek erregalauko errosarioak?

—Agurmariak erresatzeko. Agurmariak zertarako? Jesus erakarteko. Jesus zertarako? Mundua salbetako! —andana bota eutson *-zion-* Babik katekesian ikasia.

—Ez deunat *-diñat-* ori galdetu —arbinduxe jarki yakon *-zitzaion-* ama Babiri—. Zera baiño: kristalezkoak direlako... Nakarezkoak-edo izan baliran, sikan...

—Negarrezkoak esan dozu *-dezu-*?

## XXI

### OGI-ARDAO JAIEZ

Alaikiro jo euen *-zuten-* kanpaiek eta amak azken ikutuak egitsozan *-zegizkion-* Babiren soñekoari.

—Goazen, ba, ama! —oztikadatxoak emoten euazan *-zitian-* Babik oltzan, «goazen» esaten euan *-zuan-* bakoitzean, guantedun atzamarrakaz esku liburua eta errosarioa oratzen euazan *-zitian-*—.Ordua da!

Ardoa eta Ogi jaiaren leiaz, jantzi zurien egada zan eliza bidean. Babi oztaz ezagukun *-zezagukun-*, *andregai* jantzi zuriaren ixurretan galdu, kiribiloak eta arpegia doi-doi erakusten euazela *-zituela-*, baiña aoa eta begiak poz jarioka, «Babi» agur egitson *-zegion-* leengusiñak, «Babi laztana» izekoak, matrailak guztien mosuetara lagatzen euazan *-zitian-*, azkena norena zen kontuan artu barik, edo azken mosuaren billa. Amak ondolik zaintzen euan *-zuan-* Babiren andreagai jantzia, aita gogo aiendu edo kilkiltxo emoten euan *-zuan-*, umeen jaiak aspaldi aaztu baileuz *-bailitu-*, edo urteak zirela, jai aretako ardaorik jastatu ez baleu *-balu-*, eleizako ate zaarrak, korupeko illuntzea, aldareko argiak. Leen jaunartzeko umeak, errenkada luzez, argitara joazen eta prozeziño aretan atzean gelditu zan aita, aurreko santuen bildurrez. Kantu barria abesten euen *-zuten-* umeak:

«Gaurko gure ogia,  
Aita, non dozu?  
Zure umeak gara,  
maai inguru...»



«...kristalezko errosarioa antxe koskan kateaturik, krak egin eutson -zion-esku-eskuan...».

Kantuak, itzaldiak, otoitzak... «Jesus, iñork ez gaizala Zugandik al-  
dendu...» Malik bere eskabidea mikrofonotik edatu euanean -zuanean-,  
Babiren ama Aizta Juliaganako amorruz egon -zegon-, «gure Babik ere  
ba egiken -zegiken- beste ainbeste» Babi berea otoitztoa egiteko auke-  
ratu ez eualako -zualako-. Enri eta Txoriñe fraile-monja jantzi berezietan,  
eskuetan ardo-ogi opariekin etozen -zetozten- eleiz erditik aldare mai-  
runtz. Bai orixe, Babik ere egikela -zegikela- beste ainbeste, andregai  
jantzi aren larregitik eta eskuetako ainbeste geigarritik aske egon balitz.

«Au da nere gorputza, au da nere odola...» esan euan -zuan- abadeak?  
Jesusek? «Zerua iduliko da orduan» esan eutsen -zien- Aizta Juliak.  
Soiñu zolia entzun zan elizaren barrenean eta mutiko batek ongietorria  
dantzatu eutson -zion- Jesusi aldare aurrean. Nondik ezagutzen euan  
-zuan- Babik mutiko bizkor a? Bera ete zan parkean loreak ostuten la-  
gundu eutson -zion- arako mutila? «Jesus» opiltxoaa abadearen esku pun-  
tetan ikusi euan -zuan- Babik, eta aurrenekoak aldareruntz joazen -zijo-  
ten-. «Ikusten nauzu, aitatxo? Oraintxe da; ba noa» aurreko mailletan  
nabarmentzen zan Babi eta aitak korupetik jantziarren ezagutzen -zeza-  
gutzen-. Aoa iriki, miñña luzatu, eta «Zu zara, Jesus» buruz galdetzen  
eutson -zion- Babik, kolkotik beera kilikilia nabari euan -zuan-. Zerue-  
tatik erabillan -zerabillan- Babik gogoa oargabetu; bere aulkira eldu za-  
nean, kristalezko errosarioa antxe koskan kateaturik, krak egin eutson  
-zion- esku-eskuen eta liburutxoaren artean; aren oskatxo bat punbala  
lurrera jausi zan. «Ai, Jesustxo! Auxe deskuidoaa» Babi —samiñez, kris-  
talezko kuskooaren billa makurtu zan lurrera, begietatik eriozan -zeriz-  
kion- beste samiñezkoen ardura barik. Zotiñaren zotiñaz, Babik jantzia-  
ren kolkoa ixurtu eta buruko tul zuria eragiten euan -zuan- eta ama kon-  
turatu zan.

—Ez adin larritu —ama ondora etorri yakon -zitzaion- konsolatze-  
ra—. Amak erosiko deun -din- ori baiño errosario ederrago bat.

Babik ez euan -zuan- begirik kentzen apurtu une aretatik, «ai nere  
errosarioa» min emotson -emaion- etendura arek, eta samiñen ibitzera-  
ko, miragarritzko konponketa bat eskatzen euan -zuan-.

—Aitaxo, non egon zara, denpora guztian? Ez zaitut ikusi —Babi  
poztu zan—, aitak, berak konponduko eutsola -ziola- errosarioa, esan  
eutsonean -zioanean-. Eguzkia zan plazan, eta fotografoek Babiren alde  
guztietatik ñaka ebizen -zebiltzen-, xomorro andiak loretan bezela.

## XXII

### ANDREGAIA

Gauaren aizta baltzeran, egunsentia nagiek euken *-zeukaten-* oe epelean eta «otoi, eguzki» argiari erreguka, ameska. Kanpo otz, biotz bero egon-*zegon-* egunsentia, galai orrek gertutik jarraitsola *-jarraiola-*. Noiz-bait suzko geziak, bri-bri, arpegi-arpegian emon eutsonean *-zioanean-*, milla koloretan eztanda yakon *-zitzaion-* urrezko bola begi barrenean.

«Zelan oraildu den, ama,  
arako baltzerana!...»

Izadi guztia iratzartu zan aren edertasuna ospatzeko, baiña ordurako egunsentia joana zan; eguna zan garbiro: eguna eta eguzkia...

Orduan konturatu zan Babi, «ze uste dok *-dek-*, alaxoxe jantzia neretzat, biok ezkontzen gareneko», Babi berari begira, baiña Alberteri Marilinek esan eutsonekoa *-zionekoa-*. Babi alde batera itzi eta Marilyn eta Albert, alkarri ikuika eta barrezka jarrai euen *-zuten-* luzaro, banazeko festan. Babik susmo txarra artu euan *-zuan-*, Albertek Marilini ixilekoen bat belarrira esan eutsonean *-zioanean-*, «kokolo orrek nire Enrigazkoak kontau ete dautsoz *-dizkio-* gero» txikitako beste pekatua oroitzean, «baiña ni ez naz *-naiz-* ezkonduko Enrigaz» erabakitzen euan *-zuan-* Babik pekatuak ezezten.

Babi eta Enri, neska-mutikoak, monjetara ebizen *-zebiltzen-* orduan E. G. B. aurreko eskolan. Kanean amaren eskutik etorrela *-zeturrela-*, Babik keiñuak egitsozan *-zegizkion-* Enriri, bere liburuen fardeltxoa, arena baiño aztunagoa zala, adierazten eta Enrik gora-goraka jasotzen eutson *-zion-* orduan bere liburuen zorrottoa. Azkari orduan ere alkar

ikusten ziran kalean. Babik bere ogiarteko guriñetik jastatzen emotson *-emaion-* Enriri eta Enrik txokolate zatiaz trukutzen eutson *-zion-* Babiri. Lagun andiak egin ziran: dagoneko ba ekien *-zekiten-* alkarren bizitokiko ataria non egoen *-zegoen-*. Babik tiratzen eutson *-zion-* Enriri eureneko atarira. Laugarren pisuraino maillak igon eta «ni ementxe bi naz *-naiz-*» inotson *-ziotson-* Babik Enriri eta oraindiño goragoko zurbia erakusten eutson *-zion-*.

—Jaso gaizuz *-gaitzazu-* zeruraino —eskatu eutson *-zion-* bein Babik atezaiñari, asensoreko ateari bultzatzen eutsola *-ziola-*.

Atezaiñak laugarren bizitzara bialdu euazan *-zitian-* biak, Babi eta Enri. Babik atean tirriña jo euan *-zuan-*, amak bidea emon eutsen *-zien-* eta zuzenetik Babik Niñiren gelara eroan euan *-zuan-* Enri, «Niñi erakutsi bear dautsot *-diot-* Enriri, ama» beste azalpenik gabe. Babik Niñiri mosua emoteko, eskatzen eutson *-zion-* Enriri. Gitxi iraun euan *-zuan-* maite joku arek. Babik ondo gogoratzen euan *-zuan-*. Beingoan etorri zan Albert kolejiotik eta, gainbegirada bat bota orduko, atzamarras salatzen asi zan:

—Ikusten dozu *-dezu-*, ama, gure Babik zelako nobioa ekarri dauskun *-digan-* etxera? —ama ta biak barreka asi ziran ateraldiaz—. Onek leenjaunartzea baiño ariñago egin nai dau *-du-* eskontza...

Barreak andiagoak ziran eta gauza itxusiren bat susmatu euan *-zuan-* Babik «nobio jolasetan», eta Enriri barrero etxera ez deitzea, erabagi euan *-zuan-*.

Andik laster, Enri mutilen kolejiora aldatu zan, eta alkarren arremonak urritzen joan ziran. Jostailuen dendatik igarotzean, Babik Enri antzeko muñeka burusoil bat begistatzen euan *-zuan-*, «Enri, bazatuz» atzamar txikiaz dei egiten eutson *-zion-*, eta dendako Enrik: «zuenean zer egiteko» eta Babik: «muñekatarra jolasteko». Galdeeratzun onekin, Babi eguneroko kolejiora bidea arintzen euan *-zuan-*. Ondo ikasia eukan *-zeukan-* beintzat, Marilinen-edo azera bearko euala *-zuala-*, mutilekin asteko.

## XXIII

## KUKILANDIA

Aitatxoak Babiri kontariko Otso Gesekil eta Zazpi Bildotxen ipuiña kolorge gelditu ziran, ipuin ikusgarrien zootegi bizi irudikoen ondoan. Antxe ekusan *-zekusan-* basotik kalera: Mikey, Donald, Otsoko Txiki, eta kideak, Teleikuskinen andanetan.

—I, Mali —besotik tiratu eutson *-zion-* Babik Maliri, zinetik urtean—. Otso Gosekil ori zergaitik ibil bear dion *-din-* beti Txanogorriren atzetik, bera iruntsi bearrez?

—Ba! Neu ere jausiko nintzakenan aren amarruetan, beti onik urteketotan —sorbaldak jaso eutsozan *-zizkion-* Malik—. Ez al dakin arako:

«Txanogorri, Txangorri!  
Eldu eion, eldu  
Otso orri?»

—Orixe bai! —apostua egin euan *-zuan-* Babik—. Egundoko zentzaldia emongo neunskeio *-nioke-* Otso zantar orri; alako adur jarioetan barrero ez litzaken ibilko...

Babik beste ezbai batzuk ekarzan *-zekarzikin-* Dysneilandia-tik. Ba ekian *-zekian-* Malik ezin lekeiozela *-lezaizkiola-* danak argitu, bada bere barruko kezak ziran eta ez Malirenak. «Otsoko Txiki polit guztiak Otso Gosekil gogaitgarri biurtzen ete ziran»? Auxe zan ezbaietariko bata, bestea onen antzeko: «Eta Txanogorri guztiak Marilin izatera eltzen ete ziran»? Galdera oneik beste kate luzea ekarren *-zekarten-*, baiña katearen buruan, kako bi egozen: Babik ezin aaztu Albertganako ixil amorrua eta Berari ere «Txanogorri» deitu eutsola *-ziola-* txikitari monjen Ama Nagusiak.



—Babi! Zer daukazu mai gaiñean? —bekain makala ipini eutson -zion- orduan Aizta Karidad-ek klase erdian.

—Malik itzi daust -dit-... —aiturtu euan -zuan- Babik, «Dysneilandia» ipuin liburu apaiña ez arian maipean gordetzen euala -zuala-.

Gogoan eukan -zeukan- Babik, orduan Malik erakutzi eutson -zion- muturra eta gerotxoago «i Babian bizi az -aiz-» esan eutsonekoa -zione-koa-. Olantxe asi zan Dysneilandia lurrera jausten, eta areago Kukiri «Pluto» ezizen barriaz deitzen asi zirenean... Ai ena!

Kukitxo ez zan agertu arakoan etxean. «Non dago Pluto gurea» galdetu euan -zuan- Babik Teleikuskiñaren aurrean, Kuki, burua atzeko anken gaiñean etzana, ez ikustean.

—Pluto izen barria don -den-... —platerak garbitzen jarraitu euan -zuan- amak oiezko seriotasunaz—. Izen barriak txakur barria eskatzen dion -din-...

—Zer egin dautsozue -dioxute- Kukitxori? —saldukeri gaistoren bat susmatzen asi zan Babi «zer egin dautsozue -dioxute-» gero ta larriago egin zan salaketa, Babiren negarretara ez zan agertu Kukirik, aitak aalegiñak egizan -zegizkian- Kuki, Kukilandiarra joan zala, adierazten—. Nork egin dautso -dio- Kukitxori?

Aitak belaun gaiñean artu euan Babi, txikiagotan lez, eta trikitixa koplak jo eutsozan -zizkion- «Nork egin dautso -dio- Kukitxori» aidean:

«Babiren txakur,  
zuri polit,  
Kuki, nork uste?  
Beribil-bil...  
olgetan bailitz,  
gurpilak il...  
Nork egin dautso  
Kukitxori?

## XXIV

### ANGERU BALTZERANAREN OTOITZA

«...Azal urdiñen erria beltzaduraz naasten zala ikusirik, emagiñek agindeui uts egiten eutsela -ziela-, konturatu zan Babilandiako erregea. «Emakumeongan ezin daiteke fida. Jaiobarrienganako errukiak menderatu egiten dauz -ditu-, eta erriaren aurpegia illuntzen izten daue -dute-...» esan euan -zuan- eta emagiñen erruki auleria, zientzia bizkorrez sendatzeko, «Jatortasunaren Eskola» jaso euan -zuan-, eta Eskola onetako maisuen argiak «Jatortasun Iztegia», ekarri euan -zuan- emoitizat.

«Zuek, Babilandiako azal urdiña zer den eta zelan gorde bear den, jakin gura dozuena -dezutenok-, emen daukazue gure erriaren arpegia orbanetik gorde eta gure arrazaren odola kutsaduratik garbitzeko biderik zuzenena...».

Amak, liburutegian erosi euan -zuan- «Jatortasun Iztegia» aren azal gaiñekoa irakurri euan -zuan- eta alako eskeintzak ze mamin ekar leiken -lezaken-, orriak itzuliz-itzuliz, gain begirada bat emoten asi zan, «ankoker, anakazabal, arnas-min, aurpegi-auzi, azal illun»... izenak ikusi euazan -zitian-. «Azal illun» izki nabariagoetan ikustean, bertan ausnarean gelditu zan: «Munduko arrazak koloretik bereizten dira eta ziritasunetik baltzera maillaz-mail jatortazuna zabartzen doanez, baltzetik zurira zindotatasunak irabazten dau -du-, zindotasunean, zolitasunean, indarrean eta danean. Ara, bada, Babilandiaren kinka larria: beltzadurak eraso dautsola -diola- gure geografia zuriaren azalari, urdiñen erria, legendunen lurraldea biur gurarik. Beltzadura onek sortzen dauz -ditu- gero azal lodiak gure erreñuko oiturenganako legea eta lotsea galdu araziz. Azal urdiñen argitasuna zaintzea, beraz, erriaren aurpegi jatorra zaintzea ezezik, gure ikurrin bereziena aldezea ere ba da: zuria baltzetik,

zuzena gaitzetik legez zaindu bear da, arrazaren gainberatzea esi gogorez eragozteko. Emaginen erruki auleriak eta zabarren maitekeriak Babilandiaren etorkizuna arrizkuan ipini dau *-du-*. Ortik gure eslogana: «Beltzadura, kutsadura!»...

Onen beste irakurriaz, Babiren ama artegetu egin zan eta oraindiño «ez gu tentaldira eroan» goizeko otoitza egin barik eukanez *-zeukanex-*, «azal illun» itza egoen tokian, liburuan atzamarra eukala *-zeukala-* Babiren gelara joan zan.

Antxe apalean eukazan *-zeuzkan-* Babik errenkadan Níñi eta beste kidekoak, antxe egon *-zegon-*, ain zuzen, angeru baltzerena, txokolate legizko arpegiaz, eskuak otoitzean batu eta begiak ñarro eta belainiko. Nork erregalatu eutson *-zion-* Babiri angeru baltza? Amak ez euan *-zuan-* gogoratu ere nai. Esku batean «Jatortasun Iztegia», besteaz Níñi beltzerana jaso euan *-zuan-* eta «zer egingo» asmetan egon *-zegon-*, angeru beltzerana sutan erre, ala Babiri ere, andiagoa egiten zaneke, Alberti legez, «Jatortasun Iztegia» erosi... Antxe izan zan amaren burruka errukia eta zientziaren artean, errukarria bai zan angeru beltzeranaren musua eta latza benetan eskola barriko emaginen eskua.

## XXV

## ELORRIA LORAN

Menditar elorria, ezkongai aratza, edur matasak iruten ari zan berezko arantzaz, ezkongaietako zurimenta aurreratu naiez edo lumatan erpe zorrotzak, katu lauzengale baien, uzkurto bearrez.

Babik ez euazan *-zitan-* ezaguten elorri menditarraren lore jaiak, Zumardiko parkeak sasikotzat bazteztu euan *-zuan-* eta bere esparrutik. Zozo baltzak bai ezagun aren aintza, bere lumak baltzago nabari zirela, aren jantzietan, «txotx-txotx» inotson *-ziotson-* goizero, biotz ikutu, «au zeru usaiña! Toki zoragarriagorik abia egiteko... esan nai baileutso *-bailio-*, «au zuritasuna! Fuii-fiiio...» aren izpilluan begiratzen zan eta elorriaren erantzun zorrotzak jasotzen:

«I az, i, elorri!  
Aran beltz, ala ez?  
Ezkongaietan zuri,  
aurmiñetan beltz».

Babik ez ekizan *-zekizkin-* izadiko bizidunen alkarrizketa guztiak, baiña bera ere konturatu gaberik, leiarrezko izpilluari galde erantzunak egiten egoten zan.

—Polita nazela *-naizela-* esan dauste *-didate-* —esku biekin zapak atzeratu euazan *-zitan-* Babik betartea argitzeko—. Oi ama! Polita nazela *-naizela-*!...

—Agirian dagonak ez dion *-din-* izpillu bearrik...

—Baiña kolejioko uniforme onekin zelan nabarmenduko!...

—Kolejioko uniforme izpillu txarra don *-den-*, neska.

—Monja oneik zer dakie? —Babik ia galdu euan *-zuan-* zeintzuk ziran bere galderak eta zeintzuk izpilluaren erantzunak—. Garritik bularrerakoak ez nabaritzen...

—Ume bat azela *-aizela-* uste daunae *-diñate-* eta ez az *-aiz-* ume bat...

—Ez naue konprenditzen...

—Amak eta monjak ez aunae konprenditzen, baiña nik bai...

Izadiko ditzirei eskerrak, Babiren jakituria orniduten eta nortasuna tinkotzen yoa *-zijoan-* eta mundu guztiari bere edertasuna, arantza ta guzti, erakusteko prestatzen zan.

## XXVI

### LEENENGO EGADAK

Orduantxe agertu ziran Parkeko loretegian lenengo pinpilinpauzak, lore goiztarrak eguzkitara zabaldu zirenean, Babiren kiribiloen urre ezeziaren azpian eguzki amesak ernemindu zirenean: txiribitak, mitxirritak, tximeletak, mitxeletak, ego arroen egada auziak, aldakorrak; txipiritonak, pinpiriñak, xomorro apaiñak; ingumak, denpora xamurren xegunak, txiribiriak, gozogale urduriak...

Lorerik lore,  
bai don xamurra  
ire jarduna:  
non senti gose,  
an gozamina...

Korapillatsuagoa zan arean Babiren soinkera eta gogoia: zenbat eta kolkoa andiago, utsunea andiago.

—Ai! Bai! —mosuen bat idulitzen eutson *-zion-* Babik Maliri, batez ere Aizta Karidaden begiradatik aske zentitzen zanean, eta batzuetan karga anditxoaz etorzelako *-zetoxtelako-*. Malik erpak erakusten eutsozan *-zizkion—*. Abisatu einkean *-ezakean-*, neska!

—Parkatu eidan *-ezaidan-*, Mali —durduri gelditzen zan Mali, etxeke prolema agertu nai uetsola *-ziola-* eta ezin azaldurik, ez eukan *-zeukan-*, bada, etxean nork eta nori mosurik emon—. I aizta bat az *-aiz-* niretzat...

—Bueno, «Maite istoria» ori ikusten joango gauzan *-gaitun-* orduan sapatu arratsaldean —besotik oratzen euan *-zuan-* Malik Babi eta Zu-



«Enriren buru biribil orrastuaren diztira ikusi euan *-zuan-* Babik, zineko adigarri bat Malik azaltzen eutsola *-ziola-*. Begiak yoakozan *-zijoazkion-* Babiri».

mardirantz edo Artekalerantz abitzen ziran, ames beraren bide bardinetik bailebiltz—. Oi, ez adi arduratu; daukagun azkaiaz, ez gaituen amalau urteko umetzat artuko: ez diauskuen *-ziguten-* karnetik eskatuko.

—Eta Sor Karidad enteratzen badon *-baden-*? Babik amalau urte egin barik eukazan *-zeuzkan-* eta Aizta Karidadek bein ronboez zeatz eta metaz itz egin eutsen *-zien-*. —Ba dakin Karmelen arakoa...

—Je! Ondo gengokez *-geundeke-* zapatu arratsaldero Karmele mamala orren eta bere Jose Luisen paseotxoan begirale bagenbiltz —Malik bidea zearkatu euan *-zuan-*, Babi besotik eroala, eta Barrenkalera jo bearez, Parkerako bidea artu euan *-zuan-*. Onetan Sor Karidadek baiño leziño geiago bear dionagu *-diñagu-*, bera ez legez, egunen batean ezkonduko ba gauzan *-gaitun-*.

Enriren buru biribil orrastuaren dizdira ikusi euan *-zuan-* Babik, zineko adigarri bat Malik azaltzen eutsola *-ziola-*. Begiak joakozan *-zijoazkion-* Babiri.

—Ori don *-den-* mutilla, ori! Eta ez Jose Luis mengela. Yarraikitu egin bear diautsonagu *-zionagu-*! Ja, ja, ja! —Malik besotik tiratzen eutsen *-zion-* Babiri, Enriren yasarrian joateko, Babi, izuak artu, lurrari tinkatzen zan, Maliren barre jotzeari ezin igarriz—. Ez dianala *-zainala-* gustatzen esango daustan *-didan-* gero, gaisoa! Neu engañatzea, uste don *-den-*...

—Ik zer dakin? —Babi antziña bateko «Miate istoria»z oroitu zan eta, uste gabeen, «ik zer dakin» urten eutsen *-zion-*.

## XXVII

### OTSOLARRAREN AZAL URDIÑAK

Otsolarrak landatu euzen *-zituzten-* leenago Parkean, Babik Otso Txikiaz amesak egiten euazan *-zitian-* garaian. Lorezaiñak, adarrak moztu, eta orri zabalen eta lore andien eztitua ipini eutsen *-zien-*. Otsolarrak apaindurak aldatu euazan *-zituzten-* geroztik, baiña erpeak leenak zorrozten... Eta udabarri bakoitzean, kale giroa maite sutan goritzen danean, otsolarrak basotiko arantzez esiten dauz *-ditu-* lore alaba kuskua. Oraingo larrosa apaiñak oiko otsolarraren soin berean, aien berean, kulunkatzen dauz *-ditu-* lore potiñak eta bat ere ez dautso *-dio-* kaleko eguzkiari erakusten, arantzak altzairuz oskolatu arte. Kaletar Otso Gosekila Parkeko elgorriaz kutsatzen danean, aren margoen lilurak artuta, noka txuliatzen dau *-du-* larrosea, aren azal apaiñen laztan gosez, ortsak adurretan:

«—Esan eigin, larrosa,  
noiztik eu panpoxa?

—Basoak asi nindun  
t'amar gonaz troxa.

—Emongo dauskun, emon,  
ortik lore txorta?

—Bai ta ene arantzen  
punttaren zorrotza.

«...Kolejioa itzi gendunetik, ia adizkide gabe gelditu naun. Umeen abitik aldendu gintsozanan *-giñunan-* eta orain esan daiteke *-diteke-*, ba-koitza bere abirako lumatan ari dala. Zelan irauñ don *-den-* ille bete leengo lagunekandik urrun? Ni kolejioan ez ondo eta, a barik ere, ezin. Ezin dionat *-diñat-* aaztu arako despeidan egin gendunan prozeziñoa eta komeria. Elbira-ren ezten biko miñari esker, ni ostera ere zigortua, monja guztiak patiora leioetatik eta neska guztiak arkupetatik begira genduze-la *-genituela-*: neskalagunok larrosa eder banakin eta ni nere lore potin, lorea baiño arantza andiagodunaz, patio erdiko Ama Birjiñiarengana. Sor Julia begirale egon ezpazan, niri asko ardura komeria egitea, baiña aren begiradak errudun egiten nindunan *-niñunan-*... Txiste berde bat kontatu nendula *-nuela!* Sor Karidadek ez eukanan *-zeukanan-* txistetarako oiturarik, antza. Zer irakurri ete dau *-du-*, bada, Biblian? Antxe diño, Jainkoak Adan eta Eba buztiñetik eratu euazala *-zituala-*. Bada aragia bere eskuz moldatu baeuan *-bazuan-*, azala ere bardin. Gaiñerakoa, Bibliak ez badiño, gauza berezia eristen dionat *-zumat-*, gizona zer den eta emakumea zertxo den ikusiez gero. Ala, kontu egien *-ezaien-*, Mali «Maligna», eure edizkide berriei, Sor Karidadek kolejiotik entzuteko aiñako barreak egin dagiezan *-dezaten-*. Ik kontatzeko grazia don *-den-*; kontatu eta Sor Karidaden belarrietara susmorik ez eltzeko grazia. Nik bein kontu eta zigorra beratan. Orixe dala eta: gizonari berari egokion *-zegokion-* azala, sorki-morki josi eualakoz *-zualakoz-*, narrua sobratu yakola *-zitzaiola-* eta emakumeari, zeazki-meazki josten jardun eualako *-zualako-*, aria faltatu izan yakola *-zitzaiola-* eta... Orregegaitiño ulertu, bai ulertu dionan *-zunan-* gero Sor Karidadek. Txiste berdea zala! Berdeagoa izango zonan *-unan-* ziur Jainkoak gure leen gurasoen garrietik eskegi euazan *-zitian-* iko orriak. Eta berdeagoa oraindiño Ama Birgiñari opaldu izan bear neuntson *-nion-* lore potiña! Neu ere berdez neska eldu gabe, ume zoztor bat nintsonan *-niñunan-* eta!... Ik, nere samiña ikusirik, eure lore ederra neure potiñaz trukatzeko prest egon intzanan, ala ere. Eskerrik asko, Mali, baiña orain nere zigorra betetzearren pozten naun eta ia orduko arantza ere joan dianat *-zaidan-*, ipuiñok euri kontatuz gero. Agur monjak eta agur kolejioa, agur, batez ere, monja kume antzeko uniforme grisak. Gure amak ba diaukon *-zeukan-*, kolejioko neure uniformeeekin, nori karidaderik egin, beti bere txakur barriaz arduratzen ibili barik... Ik, beinipein, aizta txikerrago bat don *-den-...*».

## XXVIII

## POZEZKO MISTERIOAK

Maite eresi baten dago zelai zabala, izadiaren ezteiak direla eta. Lore kolkoak eztitan dagoz eta karduberen erraiak aziz ioritzen. Erleak eta txoriak dira, maikide bitxiak, eta musikaren arduradunak; zelai zabale-tik Parkeraiño edatu daue *-dute-* jaiaren ospaketa. Lorezaiña arritu egin da, berak oraintsu ebaki belardian, berak ez erein, ez landatu loreak —bitxi loreak— millaka zuritasuna edatzean. Lurretik arra erdi ez daue *-dute-* burua jasotzen, baiña bai tinko garriari eusten. Begi bakarrek lore ostroak ez daukeez *-dauzkate-* betulak baiño andiangoak, baiña bai uasart eguzkiari begitzen. «Ausart sasikook» makur susmoa nabari da lorezaiñaren arpegian, Parkeanfesta egiteko, eztaiak ospatzeko, bere bai-mena bear bai leue *-lute-*. Lorezaiñak gogotik laztantzen dauz *-ditu-* berak eztitu larrosak, berak landatu tulipanak, agur dagitse *-dagie-* lore pentsa-larieri aparteko filosofiaz eta alderdikeriz ebasten dau *-du-* belardiko pitxi-lore ugarien eta lore andien, lore klasisten, arteko auzia, «neuk eba-kiko zaituet zuek eperdi-eperditik belarrakin batera», eta araudi forma-len estetika esteko formalki irakurriko dau *-du-* liburuen bateko larre geldian:

«Goiz nabari ziran  
mertzika loreak,  
—gaisoak!—...  
bai laster apaldu  
izotzak!!...»

«...Egia esan, bildur naun «Dumbo» klubeko giro larriaz. Eure gomendioz joan nintsonan *-nitsunan-* arutza eta, barrero itzultzeko gogoa kendu yatanan *-zitzaidan-*. Esperientzi legez ongarrri izan yanat *-zaidan-*; mutillak eurak ez dozan *-ditun-* nik uste baizen zakar edo lotsa-galduak. Onetan ez dionak *-diñat-* neska-mutillen artean asko bereizten. Eta bardintasun orren aitzakiz, niretzat ez don *-den-* mutillen antzera erre edo edatea. Monja kume bat nazela *-naizela-* esango don *-den-*, baiña ez don *-den-* orregaitik bakarrik. Eu polito moldatuko intzanan an erdiko biribilketan. Dantzarako eu baiño ipurtariñagorik! Baiña ez indudan ikusi. Edo aparteko zokoren baten egon ete intzan eure galai orrekin? Ez dionat *-zunat-* uste eu, alako arpegi triste eta begi liroekin, ez diakiñat *-zekiñat-* buruan alkarri azka edo zertan, erretzeari eta edateari itzi gabe, batean atzamarrak, bestean besoak edo belaunak gurutzatzen... Ez! I obeto, edozelan ere, erdiko zurrunbilloan piko egiten, mugimendua eragiten eta abeslarien zaratak anditzen. Nik zer egin neinken *-nenzakenan-* i gabe «Dumbo» klubean? Dumbo gaisoa! Belarri andiekin egaz egin gurarik eta trompa! Edanaren begiak eta zorion barriztu naiaren ke multso odeiak eta zerua egin gurarik. Alako odeiak, alako zerua, Mali!... Nork lotu dau *-du-* gure Dumbo Dysneiladiako klub ortako zirkuant? Emendik aurrera, Dumboren belarri andiak ikustean, urrunetik agur egingo diautsonat *-zionat-*, zorion opa, begiak argitu daizan *-ditzan-*. Bear bada, eu ikusi ba indudan antxe, edo eta Enri antxe idoro banendun *-banu-*. Ba! Ik zer dakin? «Dumbo» klubeko gaztedia baiño zoriontsua-goak zonazen *-itunan-* arratsalde berean eta ordu beratan, Parkeko txorriak. Beintzat toki alaiagoa aukeratzen daunae *-diñate-* maitasuna egiteko. Neuk ere maiteago dionat *-zunat-* eguzki argi geldiaren barrea, klubeko keifuketa tximistatsua baiño, eta izadiko musika irikia gurago, ango zarata ertsia baiño. Edo eguzkiaren argitan mutil bat besarkatzeko debekua ete diagon Parkilandian? Bada, klub zulo ortatik urten eta pankartaz agertu daiguzan *-ditzagun-* abere txukunon eskubideak...»

## XXIX

## GARI KANTAK

Goiko landetan gariiek, garatu zireneko, abesti berezia edatu euen *-zuten-*:

«Txikia nintzan,  
andia nintzan,  
maiatzerako  
burutu nintzan.»

Aizearen leian, ikuika alkarren jararrian jolasten euen *-zuten-*, edo zinbili-zambu garriaren zaulia probatzen, edo eta, biribilketa lasterretan zurrunbilloak egiezan *-zegizkiten-*, burua galdu bai idoro. Galeperrak gertu egozan *-zeuden-*, pospolinka, gariari zentzuna aztateko eta Babik, kaleko legamiñez, malizizko ogia jastatzen euan *-zuan-* jadanik.

«...Nere bizitza zearo aldatu don *-den-*. Igarriko don *-den-* zergaitik. Aspalditik ez diaukanat *-zeukanat-* ire barririk, baiña eure bizitza ere aldatuxe dagoela uste dionat *-zunat-*. Ez abil, ba, Rosen erdi kirolari, erdi abeslari orrekin? An egon gintzozanan *-giñunan-* monjetako esku-baloiarene leiaketan eure ganorea ikus naiez, eta an ez zonan *-unan-* Malirik azaldu: seiñalea beste norbaitekin egin donala *-denola-* fitxajea. Neuk legez. Ez nintsonan *-niñunan-* bakarrik egon, eta jakin egin, eu baizen azkarra banintz, ez nintzakela lotsa, gona motxetan Enriren aurean jolasteko. Ba dakin orain mutil begiralerik onartzen dela monjen kirol tokian. Ez daunat *-diñat-* kontatu Enrirena, aitari ere ez diautsonat *-zionat-* kontau eta... Gure aitak nik ikasketa nausiak egiteko amesak diarabizan *-zerabilzkin-*. Unibertziarieren artean Babi! Barregarri, ez ola? Enri



«Babik riki-raka idazten euan -zun- oe buruko bonbillaren argitasunean. Orrialde osoa bete euean -zuanean- naikotzat emon euan -zuan-. Lerro barriei begira gelditu zan une batez.»

berari konpetentzia egiten! Konpetentzia egiten, baiña mailla bat beera-go. Enri kurso bat aurreratu diabiln -zebiln-; eta ori ez don -den- biok maai batetik ikastea, liburuak, eskuak edo oiñetakoak eta oiñak trukatzea. Ezingo dionat -zunat-, ba, utsean kurso bat igaro, edo Enri neure kursora apaldu. Ez! Doala aurrera! Esain, nai badon -baden-, ikasketarako gogorik ez dodala -dedala- eta kito. Baiña ori beste kontua don -den-. Ez deuna -diñat- esan Enrireña. Oso erreza. Izan zan baiño sensilloago ezingo daunat -diñat- kontatu. Ba dakin non bota neuntsozan -nizkion- sareak: Parkeko arrizko jarlekuetatik Zumardira bidean, antxe, euk, eure barre santzoaz, Enriri atzera begira-erazo eutsontan -ionan- une aretan. «Ola, Babi, zer egiten don -den- emen, «Dumbo» klubera joan barik» agur egin diaustanan -zidanen-. «Uf! Klub ortatik igaroteak kabarrrik buruko miña egin diaustak -zidak- eta onaxe egurazten urten dioat -diat-» nik erantzun. Astea eta erastea izan zonan -unan-. Berak ere ez diakiñat -zeikiñat- nongo adizkideri itxaron bear eutsola -ziola- eta, Parkean ibiltzen asi gintsozanan -giñunan-, bizkortxo leenengo, berak nigan-dik aldentzea nai baileu -bailu-, baiña nik ez etsi, nik jarrai nik eutsi. Azkenik pausoen bardintzea egin gendunan. Orduan aztiroago, iñoren begira barik, alkarri begira egon baigintzan, itzari, ibilteari baiño, jara geiago emoten asi gintsozanan -giñunan-. Betiko adizkide miñak izan baigintsozanan -baigiñunan-, ez errezago. Baiña onetaz ik zer dakin?...

Babik riki-raka idazten euan -zuan- oe buruko bonbillaren argitasunean. Orrialde osoa bete euean -zuanean-, naikotzat emon euan -zuan-. Lerro barriei begira gelditu zan une batez. Kuadernoa itzi euean -zuanean-, azal gorrixka ikusi einkean-*ezakean* eta erdian Ama Birgiñaren edo zineko izar bateren irudi itsatsia. Irudiari mosu bat emon eta burko azpian gorde euan -zuan- kuadernoa. Babi, aitiaren egin orduko, oean zan. Argia itzungi eta, illuntasunean gelditu zanean, «ez dodaz -ditut- erreza iru agurmariak» oartu euan -zuan-. Ezpainak total mugitzen asi yakozan -zitzaizkion- une batez, eta beingoan geldi-geldi geratu titiz naikotu den umeari legez. Bularretako auspokadak gero eta sakonagoak egin yakozan -zitzaizkion-.



XXX

KEREIZA ELDUAK

Kereiza elduak lotsa arpegiz izkutatu nai euen *-zuten-* ezpain gorrien nabarmenkeria, suzko aoz «jan nagizue *-nazazue-*» inguruko aizeak zirikatu eta maite txingarrak edotariko sugarritarra jaurti ondoren. Biotz gogorrak benetan! Baiña dana bearrean aurkituko ziran euren aragi xamurrak zaintzeko. Elorritik kereizara, an euken *-zeukaten-* maaia goizero leen umealdiko zozoak «txotx-txotx», moko oriak mamin gorritzan gozaten eukezela *-zeuzkatela-*. Gero luzaro jardungo ziran errekaldeko itzaltsuan izadiaren ederrari eskerrak emoten, txorrotxiotzen, eguzkiak egunari zama aztuna ezarri arteiño.

«...Ai, maitasuna! Maitasuna! Izki aunditan, Mali, onela! Orain ba dakin zergaitik aldatu den nere bizitza. Aldatzea ezezen, iraultzea esango niñonan. Oñeztua zerutik edo gezia oreiñen basotik, jaïnko basati orrek arako «flechazo» edo zelan deitzen don *-den-* maitaleen kantorietan? Nik buruz gaindik egin nendunan *-nuenan-* beintzat Enrik, samatik eldu eta saman bertan españak josi eustazanean *-zizkidanan-*. Ene zeruko ange ruak! Arbola guztiak dardar egistala *-zegidala-*, ez diakinat *-zekiñat-* alako egadan, lurrera zelan ez nintsonan *-niñunan-* erori edo zerura jaso... Oraindiño ez naun osatu neure zeru eta neure zauritik. Egia ete don *-den-*, Mali, zauritzaileak berak bakarrik osatu leikela *-lezakela-* olako zauria? Ezingo naun, beraz, bizi Enri gabe. Erakutsi eidan *-ezaidan-* oraintxe, Mali, eure filosofiatik apur bat. Ba ete diagon beste medikurik? Eta pentsa egin *-ezan-* zenbat egun itxaron bearko dogun *-degun-* oraindiño ezkondu gabe! Eta ezingo dionagu *-zunagu-* etxetik igez egin Enrik eta biok. Nongo basora joateko? Nongo artzuloan biziteko? Aitak epea betetzea nai dion *-din-*: Enrik jakintsuen abarra buruan ezarri arte. Neu

maitasunean legez, Enri jakiturian eldua bailegon!... Aita gertu legokenan, Enri baizen mutil dotorea semetzat onartzeko. Bai, guraso aitak aisago egiten ei dozan *-ditun-* suinera, guraso amak errainera baiño. Oi, parkatu eidan *-ezaidan-*, itzok aipatzea ere. Izan ere, zerikusi diauken *-zeukaten-* maitasunaz? Euk «realista» izateko, esaten eustanan *-idanan-*: bakoitzari bere izenez deitzeko. Esango daustan *-didan-* euk Mali, zer den nik Enriz sentitzen dodana *-dedana-*? Maitasuna ete don *-den-*? Bein «maitasunaz» itz egitean, Sor Juliak erakutzi euskun *-zigun-*, gurutzatua oroitzen dionat *-zunat-*... Oi, Jesus Superstar! Ez adin aaztu orduan, euk ere, benetan olgetan, Madalen izateko gogoia endula... Gurutzatuarren? Gurutzeagaitik? Eta orain zer? Idoro al don *-den-* maitasuna? Ez dionak beintzat Santa Madalen komentuan-edo sartu azela, entzun... Eta nere au zer don *-den-*, maitasuna ez badon *-baden-*?... Sor Juliari galdetuko bearko diautsonat *-zionat-*...»

## XXXI

## ERNE-MIÑA

Udabarriaren asiera zan eta loreak eskontzeko leraz egozen *-zegozen-*. Aizeak laztanez ekarri eutsen *-zien-* maite mezua eta eguzkiak txeraz maite giroa. Salomon erregea bera ere ez zan orren txukun apaindu, Saba-ko erregiñari bidera urten eutsonean *-zioanean-*. «Nai dozu *-dezu-*» eta «bai» izan zan dana, baiña «bai, bai, bai»; luze amaigabea. Aurrenekoen soñekoak maiztu zireneko, beste loreen malgutasuna nabaritzen zan eta batzuren azken lauzenguak besteen leen irriekin naazten. Sagardian goitik beera josta koplak entzuten ziran:

«Egotarriz loretzen  
ene lorea,  
aik joan direneko,  
dator nere»...

batzuren berakadak besteen gorakada bailekarren, itsasoko olatuak bezela.

«...Eu izango intzan, Mali, Mali gaizto, «faite l'amore e non la guerra» pegatina musukatu ori bialdu daustana *-didaana-*? Uste don *-den-* nire amak ez dakiala izkuntza modernorik ala? Eure irribarre gaiztoa neure begien aurrean ikusi eta gero, neure besagaiñean eanzen saiatu nintsonan *-niñunan-*. Pegamin guztia urturik eukanan *-zeukanan-*. Urren-goan, mesedez barriago bat bialdu eidan *-ezaidan-*. Neu konturatu orduko, gure txakurraren aotan ebillan *-zebillan-* ikur bikain ori eta lurretik. Barriago bat eta pegamin askokin bialtzen ba daustan *-didan-*, gure Albert eta bere Marilini bialduko diautsenat *-zienat-*, zergaitik eta agaitik

eta itz lauera aldatua, oker uler ez dagien *-dezaten-*... Oi, amaren izkuntzan, maitasunerako eziak izan balira... Orain ezkontzarako katekesia diaukanagu *-zeukanagu-*. Jadanik izena emon ez badon, apuntau adi, Mali. Zelako gauza zoragarriak entzungo dozan *-ditun-*!... Tituloa atera egin *-ezan-*, bada ezpadan, oposiziñoak gero egiteko edo... Ni ezkontzen nazenean *-naizenean-*, eu nire amabitxi izatea nai dionat *-zunat-*, une larri aretan eure ozpiñak mareatzetik libratu nagian *-nazan-* edo eta «ez» esaten deskuidatzen banaun, ukondoan joaz, erratua ainbat ariñen aztertu dagidan *-dezadan-*.


«Agur, Mali, maligna,  
bial eidazan beste  
lau pegatina;  
bi garbi, bi kutsatu  
eure ezpainaz».

## XXXII

## EGUZKI ALABAK

Udaraldia berotu da eta denpora ona bera da gona. Nork auziko dau-tso *-dio-* arpegia euguzki jainko orri? Begi guztiak zartatzen dauz *-ditu-*aren ditzirak, biotz guztiak unkitzen aren geziak eta soin guztiak, opil bilustu dira, aren labean opari erreteko. Ama lurra itsasoko ezeaz gorde nai leuke *-luke-* bere alaben koipea, sutan egoak errierik, pinpilinpauxek xomorro itsusien soin mamutza erakus ez daien *-dezaten-*. Ura, lurra, sua: aragia; odola, azurra, gogo: soiña... Bizi elementuak doaz bere seaskara, eta iturrietara.

«...Ire pegatinak suerte txarra emon eustanan *-zidan-*, Mali; ez euk niri bialtzearren, neure besotik lurrera jausi eta Plutoren ortzetan jausi zalako baiño. Orain barre egin daiken *-dezaken-*, sorgin gaizto orrek. Atso arratsaldean Laminondartzarako asmoa artu gendunan Enrik eta biok. Bera, klaseak amaitu eta gero, neugaz bertan alkartzeko zonan *-unan-*. Ni aurreratu eta eguzkia artzen nengonan, itxaron eta itxaron, eta itxaron, aspertu arte eta Enririk ez agertzen... Eguzkia joan zonan *-unan-* eta ni asarre etxera, oratu telefonoari eta belarri belarrira: «I, lotsabako!»... «Ez nazela *-naizela-* joan? —berak zurtu— Ordu betean eure billa egon naun ondartzan alde batetik bestera eta! Nork nori gero kuku? Ikusiko dionagu *-zionagu-*...» Lenengo lamin ipuiñetaz oroitu nintsonan *-niñunan-*s arako mutilla edo sekuestratu ei euen *-zuten-* bein lamiñak Laminondartzan... Zelan uler neinken *-nezaken-* gure asarrea, maitasunaren etsai orreri errua bota barik? «Gogoratzen az *-aiz-*, Enri, bart amesetan edo, iturririk-iturri edo basorik-baso ibili azelakorik *-aizelakorik-*?» —galdetu neuntsonan *-nionan-* biok baretu gintsozanean *-giñunanean-* eta berak: «Eta euk gogoratzen don *-den-*, Babi, ovni bat




«Non egongo ete zan Babiren gogoa, Enri gurea neure soiñaren ondotik igaro zanean...? uste dionat *-zumat-* kartel bat ipiñi bear nendula *-nuela-* nere ondoan makillatik dindilik, «Babi naz» adigarriaz».

zerutik jatxi eta bertako galaiak eu izarrez-izar erabilli auelakorik?»... Eta orain esaidan, Mali, nori eskatuko dautsodazan *-dizkion-* kontuak. Eu «realista» az *-aix-* eta arazoa apur bat aztertzen aaleginduko naun, auzia ebaratsi eidanen *-ezaidanan-*. Bada, esan daunadan *-diñadan-* lez, Laminondartzara joan, neuretzako eta Enrirentzako lain toki idoro —ez zonan *-unan-* gauza errera izan, ez—, neure jantziak, Enriren tokizain, alde batera itzi, gantzuen ritoa bete, eta luze-luze eguzkia artzen asi nintsonan *-niñunan-*. Eguzkiak burura igon ete eustan *-zidan-* ba? Aren koloreekin jolasten aldi batez egon nintzela, gogoratzen dionat *-ziñat-*. Esango daunat *-diñat-*, uretan barik, eguzkiaren koloreetan murgildurik nengonan: suzko bola gorria diatanan *-zitzaidanan-* asieran, gero arrosa, gero beilegi, urdin, ubel... Aserako indarra galtzen zaneke, begi ertza irikitzea baiño ez neunkanan, joko bardiñari bide emoteko eta emoteko. Biurrikerien bat ere gogoratu nendunan *-nuenan-* anartean: «Enri, Enritxo, eguzkiaren tukurik ez daukak, ezta? Zelorik esan gura daunat *-diñat-*...» Baiña an ez egonan *-zegonan-* Enririk. Batera eta bestera irabiatzen nintsonan *-niñunan-*, eguzkiak berak baiño, barruko sumiñak areago erretzen nindula... Ez agertzen Enri! Eta eguzkiaren erreñua joan zonan *-unan-* eta jendearen zurrumurrua aienatzen yoanan *-zijoanan-*. Uñen blastadak entzuten asi nintsonan *-niñunan-*. Bakarrik izten ninduen *-ninduten-*! Barruko errea geitzen diatanala *-zitzaidanala-*, oskirria sentitzen azalean. Jantzi eta alde egin nendunan Laminondartzatik arrapaladan... Gerokoa badakin: Enri antxe ibili ei zan ordu betean neure billa, trangoz-trango, bat edo bestea zapaltzeko arrizkuz, batean deiez (deiez diño berak. Nik ez nendunan *-nuenan-* deirik entzun zurrumuru aretan) bestean arpegi billa. Non ete egon *-zegon-* neure arpegi au orduantxe, Mali? Uleak bai baturik neunkazanan *-neuzkanaan-*, baiña ez betaurreko baltzik arpegian eta ez nintsonan *-niñunan-* auzpez egon denbora luzean. Ai ena! Izadiko arrigarrietan pinguin txoriak, gizakiok baiño sena andiagoz, erratu gabe alako kantu berezi batez, bikoteak alkar topatzen direla, irakurri dionat *-zumat-*, millaka eta millaka batzarrean dagozela. Enriren utsa ala Babiren utsa dala uste don *-den-*? Non egongo ete zan Babiren gogoa, Enri gurea neure soiñaren ondotik igaro zanean? Bilustu nintzanean, neure pertsonalidea erantzi nendunean *-nuenean-*, uste dionat *-zumat-*, kartel bat ipini bear nendula *-nuela-* neure ondoan makillatik dindilik «Babi naz *-naiz-*» adigarriaz.

## XXXIII

## IRETARGIKOAK

«...Une bateko burrukak maitasuna ei diakarn *-zekarren-*, eta une bateko maitasunak, burruka... Edo euk esango endunez *-uenez-*, guda. Izkiri-miri au gure amaren nobelen sailleko atzeko pastan irakurri diaunat *-zunat-*. Izkiri-miria an egonan *-zegonan-*, baiña esperientzia, Enrigazkoa, neuk diaukanak, eukitez. Eta esperientzi onetatik eta izkiri-miri aretatik eta arako pegatinako beste aretatik neure sintesia egosi dionat *-zunat-*: «asarrean labor eta maitasunean iraun», ara. Ez daunat *-diñat-* kontatu ezkon aurrekoen kursiloetan egon garela. Tituloa lortu dionat *-zunat-*. Orain oposiziñoak diaukaguzan *-zeuzkanagu-* Enrik eta biok. Gazte urduri asko bildu zonan *-unan-*, erretzailleen keaz ia alkar ez eza gutzeraíño. Askok atzerantz egin dioenan *-zutenan-* azken orduan. Ez dioenan *-zutenan-* «maitasunean iraun», asarrean luzatu zirelako edo... Ire arako eslogana baiño, gurago dionat *-zunat-* berau: «Asarrean labor, maitasunean iraun». Abadea gozo egon zonan *-unan-*, baiña ez Sor Julia baizen bero, Jainko maitasuna aipatzean. Eta orain diatorn Enrigazko nire esperientzia: Bart zeru izar zelaipean gauzok aztertzeko unea euki gendunan *-genunan-*. Egia esango daunat *-diñat-*, eta ez ilargitarretan edo martitarretan sinisten dodalako, nik Jaungoikoaren atzamarrak sentitzen nenduzanan *-nitunan-* Enriren eskutik, alaba eta emaztegai erabat, neu izarretan begira nengola eta Enrik izarrak neure begiak zirela esatean. Eta neure zorion aretan, gure ikuspuntuak ezbaridiñak zirela, konturatu nintsonan *-nindunan-*. Nik, Jaungoikoa aipatu eta bat, «ik uste don *-den-*, Babi, —erantzun diostanan *-zidan-* Enrik— Jaungoikoak, beste zeregiñik edo ez bailu, geure uskeritxoari begira dagoela?» «Zer? —nik erantzun— zelokortsu ago Jaungoikoa dala eta?» «Ez ba! —berak—



«Bart zeru izar zelaipen... nik Jaungoikoaren atzamarrak sentitzen nenduzanan  
-nitunan- Enriren eskutik...».

Bada niretzat Jaungoiko ori izarretatik gorantz dagoke egotekotan». «A!  
Bai e? —berotu nintsonan -nindunan- orduan—. Eta deskuidoan nere  
begiak izarrak badozak -badituk-, ez dok -dek- Jaungoiko arrastorik nere  
begi ostetan idoro?» Isildu zonan -unan-, bai, orduan eta areago berak  
eritsiko «uskeritxoa» itxusitu neuntsonean: «uskeritxoa eu eta uskeri-  
txoa neu: uskeritxoak biok, eta uskeritxoa, musu ta guzu, eskatzen daus-  
takana -didakana?... Uste dionat -zunat-, Mali, mutillok kurso osoa  
bear leukeela -luketela-, eskon aurretik, eta ez iru-lau ikasaldi baka-  
rrik...».

## XXXIV

## SORGIN DANTZA

«Udagoiena zan eta argi guztiak itzungirik egozen *-zeuden-* ortzian. Zerua gizakien oarpenetik aienatua egoken *-zegoken-*: gau eldua zan, illunpekoan ordua... Akelarrea osotoro bildurik egon *-zegon-*, Aker jauna betazpi pustuz eta arpegiz muxin, biltzarrearen erdian, adar banatatik argi gorri tristeak dindilik eukazala *-zeuzkala-*. Sorgiñak alde batera egin euezan *-zituzten-* erratzak eta sapoak eta oillaskoak euren zokoan gorde. Aitorkuntzako oikuna asten zan, oi bezela, emakumeengandik asi ere...

—Nik ez daukat zer aitortu, jauna —estulka asi zan atso muker bat—. Zaarregia naz *-naiz-*, pekaturik eukiteko; baiña aalegintzen naz *-naiz-*, ez uste: il zorian egoanari laguntza ukatu dautsot *-diot-*, goserik egoanari ogia, egarri egoenari ura eta beti agertu izan naz *-naiz-* bedorren gogoko. Zer geiago egin neinkean *-nenzakean-*?

Adarduna arrauzika egon *-zegon-*; adarretako argi gorrizkak mugitzen yakozan *-zitzaizkion-*. Adarkada bat itxaro einkean *-zezaken* atso mukerrak, bere aurretik laster kenten ez bazan.

—Nik bedar gaiztoen lilura erakutsi dautset *-diot-*, maite miñez egozen *-zeuden-* neskeri —mutxurdir bat belaumikotu zan Akerraren aurrean eta damu gabe aitortzen euan *-zuan-* pekatua—. Mendira erakarri, bedarrak batu, salda artu eragin dautset *-diot-* eta ona or dozuz *-dituzu-* neska ederrok zeure serbitzarako...

Mutxurdiñak atzera begira «zatoze, laztanok» deitu eutsen *-zien-* eta Akerrak begiak iriki euazan *-zitian-* ikasle barriak ikustearren. Musturra luzatu eta samea okertu euan *-zuan-* eta adarretako bonbilla alako izetuak, unadaka argiagotzen eutsoen *-zioten-*. Mutxurdiñari eskumako aulkia eskeifni eutson *-zian-*, eta Mari Presona aurreratu zan orduan.

—Ba dakit, jauna, nitaz asarre zagozala, igandez mezatara joan nintzelako damuaaren damuz, lurra joka eukazan *-zeuzkan-* bere adatz ederrak Mari Presonak, eta negarretan arako ames begiak dizdizago egitsoen *-zegion-*. Baiña jakizu, jauna, neure seintxoaren illetan izan zala. Bateatu gabeko aurtxo bat neunkan ba eta, atsegin izango zendulakoan, salda baltza emon neuntson *-nion-*...

—Gaisoa!... —samiñez gelditu ziran sorgin asibarriak, entzutean.

—Salda baltza! Eriotza! Aufa! Aufa! Zeu izango zara gure jefa! —deadarka, barreka, txaloka asi ziran sorgin zaarrak.

Maistra zaarrak baietza, Aker jauna onetsa. Aker agiñak erakutsi euzan *-zitian-*, adarretaraiñoko barrean eta «je-je-beee-beee» giza-abere ganoraz urdailleko koipe guztiak dantzatzen euzan *-zitian-*. Mari Presona aukeratzen zan dantza erregin, gizonezkoen pekatuak aitzakotzat ere artzen ez zirela arrezkero. Akerraren adarretatik su misteriotsua edatu zan orduan Akelarrean. Arrigarrizko su arek ez euan *-zuan-* erretzen, norbere gogora berotzen eta argitzen baiño. «Inpernuko sua! Inpernuko sua», aragiaren liluraz, dantza biribilketan sartzen ziran zaarrenetatik asi eta. Akerraren miraria! Griñaren gau amesa!

«Babilanda, manda!  
Aufa! Aufa!  
inpernu atetan  
dinbi-danba!...

Kitarra sikodeliku eta kantari deabrutuak ez eutsoen *-zioten-* bakerik emoten soiñu tresneri ez estarrieri, ez azti-sorgiñek euren griñeri...

Egunsentiak bakarrik isildu euan *-zuan-* Akelarreko txalaparta...»

Pluto txakurrak, exerlekutik salto egin eta bere ugazamari jarraitu eutson *-zion-* lauengari apalerañño. Amak beste liburuen ostean gorde euan «Zorgin ipuiñak» liburua, Babik deskuidoan atzemon ez egian *-zezan-*.

### XXXV

#### PARADISUKO SAGARRA

«Emendik aurrera deitu ezik, ez naz sartuko zuen gelan», agindu eutson *-zion-* amak Babiri, Enri maisutza lanera joan zanean. «Deituko dautzut *-dizut-*» erantzun eutson *-zion-* Babik eta begiekin ama-alabak norbere jabetasun barri bateko itunbena egin euen *-zuten-*: «zu ortik eta ori emendik».

Babiren erregintzako kuartoa, etxeko gelarik ederrena zan eta, ormatik dindilik egoen *-zegoen-* ezkonbarrien kuadroa, barri-barria zan; Babi ezkon egunean baiño ederrago egoela *-zegoela-* orixe... «Orain zer egingo dot *-det-* nik, senarrari lagun dagiodan *-dezaiodan-*» gelako barkartadea beteten asi zan Babi. Idaz maian, argizari gorriaren ondoan, edergailluz, Biblia ipiñi euan *-zuan-*. Eskon aurreko kursilloetan erosia zan; urrezko egalak eta narruan izki urreztatuak eukazan *-zeuzkan-*. «Amaren liburutegian ez dago onen gizenik» aztatzen euan *-zuan-* Babik eta amaren benetasunez irakurteko antza egian *-zegian-*. Irudi ikusgarriak eukazan *-zeuzkan* arteka-marteka; Adan eta Eba, iñosentzian billusik ikusgarriak egozen *-zeuden-*; «ni ete naz *-naiz-* au» Eba begiztazen batian, «Enri ete da au», Adan bestean eta irudiaren azalgarri, texto apur baten billa asi zan Babi.

«Orduan Jainko Jaunak lo aztun bat bialdu euan *-zuan-* gizonagana eta loak artu euan *-zuan-* gizona. Jainko Jaunak saietzeko azur bat kendu eutson *-zion-* eta utsunea aragiz bete. Jainko Jaunak, gizonari kendu eutson *-zion-* zatiaz, emakumea eratu euan *-zuan-* eta gizonaren aurrera eroan euan *-zuan-*».

Irudira yoakozan *zijoazkion-* begiak ostera ere Babiri, «ze eder dago» eristen, burua beingoan ormara jaso eta «ez zeuri diñotzut, Enri» pentsamentuzko bere utsa aitortzen eskongeiatako argazkiari.



Eba Jainkoaren eskuetatik urten barri egon *-zegon-* irudian, eta Jainkoak eskutik eukala *-zeukela-*, Adaneri aurkezten eutson *-zion-*. Adanek, lilluratu, arpegi-arpegira begitson *-begion-* Ebari «auxe bai dala nire azurretako azur eta nire mamiñetako mamin» esaten bailegon. Eba erdi lotan oraindiño, bere edertasunean gogo bildu edo leenen entzun lauzenguaren lotsariz.

«Egia esan, ez dagokit neuri «ze eder dago» eristea» zuritzen zan Babi; eritsietan Adan aurreratu eiteken *-zeiteken-*, osterera ere... Babik Jaungoikoari begiratu eutson *-zion-* azkenik: gizon tankeran eta soñeko luzetan egon *-zegon-* Adan eta Ebaren erdian, «ez dozue *-dezute-* sagarretik jango» esaten egongo da «barretxoak urten eutson *-zion-* Babiri pentsatzean. Antxe, Adanen ostean egon *-zegon-* Bizitzako Zugaitza ere. Oso raroa eritsi euan *-zuan-* Babik, basoko besteen ondoan, «sinbolo bat da, izan ere» oartu euan *-zuan-* eta aren adar urkulatuen biribiltasunean, marraskilariaren ziria, antzemon ez emon, aztiro aztertzen euan *-zuan-*.

Irudiak itzi eta textoari oratu eutson *-zion-* barriro, «gauzotaz jabetzen banaz *-banaiz-*, zerbaiten lagun izan naitekio Enriri» aizetxoz arrotu yakon *-zitzaion-* kolkoa Babiri:

«Orduan emakumeak, zugatza, jateko ona zala, ikusirik, eta begientzako eder eta jakituria jaristeko ona, aren fruetetatik artu eta jan egin euan *-zuan-*».


## XXXVI

### TXIRLAMA BITXIGIÑA

Koralezko amesetan murgildurik, Babik esku lana eroria eukan *-zeukan-* magalean, betazalak ñarro, ikuskizuna barrutik: txirlamaren bitxia bizia... «Izarño, Josetxo» angeru izen bi erabizian *-zerabilzkin-* ezpaitetatik kolkora eta orduan orratzak bere kasa mugitzen yakozan *-zitzaizkion-*, jertzeñoari puntoak geituaz-geituaz... Urdiña zan soñeko barriarren artulea, baiña lan-otzaran nabari zan beste matazak arrosaren malgua eukan *-zeukan-*, «Izarño, Josetxo», punto biko margoa otzaran, ames bikotx joana Zumardian, bizia erraietan, izen biko otoitza ezpañetan...

Iratzartu zanean, Babik ariaren puntuak zenbatu euazan *-zitian-*, besoak —soñekoaren besotxikiak— soñaren neurrira erakarteko. «Ama ete naz *-naiz-*, ba, dagoneko» pozez nasaitu yakon *-zitzaion-* biotza Babiri eta amari deitzeko egon zan. «Ez, Enriri esan barik leenago» erabaki euan *-zuan-*. Ziurtasunaren billa, izpilluari galdetu eutson *-zion-*, izpilluak ez zeastazunik emoten. «Ai ena! Au da Jaungoikoak Ebari emoneko zigorra» barreak urten eutson *-zion-* Babiri» eta texto santuaz gogoratzen zan:

«Ugaritu egingo dodaz *-ditut-* zure oiñazeak, seindun izan zaitezcan bakoitzean; samíñez eukiko dozuz *-dituzu-* umeak...», baiña alan ere, ez yakon *-zitzaion-* baretzen ezpañetako barrea. «Enri gaisoa» asperendu euan *-uan-*, pozjarioak ibitu yakozanean *-zitzaizkionean-*, jateko astirik ere ez daunae *-diñate-* emoten Enriren eguneroko zortzi orduko irakasgintza aintzat artu euan *-zuan-* eta orduko paradisuko zuaitzaren jakituria eta oraingoaren aldeak emazteen faborez ez ete etozen *-zetozen-*, luzaroago ausnartu euan *-zuan-*.



«Ama ete naz -naiz- dagoneko pozez nasaitu yakon -zitzaion- biotza Babiri...».

—Liburutzar ori dana irakur bear ete don -den-? —Agur egiñaz, mosua emon eutson -zion- Enrik, ikastetxetik etorri zanean; Babik liburua laga barik, baiezkoa emotson -emaion- buruakin eta Enrik ez amor emoten—. Dana? Zertarako?

—Emakumeok, gizonok baiño, zertan garen errudunago, jakin bear dioat -zioat-, ja-ja-ja!...

—A! Bai e? Neuk esango deunat -diñat- zertan —Enri gazi-gezaren bat belarrira esaten yoakon -zijoakion- eta Babik atzamarra ipiten ez-pañetan:

Ik esana orain bost milla urte Adanek esan dioan -zionan- —Babik txaloak jo eutsozan -zizkion- Bibliari azalean—. Esaidak paradisu barriko arrazoiren bat edo bapez...

Babiren gelatik etozen -zetozten- barreak entzutean, Potxo, aldi barriko txakurra, zutundu egin zan eskaratzeko azpi lumatsuan, amak butanoaren giltza itzi eta «ez dok -dek- ezer, kokolo», esan eutson -zion-, aren auzi-urrumak ixiltzearren.

XXXVII

LILLURAZKO EUNA

«Txoriek! Zereko txoriek!...», —udagoieneko txori-txintak Zumardiko eguratza ekarren Babiren leiorea—. «Txoriek ez, laztana» —norbaitekin eragon *-zeragon-* Babik, bakarrik egon *-zegon-* arren, eta lumazko gogoetak orratz lanaz albaintzen euazan *-zituana*—, «utsagaitik, pikutik irrist eginik-edo, bertan amiltzeko! Angerutxo onen batek-edo esan baeunstan *-bazidan-*!... Baiña txoriek? Ez, ene kutuna! Txorien egadan baiño seguruago zagoz zeu amaren altzoan. Ez ala?...

«Txoriek! Zereko txoriek!... —Babik muxin egian *-zegian-*, lumazko gogoeta itzez formaltzeko zorian... Txoriek egadun jaioten dira eta abian bertan lumatzen... Nik lumaz jantziko zaitut bai, baiña egorik ez dautzut *-dizut-* ipiniko besapean, bada ezpadan..., angeru onaren atzetik beste paradisueta urrundu ez zaitezan...

Ut txoriek! Zereko txoriek!... Txoriek ez dakie ez iruten eta eunten... Zure amatxut otera ikus zelako ari fiñak darabizan *-darabizkin-* eskuetan... Eskuetan eta erraietan, ene! Nork esan dautzu *-dizu-* soñikoa eta soñia ezin leikezela *-litezke-* egin?

Uu txoriek! Zeu ez zaitue beintzat ekarriko txoriek... Ez torreetan zotzez, otar andiak besteko, abiak egin oi dauezan *-dituzten-* zikoniek, ez oroldiz, apatx eta egoki, mota gaiñean oi dauen *-duten-* txori txiek... Eta amatxok bere kuskuluarentzat abi egokirik egiten ez daki ala? Bai munduko artule lumatsuenak eta seda fiñenak ere, laztana, zeure jantzitarako, zeure seaskarako...

Zereko txoriek! Errekadua ekarri daistela *-ezaidatela-*, txori onetarikoa badira, eta utikan parte txarrekoak badira... Esan daisteela *-ezaidatela-*, ezpaere, zelakoa den neure kskuaren arpegiñoa, ointxoak, es-

kutxoak... Esan daisteela *-ezaidatela-*, ñekatoa ala muttikoa den... Esan daistela *-ezaidatela-*, badakie, jertzeño oneixen luze-zabalera neure kuskuaeren doi-doi ete den...

Txoriek? Zereko txoriek! Txoriek ez dakie uzatzen, ez ereiten, ez dautzut *-dizut-* bada, neuk Biblian irakurri? Zure aitatzok eta amatxok, ostera, goizetik gauera zutaz arduratzen dagoz. Eta, lanetik nekaturik datorrenean ere, aitatzok «zelan dago gure moñoñoa» zutaz galdetzen daust *-dit-*, «saltorik egiten dau *-du-*? Ostikadatxorik emoten dau *-du-*»...

Txoriek! Ez! Ez zaitue zeu txori gaizto arranoek eroango!...»

### XXXVIII

#### BESTELAKO PITONISA

«Aspaldiko, ene Babi: —dardara leun batek ikutu euan *-zuan-* Babi, gutunaren tankera ezagutu euanean *-zuanean-*. Parkatu oraintsu arte jaso ez badot *-badet-* zure ezkontzaren barri. Berandutxo bada ere, artu neure zorionik beroena. «Babi!»esan dot *-det-* «arako txanogorria». Beingoan fitxerora joan eta an aurkitu zaitut laster, beste neska lagunen zerrendan. Aurtzaroko arpegi ederra, ule kiribil eta guzti. Ezin zaikedaz *-zaitekit-* bestelaz gogorantzi: Babi ameslaria! Oi, parkatu, joaneko munduan daukat gogoia. Leenaren angeru arpegia barriztu nairik ibilli nauzu, geroak ere aingeru arpegi berbera euki daikela *-dezakela-* otu ere gabe. Eta otuaz batera, zorionez bete naz *-naiz-*, Babi, eta «itzuliko da, itzuliko da» ostera ere esan dot *-det-*, zeure seme-alabetan arean, zeure arpegia itzuliko da ostera ere, gure kolejioko lorategia eta jolastokiak alaitzera. Parkatu, Babi, monja ero onen asmakisunak.

Aurtzaroko egun argiak aipatu doguzanez *-ditugunex* gero, gogoan daukat zuen Jaunartzea oraindiño eta aurre egunetan, bizitzako pozezko eta nekezko misterioak argitzeko erabilli neuntzuen *-nizuen-* kristalezko errosarioa. Gogoratzen dozu *-dezu-*, Babi? Izan ere, Jaunak aldiaren lorez janzten dauz *-ditu-* gure bideak eta aldiaren arantzez probatzen gure zintotasuna. Biak dira maitasun beraren erakutsiak. «Gogora, Jauna, zenbat maite izan ninduzun, zeure aukeratu artu ninduzun egun aretan» otoi egiten eutson *-zion-* arako santa batek Jaunari bere naigabearen eta «orain maiteago zaitut, ostera, zure nekean» erantzun eutson *-zion-* Jaunak.

Zer esanik ez dago, aintzako beste misterio alaigarri, pozgarri areik zeruan ospatzeko, beste oneik ganoraz igaro bearra dagola munduan. Eta bizitzak danerako dauka, zerua barik, zerurako bidea danez gero. Ai, baiña ez dakit zertan datozen oar oneik, Babi, zure maistra zaarraren gogotara. A, bai! Zorionak, Babi! Urrutik bada ere, pozezko misterioak dakusdaz *-dakuskit-* noizbeinka, nekezkoen eroangarri. Ekin ganoraz, Babi, zeure bizitza barrian eta zure ames ederrak egi biurtu daitezela, Jaungoikoaren graziaz. Laztan bat otoitzetan lagun dozun *-dezun-* zure maistra zaarraren partetik. Sor Julia»

### XXXIX

#### NEKEZKO MISTERIOAK

Babik goitik betik eta egaletik begitu eutson *-zion-* azkenez eskutitziari, «beraz bizitza misterioz beterik dago...» muzintxo egin euan *-zuan-*. Eskutitza toleztu eta idazmaiko kutxa sakonenean gorde euan *-zuan-*. «Ba! Gauzak zelan ikusten diren...» nasaitu euan *-zuan-* kolkkoa, eskuetako autsak astindu euazan *-zitian-*. Barreak urten eutson *-zion-*, ormako ezkonbarrien argazkia begiztatzean: «zer esango leuke *-luke-* Sor Juliak, olantxe ikusiko banindu...» bizitzaren loreaz barik, aren beteaz arrotu zan Babi. Izpilluari galdetu eta sabela aztatu euan *-zuan-*, «badakizu, kuskuno, zer esan dauen *-duan-* zutaz monja orrek? Kolejiara eroan bear zaitula. Ja-jai! Berde zagoz, kuskulo. Monjatxo orrek erro-sario asko errezatu bearko dauz *-ditu-* aurretik», Babik bira egin eta eskua burura eroan euan *-zuan-*, «badakizu? Zuretzako jostaillu eder bat dauko zure amak or nonbaiten... Idunerako gutun polita izan daikezu...»

Babi gela illunera joan zan bizkor, argia biztu eta tresna zaarren artean, kutxa zaarra iriki eta ango oroigarrietan billaka makurtu zan: ipuin zaar, eskola lan, argazki autsaztuak», ara amen monja txotxin orren Babi» badaezpadan igaro yakon *-zitziön-* burutik. Sakonago jo euen *-zuan-* Babiren eskuak, zapitxoak, edergailluak alde batera egiñik. Antxe aztatu euazan *-zitian-* egal askodun leiar kuskook; batak bestea ekarren *-zekarten-* katean, misterio batek bestea eta, usterik gitxienean, puskatu une larria! Antxe egon *-zegon-*, leen-jaunartzeko kristalezko erro-sarioa, subkonszientean bezela uzkuraturik: katea ugerrak eta ortzadar-raren margoa autsak janda. Babi puskatu unea konpontzen asi zan. Atzamarrak dardar egitsen *-zegien-*, etendura bat konpondu bearrez, bi

egin euazan *-zitian-*, katea ugerrak galdua egoelako. Aztikeriren bat eitekelakoan *-zeitekelakoan-*, dana bertanbera itzi eta arrapaladan gela illunetik urten euan *-zuan-*.

Bere gelara itzuli zaneko, zorabioak artu euan *-zuan-* Babi, amari dei egin eutson *-zion-*.

—Zer jasoten yan *-zain-*, Babi? —ama etorri, eskuak bekokian ezarri eta oe gainean etzanteko agindu eutson *-zion-*—. Esan amari jasoten yan *-zain-* guztia, amak ba diakin *-zekin-* eta...

Babi, txikitan legez, amaren eskuetan ipini euan *-zuan-* burua, bizitzako misterio barriak ama-alaben arteko lokarri etenak osatzera bailetor.

—Ori ez don *-den-* ezer, laztana, odol-joan bat baiño —amonaren xamurtasunaz-edo aztatzen euan *-zuan-* amak Babi, gorontza askatu eutson *-zion-*—. Arnas sakona artu egin *-ezan-* eta beingoan joango yan *-zain-*. Ire egoeran gainera gauza normala don *-den-*...

Babi, nasaitu bearrez, zotin andiz goitik bera dana dardaratzen asi zan, amak bizitzako pekatu guztiak igarri baileutsoz *-bailizkio-* edo bien arteko esia beingo erori bailitz.

—Ama, gela illuna trastez beterik dago. Aitari esan bear yako *-zaio-* dana garbitu daiala *-dezala-* eta baul zaarra sastegira bota daiala *-dezala-*. Babiren arpegia negar malkoen igaroz, neke misterioetan egon *-zegon-*. Gure aurra jaioten daneko, etxea garbi egon bear dau *-du-*...

—Orixe bai, laztana, baiña orain lo egin bear don *-den-* amak soñekoa erantzen eta oean sartzen lagundu eutson *-zion-* Babiri. Mantzanilla ura prestatuko daunat *-diñat-* eta amak daukan alako pastilla batez, ikusiko don *-den-*, ze lo ederra egingo... Oraingo aurrerapideaz, gauzak bestelakotu dozan *-ditun-*, alabatxo, eta ez ire amaren denboran bezela...

Babi, oean etzan, eta gelako zeruan zirri-borroen misterioa adikatzen asi zan. Marrazki korapillatsuak benetan, surrealismoaren neke-misterioak agian, zoriak bere eskon gelako zeruan beretzako eratuak. Amak ez eutson *-zion-* oarpen andirako unerik emon. Mantzanilla ura epeltxo egon *-zegon-*, gorria zan amak Babiri luzatu eutson *-zion-* pastillatxoa eta apurka-apurka gela zeruko zirriborroak ezabatu ziran Babiren begietatik.

## XL


### MISTERIO PUSKATUA

Udagoieneko giro naroan sagar aleak mardulagotzen doaz, sagarrondoaren adarrak makurtzenago uztaren zamapean. Sagarrak osasun kolorea daukee, lore eta emoitze batean direla, begiaren poz, zuaitzaren nekez... Sagarrondo bakoitzak bere uzta dakar eta adar bakoitzak bere besoetan eutsi bearko dautso *-dio-* ume taldeari. Or kontu euki ear, buruz gaindi bizi-ura emonez, adarrak kraskatu eta uzta guztia gal ez dedin, mugaitzean jaio aurren antzera.

Aizeak geldiroago doaz sagasti barrenetik eta sagarrondoak apal itzuriten daue *-dute-* aren bultzada.

«Ai sagarrondo, sagarrondo,  
ondo zamatua ago!  
Amaika umeren zugaitz amak  
bularra gainezka dauko»...

Sagar loreen koplak bai, baiña sagar beteen nekeak ez ekizan *-zekizkin-* Babik. Babik sagarrak dendan bakarrik ikusi euazan *-zitian-*, azalean loreen pareko margoa eukela *-zeukatela-*, begietan eder eta aorako jastagarri. Babik gogotik artu eta jan euan *-zuan-* Ebaren gogoko sagar ederra, eroapenaren alaba zenik, oartu gabe. Sagar koplak jakin izan baeuzan *-bazitun-*, jakin, edo paradisuko atalak Eba amari emon eutson *-zion-* jakituria beretzat gorde izan baeuean *-bazuan-*, gorde... eta ez edozergaitik mindurikatu: «ai ama, buruko miña daukat» amak legungarria ekarri egion *-ezaion-*, «ama, goragale naz *-naiz-*», jakiak urruñatzeko,



«Amak edangarria opa eutson *-zion-* Babiri, pastilla gorria iruntzi egian *-ezan-*».

«ezin dot *-det-*, ama», nekeak alderatzeko ustetan. Enriri ezezagun egiten asi yakon *-zitzaion-* Babi, alako aldaketaz, «amatasuneko gauzak...» burura eroazan *-zeramazkin-* eskuak izkutuan.

—Aa! egin du adi, alaba! —oldartzen euan *-zuan-* amak—. Ba dakin orain biren parteak jan bear donazela *-ditunala-*.

Jaki aukeratuenak, sagar umatuenak ekartsozan *-zekarzkion-* amak eta zenbat eta mizkatuago, mizkinago erantzuten Babik:

—Ai, ama, ito egin bear naz *-naiz-*.

—Ezer ez dala, umea! Ori ondo baiño ez doa. Entzun don *-den-* medikuak esana —ama alabaren gela jabe egin zan, Enrik ate egaletik begitzen eutson *-zion-* sarritan, sartzeko bildur bailitz—. Beste alako pastilla bat emongo daunat *-diñat-* ba, atsedean artu dainan *-dezanan-*.

Amak arpegira bota eutson *-zion-* koldarkeria Babiri, «oraingo amak ez daukazue meritorik» oiko garaiak goratzen euazan *-zitun-* eta ez gixiako oraingo zientziaren aurrerapenak, «ez, enetxo, ire amak ez dionan *-din-* izan olako sendagarririk, soiñean erabilli indunean; au zerua don *-den-* aren ondoan...» amak edangarria opa eutson *-zion-* Babiri, pastilla gorria iruntzi egian *-zezan-*.

Zeru edo paradisu, pastillilla arek Babiren odol estuak baretzen auazan *-zituan-*. Babik osakaia artu eta esker onez begiratzen eutson *-zion-* maitxoan egoen *-zegoen-* osakai ongarriari. Izen arraro bat irakurri euan *-zuan-* bonbillatxoan eta osotu ezinik gelditu zan «gizonek asmatuko ez leukeen *-lukeen-* gauzarik» doi-doi oartu euan *-zuan-*, loari emon orduko.

## XLI

### ERENSUGEA

«...Arrigarrizko ikuskizuna agertu zan zeruan: emakume bat eguzkiz jantzirik, oiñazpian iretargia eta buruan amabi izarrezko koroia ekarrela *-zekarrela-*, aurdun eta erdimiñez garraxika, ertaldi gaitzaarren» —Babiren erraiak biziro mugitu ziran alako irakurkizunaz—. «Beste ikusgarri bat ere azaldu zan zeruan: zazpi buru, koroï banakin eta amar adar eukazan *-zeuzkan-*, erensuge gorria» —mamutzaren mamutzaz, Babik buruak eta koroïak zenbatzeko astirik gabe, alako ikuskizunaz izutu egin zan, eta erakurten jarraitu ere ez euan *-zuan-* jarraituko, bere aurtxojaiaio aurretik, liburutzar aixe irakurri bear euela *-zuala-*, apostu egin ez bauleutso *-bailio-* bere buruari.

«Eta seme bat erditu euan *-zuan-* emakumeak, burdinezko zigorrez erri guztiak jaurrituko dauzana *-dituna-*, eta seme ori Jainkoagana eroan eta aren aulkira jasoia izan zan. Emakumeak basamortura igez egin euan *-zuan-* orduan, Jainkoak arentzat atondu euan *-zuan-* bazter batera, milla eta berreun eta irurogei egunez janaritu egien *-zezaten-*.

Zeruan guda sortu zan: Mikel eta bere angeruak erensugearen aurka urten ziran, erensugeak bere aingeruekin gogor ekitsela *-zekiela-*. Baiña ez ziran eurok garaille urten, eta arrez gero ez dago zeruan eurentzako tokirik. Eta erensuge andia, Satanas deritxon *-deritzaion-* aspaldiko sugea... «—Babik aitaren egin euan *-zuan-* Satanasen buztana urretik ebilkola *-zebilkiola-* usnatzean, Aizta Juliak erakutzi eutsonez *-zionez-*, eta uste gabea, Apokalipsis idazkiaren lerro batzuk saltatu euazan *-zitan-*.

«Erensugeak, bera lurrera jaurti euela *-zutela-* ikusi euanean *-zuan-*, semea egin euan *-zuan-* emakumeari jararritu eutson *-zion-*. Baiña



emakumeari arrano andiaren ego bi egokitu eutsoezan *-zizkien-*, basamortuko bere bazterrera iges egian *-zezan-*; eta an, sugearen begietatik at, iru urte eta erdiz azten dago.

Erensugeak, osterera ere, aotik ibai alako ura jaurti eutson *-zion-* emakumeari, uriolak eroan egian *-zezan-*. Baiña lurrak, emakumearen alde urtenik, aoa zabaldu eta erensugearen aotiko ibaia iruntzi euan *-zuan-*. Orduan erensugea, emakumeaz asarreturik, aren beste ondorengoei, Jainkoaren aginduak betetzen eta Jesus aitortzen dauenei *-dutenei-*, guda egiten joan zan. Eta itsasoko ondarretan zain gelditu zan...» Babik, begiak itzi eta «nork azalduko daust *-dit-* auxe» iñon *-ziñon-* bere kautan eta sugearen eta emakumearen burrukak Enriri zelan esplikatu ezik gelditu zan, «burruka azkenik nork irabazi euan *-zuan-*, jakin banenki, beintzat» esaten euan *-zuan-*, irakurtez naikotu zanean.

## XLII

### LOKAMESA

Babi karraxi andi batez iratzartu zan eguerdiko lo kuluskatik. Ama laguntzera joan yakoneko *-zitzaioneko*, Babi, estalki guztiak beera jaurti eta zutunik egon *-zegon-* gela erdian, esku biak buruan eta izu begiak arpegian.

—Jainkoarren, zer gertatzen da, Babi? —amak oratu eta oean eratzan euan *-zuan-* legunki.

—Erensugea! —itzak falta yakozan *-zitzaizkion-* Babiri ikarea adierazteko.

—Lokames bat eta orren beste zarata? Non don *-den-* nik emoneko pastilla ontzia?

—Ene aurra!...

—Ze ames izan don *-den-*, ba?

—Ai ene!...

—Ez don *-den-* zertan bildurrik. Emen seguru gagozan; baiña konta eidan *-ezaidan-* ames zoro ori...

Babi iratzartuago eta amesa urrunago yoakon *-zijoakion-*, baiña arako irudiak eta irakurgaiak txortaturik, amesa leenera erakarten aalegindu zan:

—Lorategi apain baten izan da... Egurasten nenbillen eta loreak, txoriak, mitxeletak eta erleak lagun nenduzan *-nitun-*...

—Lagun onegiak ames gaiztorako. Jarrain!

—Loreak ñaka egisten *-zegidaten-*, usain gozoa opaz, ni igarotean, zuaitzak frutu gozoenak, eskua luzatzeaz bakarrik, txoriek abesti zoragarrienak, eta mitxeletek egoekin laztanka...

—Ze koloreko ziren gero mitxeletok?

—Zurizkak-edo...

—Señale ona dozan *-ditun-*: zoriona diakarren *-zekarten-* —amak egundoko amona antza artu euan *-zuan-*, alako barre sorgiña ezpañetik atzeko ortzetaraiño iriki euanean *-zuanean-*—. Eta erleak? Ez daustan *-didan-* esan erleak zer egien *-zegien-*. Eztitan itziko induenan arean...

—Gero aldaketa latzagoa izan eiten *-zedin-*...

—Ori amesa barik, paradisia don *-den-*: Ebaren konplejua, alabatxo! Gero zeru erdi geratu eta ere zer? Orain ulertzeko dozan *-ditun-* ire arrantza eta karraxiak, ene!

—Orren andiak izan ete dira, ba?

—Angeruak suzko ezpataz aurretik bialduko indunan eta, jakiña!

—Ez egon *-zegon-* angerurik...

—Angeru edo deabru; beti diagon *-zegon-* angeru edo deabruren bat amesetan.

—Sugetzar andi bat izan da eta...

—Falta zana: paradisiko sugea Ebari galanto sagar eskeinka...

—Bai eta ziztaka ere! Lore azpitik urten eta ementxe esmumako oiñean.

—Zizta egin daunala *-diñala-*? —oe atzetik estalkia jaso eta amak barrera ospatu euan *-zuan-* amesaren utsa—. Emen ez diagon *-zegon-* arras-torik, alan ere leenago galaiago zonan *-unan-* sugetzar ori...

—Eta oiña pustutzen asi yat *-zait-* orduan; andituak belaunetik gora igon *-zigon-*, erraiak eta gorputz guztia artzen eustala *-zidala-*. Eta larrieenan, ai ena! —Babi larritu egiten zan eta amak, eskua artuz, adorea emotson *-emaion-*.

—Utsa!

—Utsaren urrengo, ama. Ikusi ba zendun *-zenu-*: Umeak ez eukan *-zeukan-* antzik ere...

—Ze ume ta ze kume diñon?

—Neurea, ama; zein izango zan, ba?

—Ba, ba, ba!... Ze uste dion *-din-* deabru kume orrek? Doala Ake-larreko bere ama sorgiñari adarra jotera! Amesaren zoroa!...

—Eta egia gertatuko balitz?

—Esatea ere! Amesa, ames! Entzun don *-den-*? Gauza ederragorik amesten aalegindu aiteken —amak ur gozotua eskeiñi eutson *-zion-* Ba biri, estarritik aisago igaro eian *-zexan-* pastillatxoa—. Dana izan don *-den-*, neuk esaneko, pastilla au ez artzearren.

### XLIII

#### GUZUR ANDI BAT

Ogei urte inguru izango ziran Babirenean errekadonik jaso ez zala, ez antzi, ez irrito, ez euri eta ez eguzki; seaska bat bilinbalatu ez zala. Laster seaska barri batek poztuko euazan *-zitian-* etxe bazterrak. Enri berak jaso euan *-zuan-* lepoan gelaraiño eta Babi baretu zan seaska gertu ikustean: zumitzezko «moises» kulunkaria. Amak amonaren sena saiatu euan *-zuan-*, «kulunka ona dauka» eritsi euan *-zuan-*, oin puntaz igitu ondoren.

—Momo galantak egingo dauz *-ditu-* gure pospoliñak —amak keiñu egin eutson *-zion-* Babiri, Enrik atea itzi eta aldendu zanean—. Ziri bat sartuko dionagu *-zionagu-* Enriri datorreneko?

—Zer gero, ama? —sorginkeri gaiztoen bat susmatu euan *-zuan-* Babik.

—Teleikuskiñaren gaiñean dagoen Otsoko eratzango dionagu *-zionagu-* seaskan aurraren jantziakin, eta Enri datorrenean, ni seaska kantuz eta i larri begi orrekin...

—Txantxetarako gogoa dozu *-dezu-*, ama —asarre begiak labandu euazan *-zitian-* Babik—. Itxusiegi deitxat *-deritzait-* malmuzkeri ori. Seaska ori neure umeak estraiñatzea gura neunke *-nuke-*, olako arin-keriz kutsutu gabe. Gaiñera jantzi oneik, iñoren soiñean janztea, pekatu dala emoten daust *-dit-*...

—Ez, ba, ez... Bere lepotik barre egitearren zonan *-unan-* bakarrik.

—Ori gabe ere, ba daukagu zertan arduratu, ordua daneko... Kli-nikara dei egin bearko da; aitari abisatu...

—Itzi dana nere arduraren. Uste don *-den-* ez nagola danaren gaiñean ala?

—Gauza andirako ez naz *-naik-*, baiña, karta bat edo egin nai neunke *-nuke-*...

—Zertan nekatu? Gero ere sobera jakiten dozan *-ditun-* barriok...

Bakezko unada bat uztiatuz, Babik luma artu euan *-zuan-* eskuetan eta «Mali, ene adizkide miña» idazten asi zan ingi zurian. «Beti legez nitaz arduratzen zarenez gero, etxean daukagun barri ona jakin eraztea erabagi dot *-det-*. Oso ondo nago eta dana normalki dator, merikuen eritxiz; beraz laster dogu *-degu-* zikonia gurean...» Tenk egin eutson *-zion-* lumak eskuetan Babiri. Zinki eta minki, ez eutsola *-ziola-* iñoiz olako iñosokeririk iñori esango... «Ze zikonia ta ze zerimonia» jarkitu zan Babiren barru guztia, alako izketa barregarrian jausi zalako. Ez ete zan, bada, Mali berbera izan, «iñozente potente» umekeria itxusitu eutsona *-ziona-*? «Tira! Aurrak engaiñatzeko» Babik ris-ras asitako gutuna lau zati egin euan *-zuan-*.

#### XLIV

#### GOIZ GORRI...

Murriz eta gorrimiñez agertu zan eguzki amandrea odeien algodoi guztia zauri bizitan odoldu bearrez, ilkorren odol jasak biotzeraiño mindu baileu *-bailu-*, edo euri zamurrez gizakien odolestuak gozatzen bailetor...

Estutasunak eta zalantzak antxe, erdi barrien klinikan, ostatu artu euen *-zuten-* eta Babi oean etzan *-zetzan-*. Ama barriaren aienik ez zan entzun, aurtxo barriak «ueee» xume batez «emen nago ni» esan eueanean *-zuanean-*, eta Babik oraindiño ez euan *-zuan-* oartzten erraietan utsune bat egin yakola *-zitzaiola-*.

—Jaio da! —esan eutson *-zion-* belarrira abots ezezagun batek, oean urrumaka mugitzen asi zanean—. Jaio dala!...

—Ee?... Babi alkol usaina usnatzen asi zan eta txutxu-putxu isilla bakartade giroan; jagiteko gogoia etorkon *-zetorkion-*, baiña aztunegi eukan *-zeukan-* burua, bururdinetik jasotzeko, miñak sentitzen asi zan. Ai ena!

—Zagoz geldi-geldi, eta obeto atsedenduko zara *-zera-* —eskua bekokian ezarri eutson *-zion-* gaisozaiñak.

—Non dagoz? —Babik txutxu-putxua bai aditzen euan *-zuan-*, baiña gelan iñor ez ekusan *-zekusan-* eta orduantxe, miñagaz batera, barreneko utsunea nabari yakon *-zitzaion-*. Ikusi gura dot *-det-*...

—Egon nasai —esku biakin laztanduz, arpegi argia erakusten eutson *-zion-* gaisozaiñak—. Laster daukazu besoetan.

—Neskattoa ala mutikoa da? —Babi lurazoan egon zan orixe galde ala ez galdetu, baiña luzapena neketsu egiten yakon *-zitzaion-*, zerbait galde barik egoteko; neskattoa zala esan eutsoenean *-ziotenean-*, errukizko antzi egin euan *-zuan-*s —Ai ene! Izarño dogu *-degu-* orduan...

Atozteko txutxu-putxua gero eta urduriagoa zan eta amonaren aboskera garratza nabarmentzen zan danetan, «zertan ete dagoz gure ama eta...» Babiri susmogarri yakon *-zitzaion-* arako maizeatzea. ez ete euan *-zuan-* berak, amak, arazo aretan zerbait esan bearrik?

—Zer dala eta itzi naue bakarrik? —amatasunaren eskubideak igon eutson *-zion-* Babiri bularrera—. Esan daistela *-dezaidatela-* neuri, alaba bategaz konforme ez badagoz!...

—Zera: umea txukuntzen egongo dira... Ba dakizu, umeak jaioten direnean... —emagiñak emagin zeetasunak emotsozan *-zemaizkion-* Babiri, baiña Babi ez zan baretzen. Urrengoan, ama izatera eltzen bazan, ez euan *-zuan-* lagako konortea iñoren eskuetan. Obe emoten euan *-zuan-* jasan bear danean, jasan, gero ondorenak sufritzen egon barik...

—Esan daistela *-dezaidatela-* zer gertatu dan! —Babiren kirioak bigarrenez eztanda egin euen *-zuten-* une aretan, Enri gelan sartu zan eta Babik bere asarrea erakutsi eutson *-zion-*. Zertan zabiltze *-zabiltzate-* or neuri ezer esan barik?

—Ondo zagoz, Babi? —irriño baten alegiñak egitsozan *-zegizkion-* Enrik, larrosa txorta opa eutsola *-ziola-*. Alabatxoa dogu *-degu-*.

—Eta alabatxo adalako, olako arpegiak? —Babik ondo ekizan *-zekizkin-* amonaren seme naikeriak eta griña beraz kutsutu ekusan *-zeksan-* Enri une aretan—. Zer ardura dausku *-digu-* guri alaba edo seme? Ez ete da geurea?

—Orixe esan, laztana! —esku dardaratsua emotson *-zemaion-* Enrik Babiri, urduria urduriz geitu bearrez—. Zer ardura dausku *-digu-* alaba edo seme une onetan?... Baiña ez da ori...


—Zerk kezkatzen zaitu orduan? —Babiren betertzean malko bat agertu zan.

—Ez da orrenbestera, Babi —estul egian *-zegion-* Enrik, alperriko nasai bidez—. Aulik xamar agertu yakula *-zaigula-* bakarrik, baiña biziko da...

—Ai ene!... —Babik zotiñez nastau euazan *-zitan-* aieneak—. Biziko dala... Biziko dala...

—Orixe! Biziko dala! —adorea emotson *-zemaion-* Enrik—. Biotzak ondo erantzuten dautsola *-diola-*, diño merikuak.

Oraindiño Babi zotiñen mende egoela *-zegoela-*, seaska zuria agertu zan ateetan. Emagiñak emaro txirringatzen euan *-zuan-* eta Babi bildur zan, ainbeste aldiz ikusteko griñaz egon zan, arpegia ikusten, areago, emagiñaren atzetik, amaren, amona barriaren, illeta arpegia begiztatu euanean *-zuanean-*.



«—Zer dauka, bada, ama? —Babik Izarño umea ezagutzeko gogoa azaldu euan *-zuan-*; ala ere bildur zan...».

—Negarrez ago? Ez don gitxiagorako... —garratza yakon *-zitzaion-* Babiri amaren abotsa; ortik ezagutu euan *-zuan-* ez direla bide beretik ama eta amona tituloak irabasten. Ama Babi eta Izarñooren arteko, geriza illuna baizen artekatu zan—. Ez don *-den-* osatuko...

—Zer dauka, bada, ama? —Babik Izarño umea ezagutzeko gogoa azaldu euan *-zuan-*, ala ere bildur zan.

—Zer daukan?... —Amonaren sudurra ikaragarriro kakotu zan, irri bat antzeztu euan *-zuanean-*. Zer ez daukan esan baendu, alabatxo...

—Arpegi gorrikatxoa dauko, euki ere... —Babik esku batez bigunki lastantzen euan *-zuan-* Izarño bekokitik kokotzera «lastana, Izarño, laztana» inñotsola *-ziotsola-*, «osatuko zara; merikuek esan daue *-dute-* eta...».

—Ez don *-den-* osatuko —amonak itxaropena mozten eutson *-zion-* Babiri erro-errotik eta gertzeño arrosatuaren mangak utsak salatzen euzan *-zitun-*, gora jasoka eta jausten lagarik.

—Zelan jantzi dozue *-dezute-* umea? —amaren barrabaskeriren bat susmatu euan *-zuan-* Babik, jertzeñoaren manga ertzetan, Izarñooren atzarmartxoak ez ikustean, Babik arpegira begitu eutson *-zion-* amari—. Ze ganora da ori, ama?

—Ze ganora?... —itzetik ortzera erruti barik, erasoten eutson *-zion-* amak Babiri—. Alperriko mangak egin dautsonazala *-dizkionala-*, alperriko mangak... Ikus egin *-ezan-* euk ezaere...

Amonak errez askatu euan *-zuan-* jertzeñoa aurraren soñetik eta Babiren oe gaiñera jaurti euan *-zuan-*. Larriena ez ikustearren, emaginak gelatik urten euan *-zuan-*. Amonak, «zelako ganora» marmarika, erruki barik kendu eutson *-zion-* Izarñori Babik orratz lanez ederturiko, atortxo ere. Estalkiak atzera egiñik, Izarño gaisoa billusik gelditu zan, Babiren begi arrituen aurrean.

—Ai ena, ama! Umea eldu barik jaio yaku *-zaigu-*! —besoen tokian, ego azikiñak baizen kuskua, ekusan *-zekusan-* Babik—. Besook ez ete dira elduko?

—Ez besoak eta ez ointxoak —begirada zorrotzez zulatzen euan *-zuan-* amak Babi—. Kontu egin umea ez donala ugaraxoa...

—Gaurko medikutzak, ama, zeuk esan zendun *-zenun-*... —Babik eziña egiña billatzen euan *-zuan-*.

—Medikutzak izurrite bat dala diño; medikutzak zera...

—Fokomelia... —lurretik jaso euazan *-zitian-* begiak Enrik, nunbaitetik argi egin gurarik.

—Eta ez daukala sendabiderik —amak ezkor eragiten eutson *-zion-* buruari.

—Eramanpena sendabiderik onena —aalegindu zan ostera ere Enri, begiak gorago jasoten.

—Sendabide medartxo orixe! —akar egitson *-zezion-* amagiñarrebak Enriri, alabatxoari biotzeko atek iriki gura eutsozalako *-zizkiolako-* edo.

—Ez gara, gaitz orrek jotako, bakarrak —Enri umea janzten aurreratu zan, bada, Izarño otza-arren, «ueeeka» asi zan—. Datorrenean, datorrena...

—Besteen gaitza, pozbide galanta —ura otza botaten eutson *-zion-* amak itxaropenari, eta Babik» bere pekatuen ondoreaz» lotsatzen.

—Gurea biziko da beintzat —murrustu zan Enri—. Beste askoren gaitza, azkena izan zan...

—Ain zuzen ere, orixe litzaken olakoentzako erremediorik onena! —erio alako epaia opa euan *-zuan-* amonak illobarentzat, esan-gordeko itzetatik eta begikunearen ditzira galgarritik.

## XLV

### ARRATS GORRI...

Arratsean trumoi eta guzti askatu ziran goiko iturriak, orri zaarrak, orbel izateko bildurrez, zuaitzetan dardar egien *-zegien-*; azken sagar umatuak sagarrondoan bertan likindu ziran, beratuaren beratuz, eta aize-tako indarrak deslai, adozeri kalte egiteko baimenaz ebiltzan *-zebiltzan-*.

Baiña Izarñoren burutik ur garbitzailleak jario ziran eta izen barriko argiak ñirñir egien *-zegien-* bateo uretan. Amonak ez euan *-zuan-* jantzi mantelin apaiña, Izarñoren omenez, fededunen argizariari eusteko; jaiak amonagandik eukan *-zeukan-* alderdi illuna.

Enriri zoragarriak eritsi yakozan *-zitzaizkion-* alabatxoaren begiak. Babi eta biak noren koloreko eta zeñen antzeko ete einkezan *-zitezken-* galdeka ibilli ziran; «zoragarria arpegia» goratu euan *-zuan-* aitak, «gaiñerakoa ain zoragarri baleuka» asperendu zan Babi ama. Amonak murriz begitu eutson *-zion-* guraso barrien zorionari sukaldeko zokotik, eta txakur lumatsua lekuko euala *-zuala-*, «ze uste daue *-dute-* orreik olako umeagaz...» ezbaian ipinten euan *-zuan-*.

Guraso barrien solasladia amaitu zanean, Izarñok amaren abotsa urruntzen somatu euan *-zuan-* bere lotatik eta bildur deiez, ueka asi yakon *-zitzaion-*.

—Gose izango da —esan eutson *-zion-* Enrik Babiri.

Amak besoetan artu euan *-zuan-* Izarño eta ez zan ixildu, arik eta bizi egarria amaren bularretan asebate arte. Izarñok, eskurik ezin einkean *-zezaken-* mugitu, baiña ointxoak pozarren mugitzen euazan *-zituan-*, esnea edozkitzean. Amona ez zan bat ere poztu, illoba amaren bularretik indarbarritzen egoela *-zegoela-*, ikusisik.

Albert eta Marilyn, zorion opa etorri zirenean, Babik itzerdika eta susmogarri idoro euazan *-zitan-* amonarekin, «zelan dago gure larrosatxo» ots egin euan *-zuan-* aitonak, barrutiko uarrak, asko aztatu barik. Pozjarioa burlezar ete etorren *-zetorren-*, egon ziran une batez Marilyn eta. Aitona bañuetxetik etorren *-zetorren-* eta bañuetxera joateko zan. Beingoan konturatu zan aitona, berak ez eukala *-zeukala-* zelan goza etxe-ko penarik edo zertan danen kezketaz ardura.

Amona, Potxo magalpeko eukala *-zeukala-*, katu baltzaren setaz jabetzen zan sukaldeaz, Izarño seaskan kulunkatzen joan gabe, «umearentzat esnea berotzen abil» eta olako irriz saietzetik jotzen euan *-zuan-* Babi ama, alperriko bideetan bailebil.

—Aitu ein *-adizan-*, medikuek isilgordeka diabiltzan *-zebiltzan-*, baiña fokomelidunek jausten yoazen *-zijosten-* —esan eutson *-zion-* goiz baten, izparringia erakutsirik.

—Bada gurea bizi da eta leen baiño indartsuago dago —erantzun eutson *-zion-* Babik amari, aurre egiñik.

—Ez don *-den-* luzarorako izango... —barre zuria egin eutson *-zion-* amak Babiri.

Enri berari bestelako zirien bat sartu ete eutson *-zion-*, egon Babi, bada Enrik ez euan *-zuan-* begiratzeko, leen bestean, Izarñoen begietara eta egun baten zigarro erretzen susmatu euan *-zuan-* zurubian.

—Barrero erretzen asi az *-aiz-*... —agirika egin eutson *-zion-* Babik begi-begietan; Enrik lotzaz izkutatu euan *-zuan-* zigarro kondoa, baiña ez erretzeko agindua zergaitik austen euan *-zuan-*, aitortu gabe.

Ortik antzemoten euan *-zuan-* Babik, Enri aldatzen yoala *-zijoala-*, «ezin dau *-du-* jasan Izarñoena...» begiak bustiten yakozan *-zitzaizkion-* Babiri, Izarño gaisoa berak bakarrik laztan bearko euala *-zuala-*, oartzuz.

Izarño indartzen yoala *-zijoala-*, auleziaz oeratu zan Babi eta umearentzako esnea berotu egiala *-ezala-*, eskatu eutson *-zion-* amari. Babik ez euan *-zuan-* oartu amak Izarñori jaurti eutson *-zion-* arrano begirada, esne beroakin bere gelara sartu zanean.

—Ume orrekin ez daukagu gauza onik etxean! —Babik, entzun bai, entzun euan *-zuan-* amaren agurra, baiña «ume orrekin...» esangura aztertzen gelditu zan.

—Geure Izarño da, ama! —biotz osoa ipini euan *-zuan-* Babik aoan.

—Ez eta iretargi erdi ere!... —sudurra arranoaren antzera makotu euan *-zuan-* amak—. Beste erdia ere joan eiteken *-zeiteken-*, bere moduko besteekin...

—Zer diñozu, ama? —Babi loasmatik iratzarten egon *-zegon-*.

—Ez dogula *-degula-* gauza onik etxean ume orrekin! —erantzun eutson *-zion-* amak, eta mikearen kantu garratz aretara, Izarño esnatu egin zan.

—Jaungoikoak daki... —mindurikatu zan Babi, gaiso alduarena egiñaz, erruki billa.

—Orixe dakiala, eta beragana bialtzea izango litzakela onena... —amak botillatxo berdezka bat iriki euan *-zuan-*, Babik botilla berdezka ikusi euan *-zuan-*, ikusi, baiña ez zan oartu, «guk zer dakigu, zer den egokiena...» minkatu euan *-zuan-* Babik eta amak orduan ozenago eragon *-zeragon-*. Eta nork jakingo dion *-din-*, alabatxo, geuk, bere gurasook, ez badiakigun *-zekigun-*?...

Izarñok «ueee» xume batez, erosta jo euan *-zuan-*, Babik arnas estuka eabillan *-zeabillan-* bularra, «Ai, ene Jainkoa» asperen egin euan *-zuan-*, amak orduan eta amorratuago erasoten eutson *-zion-*:

—Guk ez daukagu ume gaiso orreri orrela sufri eragiteko, eskubiderik. Biotzak diñost, bai, ikaragarritzko nekeak jasan bearko dauzala *-ditula-* ume orrek... Ez daukagu eskubiderik!... Zerurako dana, ez da mundurako... —ziriak zorrozten euazan *-zitan-* amak, Babi estalkipean gordetzen, zaparrada igestearren—. Ikusi dozan *-ditun-* ume orren eskuak? Ez au ebein ere besarkatuko! Ikusi dozan *-ditun-* orren oiñak?...

—Obe ez ikusi, orrelakoak entzuteko! —ormara begira iduli zan Babi, gaisozaiñak indiziñoak emoten eutsozanean *-zizkionean-* legez.

—Ez dozan *-ditun-*, oiñez ibilteko lain izango! —amak botila berdeko autsak nastau eutsozan *-zizkion-* esnari eta itzen indiziñoa emotson *-zemaion-* Babiri—. Ez don *-den-* ikusi illerrietan aingeruen illobirik «zerura egatu zan» diñoela *-diñotela-* eta aingeru egoen irudiekin?

Izarñok gero eta gorago salatzen euan *-zuan-* amonaren alako esku-sartzea, Babi samiñez egon *-zegon-*, «esnea emoiozu umeari» deadar egin eutson *-zion-* amonari.

—Euk esan don *-den-*. Orixe konbeni yako *-zaio-* gaiñera; besorik ezean, egoak, egoak —amak esne botilla luzatu eutson *-zion-* Izarñori—. Izarñok eskutxorik euki izan baleu *-balu-*, euki, ukabiltxoak begien pare-aiño jasorik, sorgiñaren mamu galgarriak uxatuko euazan *-zitan-* indar guztiaz, baiña aoa bakarrik eukan bizi egarria asetzeko. eta erio ziria sartu eutson *-zion-* bertatik sorgin gaiztoak. Edangarri aretan asetu euazan *-zitan-* Izarñok bere biziko gose-egarri guztiak eta beingoan, sorbalde-tan, eskuen ordez, egoak azi bailitxakozan *-bailitzaizkion-*, Izarño izarrak baiño gorago egatu zan.

## XLVI

### NIREAK EGIN DAU!

«Babi maite: Ordu argiagotan lagun izan ninduzunez, zure oraingo neke ori neurea egiten natortzu *-natorkizu-*, lerro apal onen bidez. Nik ez dakit, egia esan, ama batentzat zer pena dan, alaba galtzea; agaitik, neure dolumiñak opatzean, bildur naz *-naiz-*, lagundu bearrez, nekeak barriztuko ete dautzudazan *-dizkitzudan-*.

Orren besteko samiña zer dan ez dakidanez, osakai aringarria asma-tzea ere zillegi yat *-zait-*. Naiko litzake niretzat, jadanik gogoan dozun, argitxo ori apur bat bizkortzea, urrutiko izena dan «itxaropenak», atetik argi dagitzun, eta beti urrutik susmatu dogun *-degun-* zeruak izar barriz keiñu egin dagitzun. Agaitik esan oi da, zerutik laguntzen dauskuela *-digutela-*, ildakoe...».

Babi arriturik egon *-zegon-* alako oarkizunak irakurri eta azpiko ize-na irakurtean. «Aí, Mali! Nik buruarin bat intzala uste nendunan *-niñan-*!... Eta orain gauzak biotzetik ikustean, eu burudun eta ni errudun argi ikusten dionat *-diñat-*... Jakin, baenki, gure Izarñori zer jaso yakon *-zitzaion-*! Erail egin gendunan eta!... Egia esan, nik il eta gero erail nendun *-nuen-*, errudunik ez dodalako *-dedalako-* salatu Jaungoiko eta gizonen aurrean. Enri amaren errukide zala, Enrik ba ekiala *-zekiala-*, ama zer egitera yoan *-zi Joan-*, errukizko ekintza egin euela *-zuela-*, ume gaisoa zerura bialtzean eta mareatu naue... Zera ere esan diausten *-zidaten-*, gero ere nai beste ume eder eta ondo eldu ekar neinkezela *-nenzazkela-*, Izarñoren orde. Beste Izarño bat? —zoro barrez mogidu ziran Babiren ezpaiñak, entzun ere, entzun zan zoro barrearen zarata, baiño Potxok eta amak ez euen *-zuten-* oartu sukaldetik. Babik bere kon-



tzientzia bere erraien parean ipinten euan *-zuan-* eta damuak, Maliren gutuna azkeneraño irakurteko, adorea emotson *-emaion-*. Baiña ezin izan euan *-zuan-* irakurri begietako malkoak txukatu gabe.

...«Geroko bizitza ipuin utsa dala esaten daue *-dute-* batzuk eta neu ere amasei urtekin ala sinistra eldu nintzan —sinistera ez, neure buruari opatzera baiño—; erratu egin nintzan. Geroko bizitza ez da geure ez-baien gustokoa, oraingoaren ordeko bizitza aña. Batzuk errezago eta ariñoago doazela bertara eta, beste atzuk nekebide larriagoak igaro bear dauezela *-dituxtela-*. Eta ziur, nik baiño obeto ulertuko dozula *-dezula-*, Babi, zeure biotzeko zati bat zeruratu yatzunez *-zaizunez-* gero. Zerua, beraz, danon agindu etxea da, baiña ez danontzako era berean...».

«Idazkera, lumari begira Malirena da —iñoan Babik— baiña unari begira...» Babik Aizta Juliaren eskua ikusten euan *-zuan-*. «Samingarren bat jasan ete dau *-du-* Mali berak ere, eta Sor Juliak idatzi ete dautsoz *-dizkio-* oarpen eurok...» susmo euan *-zuan-* Babik. Eskola beraren ikaskizunak, emon euazan *-zitun-* geroago, bada «gora biotzak» iñotsen *-ziotson-*, «sinistez eta itxaropenez zeure etxean dozu *-dezu-* orain eta beti ainbeste maite izan zenduana» amaitzen euan *-zuan-* eta agur egitson *-zegion-* Malik.

«Andiegia da pekatua» asperen egin euan *-zuan-* Babik, oraindiño Maliren gutuna eskuetan eukala *-zeukala-*, eta Izarñooren erailtzan errukide ikusten bazan, ez zan sentitzen garbiago barrenean, amarenganako eukan *-zeukan-* erresumiñaarren. Izarñooren zerua urtuti eta amaren inpernea gertu. Eta orain ez eukan zertaz erantzun amari, ez zer gorde amaren aurka, Izarño joan zanetik. Babi amaren igeska ebillan *-zebillan-* sukaldetik gelara, eta Zumardiko egurats osasungarria eragozten eutsoen *-zioten-* ango angeruek, Ebari suzko ezpatak bezela. «Andiegia da pekatua! Alaba erail eta ama gorroto...» emoten eutson *-zìon-* buruak Babiri.

Babik Izarñoorena izan zan seaskan iduliten euan *-zuan-* luzaro buru-biotza, kolko eta begiak bertan askatzen euazala *-zituela-*, Izarñori deika eta barka eske. Eta erantzunik ezean, maiz etsipenaren mende gelditzen zan, burua naasturik, ama-alaben bizitza kate baltz berari loturik bailekus. Eta katea puskatzeko gogoak emoion *-zemaion-*. «Obe beragaz il banintzan...!»

## XLVII

## BAKEAN GUDA

Izarñooren amona nasaiago sentitzen zan «erruki ekintza» egin ondoren. Okotza leen baiño luzetxoago bai eta sudurra makoago, baiña arpegiunea samur, batez ere Potxoren pozkerieri erantzuten eutsenean *-zienean-*.

Babiren amak ez eukan *-zeukan-* orain zertan miiñaz iñor eztenkatzen ibilli bearrik, ez begiradaz epaituen etorkizuna iragarten jardun bearrik, ez «aur ori..., aur orrekin...» munduan zorigaitza salatu bearrik, zitalak aienatu eutsozalako *-ziolako-* sorgiñen begizkoak. Bai; amonak gurako euan *-zuan-*, gura, zorioneko illobatxo bat, tatantxu egiten eta txaka-txaka ibiltzen erakusteko. Baiña zer erakus einkeion *-ezakeion-* alako aur galduari?

—Etorri ona, Potxotxo! Etorri, laztana —txakurrari leziño zaarrak erakusten aalegintzen zan amona—. Ea zelan eusten dautsozun *-dizun-* eskutxu biekin pelota oneri aidean...

Potxo atzeko anken gaiñean zutitzen zan, bere endakoeri okela zatia goitik erakusten oi yakenean *-zaienean-* bezela, eta amona Potxoren trebetasuna txalotzen euan *-zuan-*, amonatasunaren zaputzak igestearren-edo. Potxoren atzaparrak bai ondo eratuak errotik erpiñetaraño, areixek bai oiñen bizkorak, eta ule oriztaren ditzira baiñutik arako, usaingarriz loretzen euanean *-zuanean-*.

Potxok iru urte eukiko euazan *-zìtuan-*. Ez, ez zan nunbait bera Kuki, kamionak galdukoaren ordeko erosi euana *-zuana-*. Amonak ez eroan ondo txakurren kontua. Beste txakurren bat igaro bear izan euan *-zuan-* amonarenetik, Kukiren ondoren eta Potxoren aurretik. Izan ere,



«—Potxo, neuk emongo dautzut *-diut-* gaur zuri gosaria... —agin artean esan euan *-zuan-* Babik, eta soñekoaz batera patxara maltzurrena jantzi euan *-zuan-*».

txakurrak, atsegiñ orduak opa ezeze, gaur artu eta biar gogara berbanbera itzi daitekezen *-daitezken-* patariak dira, eta ardura gitxiren truke, poz merkea emoten dakien *-dakiten-* lumaztoak gaiñera.

—Ea, Potxo! Zelan esan dautzut *-dizut-*? —ikaslearen okerrak eroapenez zuzentzen euazan *-zitian-* amonak—. Orrela, maitia!

Amonaren egunak aurrera yoazen *-zijoazten-*, baiña biotza samur, ezin aldendu lurreko izaki maitagarrietatik. Ez eukan *-zeukan-* Potxoren auziak baiño doiñu egokiagorik, kontzientziren sorgor marmariak igesteko.

—Potxo, oadi gure Babiri erreka doa emoten! —orixe bai, amona gertu egon *-zegon-* Potxoren pozkerien zati bat Babiri prestatzeko, bere gelako ilunetik urten egian *-zezan-*.

Babik orduak eta orduak igaroten euazan *-zitian-* Izarñoren seaskari berba egiten. Enrik, emaztea zentzazearren, seaska izkutatzea erabaki euan *-zuan-*. Babik beingoan idoro euan *-zuan-* gela itsuan, iñori ezer galdetu barik, eta bere gelara itzuli. Babik seaskara itzulirik bakarrik eukan *-zeukan-* atsedean, pekatuak aitortuz, biotza iduliz, otoiz egiñaz.

Babiren ama seaskaren joan-etorrien jakitun egon eta gau batez, Babi lo egoela *-zegoela-*, Potxo berbera eratzen euan *-zuan-* Izarñoren seaskan, «onela Babi gureak beretik urtengo dau *-du-*, goizean Potxok egingo dautsozan *-dizkion-* milizkakin» iñon *-ziñon-* kolkorako, eta gelako atea poliki iztean, bere biotz zabaltasuna opa eutson *-zion-* alabari, iñoiz ez bezela. Ez ba, Babik ez eutson *-zion-* illoba ederrik emon amonari, eta amonak berak Potxo, alako txakur maitagarria, emotson *-emaion-* Babiri, biotzaren osabiderako.

Urrengo goizean, Enri ikastetxera joan zanean, Babi oetik jagi eta, leioak iriki aurretik, Izarñoren seaskara joan zan, aren epelaren yorana yastatzera. Urreratu eta aztatzean, seaskaren altzoan zerbait mugitzen zan. «Izarño berbiztua ete» biotzak salto egitson *-zegion-*, «ene Jainkoa» auzpez urrago urbildu zan erdi illunetan. Bai eta laster jagi ere, Potxoren bizarrak susmatu euazanean *-zituanean-*. Iguñaren iguñiaz, Babik atzerantz egin euan *-zuan-*. Erratzaren kirtena, eskaratzeko lorontzia, sukaldoko labana, iskillu bat bear euan amaren gogo txakurrenean ilteko. «Ez, zera!... Botillatxo berdea...» bristadaz igaro yakon burutik amorruretan.

—Potxo, neuk emongo dautzuk *-dizut-* gaur zuri gosaria... —agin artean esan euan *-zuan-* Babik, eta soñekoaz batera, patxadarik maltzurrena jantzi euan *-zuan-*.

«Egunon» esan eutson *-zion-* amari sukaldean, bestetan legeez, baiña bere gosaritik esne apur bat gorde euan katilluan, eta ixil igitu zan ama-

ren gelatik, komoda zaarrera, botilla berdearen usnaka. Aixé idorotzen izan zan larriena, ama Potxoren aurkitze unearen sorgin pozetan egoela *-zegoela-*.

Babik gelako atea itzi eta botilla berdeko autsa nastau eutson *-zion-* katilluko esnari.

—Jagi, Potxo, ordua da eta —gelako leioak iriki euzan *-zitan-* Babik eta Potxo, eguzki printzen dirdira nabaitzean, seaskatik salto euan *-zuan-*, Babik begitzen eutsola *-ziola—*. Ale! Or dozu gaurko gozaria.

Potxok plausta-plausta edan euan *-zuan-*, Izarñoren bizitza moztu euan *-zuan-* edaria, eta oiñak ezbardin botaka, oe azpian etzan zan, alauri txikerrenik bota gabe. Babik, manta baten bildurik, beeko atariko zazar ontzian itzi euanean *-zuanean-*, irri zuri bat egin eutson *-zion-* Potxok, bolizko ortzak erakutsiz.

## XLVIII

### GUDAN BAKEA

Bederatzi eta erdietarako Babik umore ohea eukan *-zeukan-*; kante-tako gogoak emotson *-emaion-*, edo Zumardira joateko aizeak, «txakurrik ez beintzak neure Izarñoren seaskan» eskuak garbikeran, kontzientzia argitzen yakola *-zitziola-* uste euan *-zuan-*, Izarñoren oorearren egin euan *-zuan-* egite aregaitik. Baiña ez kanta eta ez dantza, bizitzaren ardatza berez aldatuko ete zan, edo zaparrada bat eroriko, bizitza aalik maizena egitea erabagi euan *-zuan-*.

Sorginkeriak barre eragiten eutsola *-ziola-* eta, ama eguerdi ingururako artegetu zan.

—Babi, ikusi don *-den-* gure txakurra? —igaroan bezela galdetu eutson *-zion-* amak, gela itsutik zokoetara, «ona, Potxo» deika ebillela *-zebillela-*.

—Nik ez... —murriz gelditu zan Babi, joste lantxoari lotu.

—Ire gelan begiratu bear dionagu *-diñagu-*, bada beste iñon ez dionat *-diñat-* topetan —ama Babiri begira gelditu zan, ea lagunduko ete eutson *-zion-*, «bai begitu, begitu» seriozki iñotson *-ziotson-* Babik, barrutik barre gaiztoz egola *-zegoela-*.

Babik atea erdi iriki itzi euan *-zuan-*, Potxoren arimak andik urten egian *-zezan-* eta ama ezeren lorratz gabe gelditu eiten. Seaskan, opean, komodan, danean eta azkenik leiotik beera begitu euan *-zuan-* amak.

—Ik ete daukan gero gure txakurra? —ama Babiren aurrean jarki zan orduan, salatari.

—Nik ala? —zirkiñik ere ez egian *-zegian-* Babiren arpegiuneak, orratz lanari itzita ere—. Zertarako bear dot *-det-* nik txakurra. Zeuk ikusi dozu *-dezu-* nik ez dodala *-dedala-* txakurrik gorde.

—Bai! Eu izan az *-aiz-*! Gorroto endun Potxo, neurea zalako! —tenk jarraitzen euan *-zuan-* amak, eskuketaz Babi salatzen eta begiradaz Babi zulatzen euala *-zuala-*. Nora bialdu don *-den-* gure Potxo?

—Bialdu? —Babik ur gozotan eukan *-zeukan-* biotza eta «zerura, txakurren zerura bialdu dot *-det-*» erantzuteko, inotson *-ziotson-* biurrikeriak—. Potxo ez da nire errekadistea...

—Euk il don *-den-*, Potxo —atzamarra jaso euan *-zuan-* amak—. Bestaldekoeri galdetu eta ez dauste *-didate-* garbitasunik emoten eta.

—Nik il dodala *-dedala-*? Zer diñozu, ama —Babik Aizta Juliaren benetasunaz berba egitson *-zegion-* amari—. Gaiñera abereetaz ez da «il» edo «erail» esaten...

—Esaidan non dan txakurra eta listo!

—Animalietaz, «galdu», «kali», «garbitu» edo olakoren bat esaten da, berbeta garbian, ama...

—Edo guzti ori batera; ik esateko eta egiteko ez don *-den-* larregi eta! Ik erakutsiko dautson *-dion-* izketa garbia eure amari, egite zindorik bein ere euki izan don *-den-* orrek!... —amak aurka eziñian, zearka josten euan *-zuan-* Babi eta biotz-biotzean—. Txikitatik diakizanat *-zekizkiñat-* ire griña gaiztoak! Betidanik susmo nendunen *-niñan-* ire seta ankerra! Ik lako emakume batek ez euan *-zuan-* merezi, ez orixe, benetako umerik, arako mamu itsusia baiño. Bai! Ire pekatuen ordeko, aur galdua euki endunan!...

Amak barra-barra jaurtiten eutson *-zion-* zaparrada, eta Babik, biotza itotzen sentidu euanean *-zuanean-*, joste lana bertanbera lagarik, gelara igez egin euan *-zuan-*, eta barrutik giltzaz gorde zanean, oe gaiñean jaurti euan *-zuan-* gogoaren eta soiñaren zama aztuna eta bularrak zotiñen mende, zapak atera bearrez, tiraten euan *-zuan-* uleetatik, garauetan kokatu yakon *-zitzaion-* gaitzari lasapena emotearren, «ez dot *-det-* entzun gura olakorik! Ez dot *-det-* entzun gura olakorik eta ez dot *-det-* entzungo geiago!...» Samiña sorgortzen asi yakonean *-zitzaionean-*, Babi erantzun billa asi zan. Oetik jagi eta idazmaiko papel zuri baten raka-raka idazten asi zan: «Ene Enri: Amak barrero ere zitalkeriz josi nau, Izarño gaisoa zala eta... Nere amaren zitalkeri onetan ez noa zeu naatzatzen eta, agia esan, Izarño joan zanetik, zeu bakarri gelditzen zintzazan *-ziñan-* nire biotzean. Ezin dot *-det-* jasan amaren etxea, ezin dodaz *-ditut-* eroan amaren zitalkeriak. Egizu berak il dauela *-duela-* nire alabatasuna, gure Izarño erail euan *-zuan-* legez, eta banoa. Etxe onetan ez dago nere bizitzari arnas apur bat emon daikeionik *-dezakeionik-*. Non nagoen galdetzen dautzueneri *-dizutenei-*, auxe erantzun zeinkeioe *-zenezakeioe-*: «Izarñogana joan nazela *-naizela-*». Kontuz, Enri, or apaleko kutxa bazte-

rrean botilla berdetxo bat dago. Auts zuri apur bat geratzen yako *-zaio-* barrenean. Naiko da bera gizon bat ilteko... Uste dot *-det-* jadanik ez nauzula bear; aaztu eizu *-ezazu-* Babiren izena. Ezingo dogu ekarri beste ume bat mundura, alako arrizkuen zemaia buru gaiñean daukagula. Ez dago «Izarñoren trukerako» beste inor zeruan. Aaztu naizu *-nazazu-*, beraz, ete erre eizuz *-ezaizkizu-* seaska eta, gure aitak, baiñu etxera joan aurretik, erre gabe itzi euazan *-zitian-* oroigarriak. Esan daiela *-dezatela-* danak: «Babi ez da bizi; Babi Izarñogana joan da».

Babi, bere lumaren ausardia edo zoramena neurtzeko, edo bizi testamentuaren ganora emoteko, arnas apur bat artzen gelditu zan, «Babi» izenaz galdeka ebilkon *-zebilkion-* korapilloa buruan, eta «Babi, Babi, Babi, galdeketara, gaiñezka egitson *-zegion-* noizbeinka eta Babi, berari irrika, oartu euan *-zuan-* orduan ormako ezkongaien laukian: Babi eta Enri ziran. A ez zan bera, berari burlaka egozen *-zeuden-* eta. Babik agiñak erakutsi eutsezan *-zizkien-*: idazmaira igon, laukia esku biekin oratu eta indarrez jaurti euan *-zuan-* lurrera. Leiarra ondo puzkatu zan eta laukia auspez gelditu zan lurrean. Iduli eta argazkia osorik, barrezka jarraian. Orduan Babiren atzamar eta atzazkolak sartu ziran lanean; irudien begiko edo aoko barrea ixildu arte, ez zan laketu. Kristal zatiak batu, argazki txatalak boltza baten sartu, eta patxada antza egiñik, beste Babi oroigarrien billa joan zan gela itsuko kutxara, «Izarñori foto bat ateratzeko lotsa zirenak, ez daue *-dute-* eukiko Babiren oroigarriak» Babik, argazkien billa, eskuak sartu euazan *-zitian-* album artean, «zuek zaree *-zerate-*, beraz, Sor Juliak ainbeste maite euazan *-zitian-* irakasle zintzoak», bana-banan agur egitsen *-zegien-* Babik, ikastetxeko, jaunartzeko, lengusinañin atereko argazkieri, ris-ras apurtu eta boltzan gorde aurretik. Lanak amaitu eta gelara itzuli zanean, argazkien txatalen boltza, lau ormeri erakutsirik, «il da Babi edergaillua! Jausi da Babi etxeko bitxia! Emen dago Babi» esaka ez zan nekatzen.

## XLIX

### AZKEN AURREKO MISTERIOA

Aldi aretan amaikatxo amak malko samiñak iruntsi euezan *-zituxten-* euren seme-alaba gaitzeratuen aurrean eta amaikatxo aita gurosok fokomeliaren misterioa samiñez oartu euan *-zuan-*. Jainko Andia! Itsasoko foka enda mamutza ete irudien *-ziradien-*, aien taxutik izena asmatzeko? Baiña zelan sortu eiteken *-zeiteken-* alako ondamena, edo eta ze pekatu egin ete euen *-zuten-* fokomelidunen gurasoek? «Geuri tokau bear auxe ere...» esaten euen *-zuten-* gurasoek onenean, Babik berak ere gogoan eukan *-zeukan-* arako Bibliatik irakurria: «Maisu, ume au zergaitik jaio da olan, bere pekatuekaitik ala bere gurasoen pekatuekaitik?» Babi ez egon *-zegan-* konforme Jesusen erantzunaz, «Jaungoikoari aintza emoteko» aregaz; ala eiteken *-zeiteken-*, baiña Izarñori ez eutsoen *-zioten-* itzi Jainkoari aintza emoten.

Fokomeliaren sorginkeria jakin zan azkenik, sorgin bedarren irakin galgarria eguzkiaren aurrean salatu zanean: «Orra or, amari lo gozoa eragiñaz, aurrari eriotz ixilla erakarri dautson *-dion-* zitala! —papelak urratu euezen *-zituxten-* izparringiek—. Orra amaren osasunari begiratuz, aurraren zoritxarra lortu dauen *-duen-* pozoia! Orra, amaikatxo amaten nekeak arintzeko ustetan, zoritxarra geitu dautsoen *-dioten-* sendagai galgarria! «Bizitzako zuaizaren sendagaia lortu dogu» esan euen *-zuten-* zientziaren oiko arrokeriz, eta zer ekarri dauskue *-digute-*? Fokomeliaren igorra!...».

Izparringiek sorgin barriak erretzeko, naiko papel pillatu euenean *-zutenean-*, erriak beiñolako madarikaziñoak ozenkatu euzan *-zitan-*:

«Sorgiñak eta, sugeak eta  
sutan erre, erre!...»



«Izparringiek sorgin barriak erretzeko, naiko papel pillatu euenean -zutenean- erriak baiñolako madarikaziñoak ozenkatu euazan -zitan-: Sorgiñak eta sugeak eta sutan erre, erre...!».

Epaituen aurreneko izenak, «Kontergan, Algosedive, Grippex, Talidomida» eta beste izen arraroak ziran. Orduetik sorgin famatuen izenekin bat artuak izan ziran. Epaituok ez euken -zeukaten-, eukitez, sorgin arpegirik, ez zan aurkitu onetariko edo aretariko sorgin bedarririk. Ez, pastilla zuri, ori eta gorri edo pildora biribil, luzenga edo txirrinkolatuak ziran, izatez. Gaiztakeriaren Aker andia ez euen -zuten- idoro azterlariak, papelezko sua ez zan naiko izan Akerraren gau gordelekua argitzeko...

## L

### AZKEN MISTERIOA

Egun areitan izparringi asko saldu zan Babilandian. Auzo bakoitzak madarikarizoñozko su auzia ospatu gura euan *-zuan-*, Doniene bezperan legez, sorgiñak uxatzeko. Suaren istilluan iñortxo ere ez zan oartu izparringi arein baztertxoen etorren *-zetorren-*, deiadar ixillaz: «Egun bi direla, etxetik igez eginiko, ogetabi urtedun emakume baten billa gabiltz naigabez bere senar eta gurasoek... Arpegiz argi, ulez orail, itxura oneko neska bat dirudi eta arrosa koloreko jantziak erabil zale da. Ba daiteke, baltzez ibiltea ere. Mesedez deitu gurera eta emon aditzen gure naigabea...».

Leenengo deia «Egun bi direla...» asten zan, gero «Lau egun direla...» eta geroago «Aste bete dela...» eta orrela igaroa igoten joan zan. Babiren amak alperriko ikerketak egin euazan *-zitian-* alabaren argazki bat billatzen. Argazki bat idoro baeuen *-bazuten-*, laster konturatuko ziran Babilandian, amak Teleikuskiñera jasoko euan *-zuan-* alabaren arpegia eta auzoak erantzun ziur bat emon einkeion *-ezakeion-*. Robot marrazki bat egitea otu yakon *-zitzaion-* orduan amari, baiña marrazkilariak arpegiko zeetasunak artzen asi zanean, amak ez euazan *-zitian-* oroitzen izparringian azaldurikoak izan ezik: «argia, oraila», baiña ezin agertu begiak, zelakoak ziran begiak; aoa, zelakoa zan aoa, okotza, masaillak, bekokia, belarriak...

Anartean Enrik etengabeko barrandari lana ebillen *-zebillan-*, amagiñarrebaren gidaripean. «Zoaz eleizara, ea gure Babi an agertzen dan» esan eutson *-zion-* eta Enri, eleizara joan eta parrokoakin, sakristauakin, aitorrentule nausiakin egon zan eta bat ere ez usmorik. «Zoaz monjetara, ea monjen magalpean izkutatu dan gure Babi» esan eutson *-zion-* ama-

giñarrebak Enriri, eta Enri, monjetara joan eta Ama Nausiarekin, Aizta Julia eta Aizta Karidadekin egon zan eta ez ekien *-zekiten-* batek ere ezertxo. «Zoaz Mali Zerenekora, bada lagun andia euan *-zuan-...*» esan eutson *-zion-* amagiñarrebak Enriri, eta Enri Malinera joan zan Babiren galdezka eta Mali zurtz gelditu zan. «Zoaz Baiñuetxera, ea aitagana jo ete dauan *-duan-* gure Babik» esan eutson *-zion-* amagiñarrebak Enriri, eta Baiñuetxera joan zan, «zer gertatzen yako *-zaio-* gure Babiri, itandu eutson *-zion-* aitagiñarrebak, baiña Babiren barririk ez ekian *-zekian-*. «Ea, zoazko kanposantura...» esan eutson *-zion-* amagiñarrebak Enriri eta Enri kanposantura joan zan. Enrik lore barri batzuk ikusi euazan *-zitian-* Izarñoren illobian. «Zuk ipini dozuz *-dituzu-* larrosa areik...» galdetu eutson *-zion-* Enrik amagiñarrebari, «ez nik» erantzun eutson *-zion-* amagiñarrebak eta Enri nor ete einkean *-zeintekian-*, kolkoari itaunka gelditu zan, an ez egon *-zegon-* Babiren arrastorik eta... «Zoaz poliziekana... Zoaz, zoaz, zoaz...». Eta arako amagiñarrebak bialdu eutson *-zitioneko-* baten, Enri joan zan eta ez zan itzuli geiago amagiñarrebanera, Izarñoren ordezeko beste seme edo alabatxo bat eukiteko ustea dana galdurik eukan *-zeukan-* eta...



